

### **3.- BALORAZIOA ETA DIAGNOSTIKOA**

#### **3.1.- BALORAZIO ETA DIAGNOSTIKO OROKORRA**

Jarduera ekonomikoaren euskarri gisa lurzoru urbanizatuaren problematikan zerikusia duten aldagai nagusien inguruan aurreko kapituluan aztertutako alderdietatik abiatuta, ondoko egiaztapen hauetan oinarritutako lehen diagnostikoa egin daiteke:

- Lurzoruaren eskuragarritasuna funtsezko faktorea da garapen ekonomikoaren bideragarritasuna bermatzeko. Hori agerian dago Euskal Autonomia Erkidegoan, gure lurraldearen konfigurazio geografiko berezia dela eta; batez ere Kantauriar erlaitzean, bertan lurzoru ondasun urria baita.

1990-2002 aldiko hedapen ekonomiko handian zehar, espazioaren urritasuna gorabehera, EAEko industria-lurzoru urbanizatuaren parkeak azaleraren hazkunde-prozesu ikusgarria izan du, 2.155 ha-tan zenbatetsitakoa, hau da, urbanizatu eta okupatutako urteko 180 hektareakoa.

Hazkunde orokor hori, orain artean, oso orekatuta banatu da lurralde osoan (787 ha Araban, 758 ha Bizkaian eta 610 ha Gipuzkoan). Hala ere, etorkizun hurbilean eskuragarri izango den lurzoruaren eskaintza, batez ere aurre egin beharreko kostuei dagokienez, nabarmen handiagoa da Arabako Lautadan.

Izan ere, kostu hauek askoz ere handiagoak dira Kantauriar erlaitzean, bertan lurzoru gordina oso urria denez gero oso prezio handia du, aprobetxamenduaren maila txikiagoa da eta urbanizazio-kostuek eragin handiagoa dute, zailtasun topografiko handiagoen ondorioz.

Problematika honek lurralde-politikari buruzko eduki handia duen aukera sortzen du, ekonomiaren ikuspegi hutsetik ezarpen berriak Arabako Lautadan bideratzeko komenigarritasuna planteatu daiteke, bertan baldintza hobek eta industria-garapen berriak errentagarri egiteko erraztasun objektiboak eta ekonomikoak baitaude.

Jakina denez, planteamendu hauen beste aldean gizarte, politika, ekonomia eta lurraldearen arloko beste alderdi batzuk ere badaude eta alderdi hauek lurraldeen arteko oreka handiagoko politikak bultzatzeko komenigarritasuna dute oinarri.

- Jarduera ekonomikoetarako lurzoruen kokapena gero eta lotuagoa dago garraio eta komunikabideen sare orokorren konfigurazioari.

Berriki, herriguneetatik kanpoko gainazaletan kokatutako poligonoak ugalduta dira, bide-sare orokorrean oinarrituta. Ugaltze horrekin batera, saltoki handiak, parke teknologikoak eta elkarri atxikitako pabilioi modularrak sortu dira.

Jarduera ekonomiko kualifikatuenak sakabanatzeko joera hori berriro aztertu beharra dago eta kanpoaldeko espazio-erreserba estrategiko urriak okupatzeko ekimenak plataforma logistikoak eta garraiorako zerbitzu-eremuak barne hartzea bideratu behar dira. Modu osagarrian, jarduera aurreratuenak lehentasunez hiri-eremu finkatuetara eramane behar dira berriro, horiek sistematikoki hiri-ingurura ateratu beharrean.

- Herriguneen banaketarekiko jarduera ekonomikoetarako lurzoruen banaketa orekatua funtsezko faktorea da Euskal Autonomia Erkidegoaren osotasunean lurralde-antolamendu integratua eta funtzionalki egokiena lortzeko.

Azken boladan, gero eta desoreka handiagoa antzematen da biztanleriaren pisuaren eta lan-eskaintzaren artean eskualde-egitura eta azpieskualde jakin batzuetan. Joera hori bideratzeko komenigarritasuna planteatzen da eta, horrenbestez, esku-hartze publikoko politika positibo gisa, pixkanaka-pixkanaka lurralde-oreka handiagoa lortzen lagunduko duten estrategiak eta neurriak proposatzen dira.

Alboko lurraldeetako lanpostu-horniduraren kalterako lurralde jakin batzuetan enplegua gero eta gehiago kontzentratzeko joera berri horren adierazgarri gisa, hauek dira soberakin-eskualde nagusiak: Txorierrri (4,46) eta Arratia (1,76) Bizkaian; eta Arabako Haranak (3,02), Gorbeia Inguruak (2,93) eta Arabako Errioxa (1,89) Araban. Aldiz, enplegu-eskasiagatik hauek dira eskualde adierazgarrienak: Enkartzioak (0,48), Leioa-Plentzia iraganbidea (0,56), Itsasadarra eta Ezkerraldea (0,67) eta Urdaibai (0,73) Bizkaian; eta Arabako Mendialdea (0,51) Araban. Gipuzkoan, ordea, biztanleriaren eta enpleguaren arteko lurralde-banaketa nabarmen homogeneoa dago, oro har, eskualdeen osotasunean.

- Gaur egun, administrazioeko erakunde guztiak -Eusko Jaurlaritzak, foru-aldundiak, eskualde-garapenerako agentziak, udalak, etab.- buru-belarri sartuta daude jarduera ekonomikoetarako lurzoruak sustatzeko eta enpresa-poligonoak garatzeko prozesuan, prozesu hori bultzatzeak duen gizarte- eta ekonomia-eragin handiaz jabetuta.

Ikuspegi horretatik, honako LAP hau koordinazio eta laguntzarako tresna egokia eta beharrezkoa da, datozen urteetan EAEn sustatu beharreko jarduera ekonomikoetarako lurzoru publikoak sortzeko jardun guztiak kokatu eta ezaugarritzeari buruzko erabakiak hartzeko prozesuetan lurralde-antolamenduaren osagaia barne hartzeko.

- Horrenbestez, lurzoruen prezioa, garrantzi handikoa den arren, ez da besterik gabe jarduera ekonomikoaren lurralde-antolamendua aztertzeko aldagai erabakitzailerik bakartzat hartu behar. Oso kontuan hartu behar dira zenbait alderdi, adibidez, eskualde-egituren eta azpieskualdeen arteko baliabideen lurralde-banaketa haztatua egitea, interes estrategiko orokorreko poligonoen

kokapena arrazionalizatzeko beharra eta industria-gainbeheran diren edo atzeratze demografikoan diren eremuetan neurri pizgarriak eta sustatzaileak hartzeko ezinbesteko betebeharrak politiko eta sozialak.

6.4. epigrafean Lurraldearen Arloko Planaren proposamen nagusiak aditzera eman ondoren, berriro aztertzen da lurzoria eskuratzearen gai korapilotsua, adierazten diren proposamenak oso beharrezkoak eta zuzenak izan arren, berauek benetan gauzatzea gutziz baldintza dezakeen alderdia baita.

**BIGARREN SEKTOREKO AUTOENPLEGUAREN INDIZEAK**  
**EAE 2000**

<b>ESKUALDE-EGITURA/AZPIESKUALDEA</b>	<b>ENPLEGU-KOP. BIZTANLERIA LANDUNA</b>
<b>ARABA ERDIALDEA</b>	<b>1,11</b>
ARABAKO LAUTADA	0,96
GASTEIZKO AZPIESKUALDEA	1,05
GORBEIA INGURUAK	2,93
ARABAKO HARANAK	3,02
ARABAKO MENDIALDEA	0,51
<b>AIARA</b>	<b>1,00</b>
<b>ARABAKO ERRIOXA</b>	<b>1,89</b>
<b>ARABA GUZTIRA</b>	<b>1,12</b>
<b>ARRATIA</b>	<b>1,76</b>
<b>BILBO METROPOLITARRA</b>	<b>0,96</b>
KANPOKO PORTUA	-
ITSASADARRA ETA EZKERRALDEA	0,67
BILBO	1,12
LEIOA-PLENTZIA IRAGANBIDEA	0,56
TXORIERRI	4,46
NERBIOI BEHEREA	1,08
<b>DURANGALDEA</b>	<b>1,19</b>
<b>ENKARTAZIOAK</b>	<b>0,48</b>
<b>BUSTURIALDEA-ARTIBAI</b>	<b>0,75</b>
URDAIBAI	0,73
LEA - ARTIBAI	0,77
<b>MUNGIA</b>	<b>1,38</b>
<b>BIZKAIA GUZTIRA</b>	<b>0,98</b>
<b>DEBAGOIENA</b>	<b>1,21</b>
<b>DEBABARRENA</b>	<b>0,85</b>
<b>DONOSTIA-BETERRI</b>	<b>0,92</b>
BIDASOA BEHEREA	0,86
OARSOALDEA	0,88
DONOSTIA	0,81
DONOSTIALDEKO H-M	1,18
<b>GOIERRI</b>	<b>0,95</b>
GOIERRI BEHEREA	1,09
UROLA GARAIA	0,74
<b>TOLOSERRI</b>	<b>0,98</b>
<b>UROLA-KOSTA</b>	<b>0,96</b>
<b>GIPUZKOA GUZTIRA</b>	<b>0,97</b>
<b>EAE GUZTIRA</b>	<b>0,99</b>

Iturria: Ikertalde. 2001

**JARDUERA EKONOMIKOETARAKO LURZORUAREN INBENTARIOA. EAE  
LURZORU OKUPATUA ETA LURZORU KALIFIKATUA GUZTIRA  
BILAKAERA 1990-2002**

ESKUALDE-EGITURA	LURZORU OKUPATUA (ha)		LURZORU KALIFIKATUA (ha)	
	1990*	2002**	1990*	2002**
ARABA ERDIALDEA	1.346	2.015	2.046	2.950
AIARA	277	325	407	443
ARABAKO ERRIOXA	99	169	195	306
<b>ARABA GUZTIRA</b>	<b>1.722</b>	<b>2.509</b>	<b>2.648</b>	<b>3.699</b>
ARRATIA	94	95	132	161
BILBO METROPOLITARRA	1.553	2.100	2.193	2.957
DURANGALDEA	342	450	744	718
ENKARTAZIOAK	49	85	114	162
BUSTURIALDEA-ARTIBAI	125	185	206	259
MUNGIA	93	99	142	152
<b>BIZKAIA GUZTIRA</b>	<b>2.256</b>	<b>3.014</b>	<b>3.531</b>	<b>4.409</b>
DEBAGOIENA	339	400	441	598
DEBABARRENA	190	277	316	379
DONOSTIA-BETERRI	659	966	1.160	1.394
GOIERRI	281	372	394	527
TOLOSERRI	180	182	240	299
UROLA-KOSTA	256	318	421	464
<b>GIPUZKOA GUZTIRA</b>	<b>1.905</b>	<b>2.515</b>	<b>2.972</b>	<b>3.661</b>
<b>EAE GUZTIRA</b>	<b>5.883</b>	<b>8.038</b>	<b>9.151</b>	<b>11.769</b>

\* Industria-urriak barne

\*\* Saltoki handiak barne

**BIZTANLERIAREN BILAKAERA. EAE. 1986-2000**

ESKUALDE-EGITURA	BIZTANLERIA	BIZTANLERIA	▲ %
	1986	2000	
ARABAKO ERDIALDEA	226.876	242.447	+6,9
AIARA	40.631	39.138	-3,7
ARABAKO ERRIOXA	9.513	9.697	+1,9
<b>ARABAKO GUZTIZKO PARTZIALA (*)</b>	<b>277.020</b>	<b>291.282</b>	<b>+5,1</b>
ARRATIA	12.206	11.518	-5,6
BILBO METROPOLITARRA	941.763	912.014	-3,1
DURANGALDEA	67.199	68.474	+1,9
ENKARTAZIOAK	30.411	29.623	-2,6
BUSTURIALDEA-ARTIBAI	73.356	70.785	-3,5
MUNGIA	16.751	19.668	+17,4
<b>BIZKAIKO GUZTIZKO PARTZIALA (*)</b>	<b>1.141.686</b>	<b>1.112.082</b>	<b>-2,6</b>
DEBAGOIENA	66.588	63.238	-5
DEBABARRENA	81.274	74.425	-8,4
DONOSTIA-BETERRI	384.965	384.089	-0,2
GOIERRI	69.057	65.624	-5
TOLOSERRI	43.917	42.960	-2,2
UROLA-KOSTA	61.016	64.584	+5,8
<b>GIPUZKOA KO GUZTIZKO PARTZIALA (*)</b>	<b>706.817</b>	<b>694.920</b>	<b>-1,7</b>
<b>EAE GUZTIRA</b>	<b>2.125.523</b>	<b>2.098.284</b>	<b>-1,3</b>

\* Lurralde Historikoei buruzko datuak ez dira zehatzak, udalerri batzuk bere Lurralde Historikoarekin bat ez datozen eskualde-egituretan sartzen baitira.

Iturria: Eustat eta Ikertalde. 2001

### **3.2.- ESKUALDE-EGITUREN ARABERA ZEHAZTUTAKO BALORAZIOA ETA DIAGNOSTIKOA**

Kapitulu honetan, EAEko eskualde-egitura bakoitzean jarduera ekonomikoetarako lurzoruaren problematika zehatzari buruz egindako balorazio-analisia eta gaikako diagnostikoa jasotzen dira.

Zenbait aldagai aztertzen dira, eta eskualde-egitura bakoitzean jarduera ekonomikoetarako lurzoruaren hirigintza-antolamenduak duen problematika bereziari dagokionez garrantzitsutzat hartu diren zenbait alderdiren erreferentzia laburtuak jasotzen dira testuan.

Kapitulu honen epigrafeetako bakoitzean eskualde-egituretako jarduera ekonomikoetarako lurzoruaren problematikaren diagnostikoa azaltzen da eta eskualde-egitura bakoitzaren ondoko funtsezko alderdi hauek ebaluatu dira: esparru fisikoa, hiri-egitura eta jarduera ekonomikoa, komunikabide-sarea, lurzoru-erreserbak eta lurzoru-eskariaren aurreikuspenak.

Azpiepigrafe bakoitzean laburpen-taula batzuk azaltzen dira eta bertan azpieskualde eta udalerrien arabeko ondoko informazioa aurkezten da zehatz-mehatz:

- 1. *taula* : – Jarduera ekonomikoetarako lurzoria, okupatua eta librea.
- 2 *taula*:
  - Biztanleria guztira.
  - Bigarren sektorearen lanean ari den biztanleria.
  - Jarduera ekonomikoetarako lurzoria behar duten produkzio-sektoreetan dauden enpleguak (bigarren sektorea, eraikuntza izan ezik, eta industria-lurzoria behar duen hirugarren sektorea).
- 3. *taula*:
  - Lurzoru libreen erreserben indizea, lurzoru kalifikatuaren azalerarekiko.
  - Bigarren sektorean lan egiten duen biztanleriak azpieskualdean edo udalerrian bertan dagoen bigarren sektoreko enplegua autoestaltzearen maila.  
Bigarren sektoreko enplegu bakoitzak hartzen duen azaleraren batezbestekoaren, ha-tan, adierazlea.

### 3.2.1.- ARABA ERDIALDEKO ESKUALDE-EGITURA

#### a) **Esparru fisikoa**

Gasteizko hirigunearen inguruan biltzen den lurralde-esparrua. Ondoko mugak ditu: Iparraldean, Kantauriar erlaitzeko isurialdeen banalerroa, Bizkaiko eta Gipuzkoako lurraldeak; Ekialdean, Nafarroa; Mendebaldean, Aiarako eskualde-egitura eta Burgosko probintzia; eta Hegoaldean Ebro ibaia eta Arabako Errioxa. Bere barruan Burgos probintziako parte den Trebiñoko konderriko lurraldea barne hartzen da.

2.254 km<sup>2</sup>-ko azalera du eta Euskal Autonomia Erkidegoaren lurraldearen %31,7 hartzen du.

Ondoko azpieskualdeak ditu:

- Arabako Lautada

Zadorra eta Burunda ibaien goi-ibilbideei dagokien haran zabala. Ekialde-Mendebalde norabidean zabaltzen da eta ondoko mugak ditu: Iparraldean Elgea eta Urkila mendilerroak eta Hegoaldean Iturrietako mendiak eta Entziako mendilerroa. Topografia leuneko eremu lau zabalak ditu +550 eta +600 metroko altuera-koten artean.

397 km<sup>2</sup>-ko azalera du eta Euskal Autonomia Erkidegoaren lurraldearen %5,6 hartzen du.

- Gasteizko azpieskualdea

+500 eta + 550 altuera-koten artean kokatzen den lautada zabala, Zadorra ibaiak eta bere ibaiadarrek drainatua. Mendebaldean Badaiaiko mendilerroak eta Hegoaldean Gasteizko mendiek mugatzen dute.

432 km<sup>2</sup>-ko azalera du eta Euskal Autonomia Erkidegoaren lurraldearen %6,1 hartzen du.

- Gorbeia Inguruak

Gorbeia mendigunearen hegoaldeko mazelak. Baia, Zaia eta Sta. Engrazia ibaien goi-ibilbideak. +550 eta 630 metroko altuera-koten artean topografia leuna du. Bertan kokatzen dira meseta eta Kantauriar erlaitza lotzen duten Altube, Barazar eta Urkiolako mendateak.

302 km<sup>2</sup>-ko azalera du eta Euskal Autonomia Erkidegoaren lurraldearen %4,2 hartzen du.

- Arabako Haranak

Ebro ibaiaren ezkerrekoa eta bere ibaiadar diren Zadorra, Baia eta Omecillo ibaien behe-ibilbidea. Ibaien ibilbidearen inguruan, +450 eta +500 altuera-koten artean, ibarreko eremu lau zabalak ditu.

643 km<sup>2</sup>-ko azalera du eta Euskal Autonomia Erkidegoaren lurraldearen %9,1 hartzen du.

- Arabako Mendialdea

Ega ibaiaren goi-ibilbideari dagokion eremu menditsua. Santa Kurutze Kanpezuren inguruan (+578) zenbait haran sortzen dira. Iparraldean Iturrietako mendiek, Mendebaldean Izkizko mendiek eta Hegoaldean Kantabriako mendilerroak eta Kodesko mendilerroak mugatzen dute.

480 km<sup>2</sup>-ko azalera du eta Euskal Autonomia Erkidegoaren lurraldearen %6,7 hartzen du.

## **b) Hiri-egitura eta jarduera ekonomikoa**

Arabako Erdialdeko eskualde-egiturak 241.000 biztanle inguru ditu, hau da, Euskal Autonomia Erkidego osoko biztanleriaren %11,5.

Gasteizko hirigunearen inguruan biltzen da eskualde-egitura. Gasteizen eskualde-egituraren biztanleriaren %90 metatzen da. Metatze-fenomeno hau berria da eta lurraldearen gainerakoan biztanleria galtzea eragin du.

- Arabako Lautada

Hirigune nagusia Agurain da eta Agurainek eskualdearen buruaren funtzioak betetzen dituen arren, zerbitzu sektorean Gasteizetik oso mendetasuna handia du.

Berriki industrializatu den eremua da, Araian (Asparrena-Donemiliaga), Agurain eta Dulantzín daude poligonoak. Bere biztanleriaren zati batek oraindik ere nekazaritza eta abeltzaintzaren arloko lanetan dihardu.

Gaur egun dauden enpleguak kontuan izanik, honela banatzen da jarduera ekonomikoa: %16 lehen sektorean, %50 bigarren sektorean eta %34 hirugarren sektorean.

Eskualde honetan industria-enpleguen kopurua eta bigarren sektorean lan egiten duten langileen kopurua orekatuta dagoela antzematen da.

Gasteizetik mendetasunaren ondorioz hirugarren sektoreak oso garapen txikia duela nabarmentzen da.

- Gasteizko azpieskualdea

Gasteizko hiriak eta bere kanpoaldeko lurraldeek osatzen dute. Langraiz-Okako hirigunea izan ezik, lurraldearen gainerakoa landa-izaerako elizate txikiak dira.

Gasteizko hiria berriki industrializatu da eta azken hogeita bost urteetan hazkunde demografiko eta ekonomiko izugarria izan du.



Gasteizek izan duen hazkundera Gipuzkoa eta Bizkaitik Gasteiz inguruetara lekualdatutako industria ugarietan du jatorria. Lurzoru-ezagatik hasiera batean zuten kokapenean hazteko ezintasunak, lurzoru urbanizatuko eskaintzen politikak eta Arabako Foru Aldundiak eta Gasteizko Udalak emandako laguntzek bultzatuta Kantauriar erlaitzeko enpresa asko Gasteiza lekualdatu ziren.

Ondokoak dira Gasteizen dauden poligono nagusiak, guztiak ia gainezka daude: Betoño, Gamarra, Arriaga, Olarizu eta Ali-Gobeo. Berriagoak dira Jundiz eta Los Llanos poligonoak, azken hau garatzen ari da gaur egun, eta Miñaako Teknologia Elkartegia.

Jundizko poligonoa eta Gasteizko garraio-zentroa garrantzi logistiko eta estrategiko handiko gune bilakatu dira komunikabide-sare orokorraren barruan.

Gaur egungo garapenak hirugarren sektoreko eta merkataritzako azalera handiak sortzeko eragiketara zuzentzen dira nagusiki. Duela gutxi bi merkataritzagune handi garatu dira Etxabarri-Dibinan eta Sidenor-en. Hirugarren ekimen bat, Langraiz-Okan, azterlan-fasean dago.

Gaur egun dauden enpleguak kontuan izanik honela banatzen da Gasteizko azpieskualdeko jardura ekonomikoa: %1 lehen sektorean, %39 bigarren sektorean eta %60 hirugarren sektorean.

Eskualdeak osotasunean 2.000 enpleguko soberakina du bigarren sektoreko enplegetan.

Era berean, soberakin handia du hirugarren sektorean Eusko Jaurlaritza eta bere administrazio-aparatua Gasteizen kokatzearen ondorioz.

- Gorbeia Inguruak

Industria-jardura tradizional handirik ez duen eskualde honen hirigune nagusiak Legutio, Otxandio, Mungia (Zuia) eta Izarra (Urkabustaiz) dira.

Legution industria ugari finkatu da Arabako Foru Aldundiak Gojain poligonoa bultzatzearen ondorioz.

Gaur egun dauden enpleguak kontuan izanik, honela banatzen da jardura ekonomikoa: %8 lehen sektorea, %58 bigarren sektorea eta % 34 hirugarren sektorea.

Eskualdetik kanpo bizi diren langileei dagozkien 2.000 industria-enpleguen soberakina dago.

Nabarmendu behar da hirugarren sektorea oso gutxi garatu dela Gasteizekiko mendetasunaren ondorioz.

- Arabako Haranak

Nagusiki landa-eskualde bat da eta ez dago hirigune handirik.

Eskualdearen iparraldean ez dago industria-garapenik eta bertan landa-jarduera baino ez da garatzen.

Eskualdearen hegoaldean nekazaritza-balio handiko ibarrak daude Ebro ibaiaren ezker aldean. Eskualde honek Miranda de Ebroko hirigunearekin egiten du muga eta hiri hau Burgosko probintziakoa bada ere, tokiko zerbitzugunea da, Gasteizetikiko alternatiba bat da.

Eremu honetan komunikabide-lotune handia sortu denez gero eta hurbil Miranda de Ebroko hirigunea izanik, industria bertan finkatzeko prozesua hasi da. Arabako Foru Aldundiak Lantaron poligonoa bultzatu du eta bertan jada enpresa batzuk finkatu dira. Gainera denbora luze batean bertan papergintzako enpresa handi bat finkatzeko aukera aztertu da.

Gaur egun dauden enpleguak kontuan izanik, honela banatzen da jarduera ekonomikoa: %46 lehen sektorea, %27 bigarren sektorea eta %27 hirugarren sektorea.

1.000 industria-enpleguen soberakina dago, Miranda de Ebro eta Gasteizen bizi diren langileei dagozkie.

Era berean, esanguratsua gertatzen da hirugarren sektoreak izan duen garapen txikia, Gasteiz eta Miranda de Ebro hiriguneetikiko mendetasunaren ondorioz.

Miranda de Ebron SEPESek Bayas poligonoa sustatu du eta penintsula osoko komunikabide nagusiei dagokienez eremu estrategikoa denez gero, industria askok erabaki du bertan finkatzea.

- Arabako Mendialdea

Eskualde menditsua da, batik bat landa-jarduera nagusi da eta oso biztanleria gutxi du. Hirigune nagusia eta eskualdearen buru Santa Kurutze Kanpezu da.

Gaur egun dauden enpleguak kontuan izanik, honela banatzen da jarduera ekonomikoa: %41 lehen sektorea, %32 bigarren sektorea eta %27 hirugarren sektorea.

Bertan dauden industria txikiak Kanpezun eta Maeztun daude, gainerako udalerrietan ez dago enpresa esanguratsurik.

Eskualde honetan gero eta nabarmenagoa den beherakada demografikoagatik kezka antzematen da. Hortaz, eremu honen landa-ezaugarriekin bateragarria den jarduera ekonomikoa edo enpresa-jardueraren bat sortzeko komenigarritasuna planteatzen da.

### **c) Komunikabide-sarea**

Araba Erdialdeko eskualde-egituran industria-erloko komunikabide-sarearen elementu nagusi hauen inguruan garatu da: N-1 errepidea, Irun-Madril trenbidea eta Kantauriar erlaitzerako komunikabide-ardatzen hasiera (A-68 autobidea, N-622 autobidea).

-Altubeko mendatea-, N-240 errepidea -Barazarko mendatea-, A-623 errepidea - Urkiolakoa mendatea- eta A-627 errepidea -Arlabango mendatea-).

Miranda de Ebroren iparraldean kokatzen den eremua errepidean zeharreko komunikabideen lehen mailako gune bihurtzearekin eta A-1 eta A-68 errepideen eta N-1 eta N-124 errepideen lotunearekin eremu honetan jardura logistikoa eta garraioaren sektoreko zerbitzukoak sustatzeko itxaropen argiak daude.

N-1 errepidea osotasunean bitan banatzea -komunikabide nagusiekin zuzenean lotzen den Gasteizko ingurabide bilakatuz- Forondako aireportua eta etorkizuneko Jundizko garraio-zentroa oso azpiegitura onuragarriak dira Gasteiz industria-hedapen berrituko gune gisa finkatzeko.

Aurreikusten den Euskal Herriko etorkizuneko trenbide-sarearen Y soluzioa eraikitakoan sendotu egingo da Gasteizek komunikabideen eta garraioaren eskema nagusian duen zeregina eta, horrela, trenbide-jardueraren zati handi bat Miranda de Ebrotik Jundizko etorkizuneko garraio-zentrorantz lekualda daiteke.

Era berean, Eibar-Gasteiz autobidea eraikitzerakoan are gehiago sendotuko da Gasteizen kokapen estrategikoa.

Eskualde-egitura zeharkatzen duen gasbidea ere azpiegitura-elementu garrantzitsua da. Gasbideak Miranda de Ebrotik, N-1 errepidearen trazadurari jarraitu eta Gasteiz inguratuta, Legutioraino jotzen du, hemendik Deba ibaiaren haranari jarraituta Kantauriar erlaitzera sartzeko.

Araba Erdialdeko eskualde-egituraren industria-hazkundera Gasteizko udalerrian bertan metatu da nagusiki.

Agian komeni da jardura ekonomikoaren ezarpen berriak kanpoalderantz (Legutio, Langraiz-Oka, Erribera Beitia, Agurain eta abarrentz) bideratzea eta Jundiz eta Miñaoko poligono berrien zalantzarik gabeko harrera-ahalmenak bultzatzen duen gehiegizko lurralde-metaketa saihestea.

Ildo honetan, nabarmendu behar da industria-poligonoetara sartzeko bide-sarearen eta abiadura handiko etorkizuneko sareak sustatuko duen trenbidearen arteko loturarako modalitate arteko plataformek etorkizunean izango duten garrantzia.

Bestalde, komunikabideen oinarriko ardatzei dagokienez duten kokapen orokorraren aldetik, aditzera eman behar da Aguraingo eta Legutioko guneek oso kokapen interesgarria dutela Nafarroarekiko eta Kantauriar erlaitzarekiko lotuneetan.

Arabako Erdialdeko eskualde-egituraren lurraldearen osotasunean Arabako Mendialdeko eskualdea soilik geratzen da komunikabide-ardatz nagusiaz baztertuta, bere kokapen geografikoak hala behartuta.

#### **d) Lurzoru-erreserbak**

Gaineratzen den taulan islatzen denaren arabera hiri-plangintzan aintzat hartzen diren jardura ekonomikoetarako kalifikazioa duten lurzoruek 3.689 ha hartzen dute Arabako Erdialdeko eskualde-egiturari. Azalera honetatik 2.164 ha okupatutzat

hartzen da eta 1.525 ha libretzat hartzen da. Erribera Beitian (Arasur) duela gutxi birkalifikatutako azalera ez da konputatzen.

Haatik, libretzat hartutako 935 hektarea hauek guztiak une honetan berehala okupatzeko moduan ez dauden arren, azalera honen zati handiena epe laburrean okupatzeko gai den lurzoru planifikatuko eskaintza errealizat har daiteke.

Bestalde, adierazi behar da lurzoru kalifikatuaren eskaintzaren zati handi bat, osoa ez bada, herri-administrazioen (Arabako Foru Aldundiaren, Gasteizko Udalaren eta abar) sustapenei dagozkiela, bai zuzenean, bai ekimen pribatuarekin egindako hitzarmenen bidez.

Ondoren gaur egun dauden erreserba nagusiak laburbilduko dira.

- Araiako poligonoa. Asparrena eta Donemiliaga. Asparrena eta Donemiliaga artean kokatzen den 47 ha-ko lurzoru librea hartzen da aintzat.
- Agurain. Lurzoru kalifikatu erabilgarriko 105 ha.
- Legutiano. Gojain eta Lladieko poligonoak. 48 ha-ko azalera librea ebaluatu da.
- Gasteiz. Jundiz poligonoa. Azalera libre eskuragarriaren erreserbak 180 ha-koak direla zenbatetsi da, programatutako zabalkuntza berriak zenbatuta.
- Gasteiz. Miñao poligonoa. Arabako Teknologi Elkartegia. Konprometitu gabeko 300 ha-ko azalera zenbatetsi da.
- Gasteiz. Aireportuaren inguruak. 435 ha.
- Iruña-Oka. Subillabide poligonoa. 75 ha-ko azalera libre eskuragarria ebaluatu da.
- Lantarón. 25 ha eskuragarri. Gaur egun, Rivabellosa inguruan garapen berrietarako etorkizuneko lurzoru-eskaintza berriro kokatzen ari dira. Hala eta guztiz, Lantarón ingurua betiere eskuragarri izango da, ezarpen handi bereziren bat barne hartu ahal izateko.

Gainera, duela gutxi 200 ha birkalifikatu dira Erribera Beitian (Arasur).

Nolanahi ere, lurzoruaren eskaintza berriaren sorrera kokapen periferikoak finkatzera bideratu behar da; honela, Gasteizekiko deszentralizazioa bultzatzeaz gain, lurzoru-eskaintzaren loturarik gabeko sakabanaketa saihestu nahi da. Ildo honetan, Arabako Lautadaren eskaintza batez ere Agurain eta Aiaran bildu nahi da, Gorbeia Inguruak eskualdeko eskaintza Legutian (ez da aintzat hartu Altuben poligono handi bat sortzearen alternatiba) eta Arabako Haranak eskualdeko eskaintza Rivabellosan. Lantarongo poligonoaren tamaina berraztertuko da.

#### **e) Lurzoru-eskariaren aurreikuspenak**

1990-2002 aldian Arabako Erdialdeko eskualde-egituran okupatutako industria-lurzoruaren gehikuntza 690 ha ingurukoa izan da: 90 ha Arabako Lautadan, 85 ha Gorbeia Inguruak eskualdean, 410 ha Gasteizko eremuan, 100 ha Arabako Haranak eskualdean eta 6 ha Arabako Mendialdean. Lurzoruaren okupazio-eritmoa 55/60 ha/urtekoa izan da.

16 urteko horizontean jarduera ekonomikoetarako lurzoruaren etorkizuneko eskari hipotetikoa estaltzeko, eskualde-egitura honetan, hipotesi baikorrenean, hazkunde-erritmo iraunkor hori bereganatzeko gai izango den lurzoru-eskaintza aurreikustea komeni da. Erreserba hauek modu neurritsuan banatuko beharko dira eskualde-egituraren lurraldearen osotasunean, deszentralizazio-joerak bultzatuz eta dinamismo endogeno txikiagoa duten eremuak pizteko dinamikak sustatuz, Lurraldearen Arloko Planean xede horretarako xedatzen diren zehaztapenen arabera.

**ARABA ERDIALDEKO EE**

**JARDUERA EKONOMIKOETARAKO LURZORUA  
OKUPATUA, LIBREA ETA GUZTIZKOA AZPIESKUALDE ETA UDALERRIEN ARABERA 2003AN\***

AZPIESKUALDEA / UDALERRIA	JARDUERA EKONOMIKOETARAKO LURZORUA (Azalera ha-tan)		
	OKUPATUA	LIBREA	GUZTIRA
<b>ARABAKO LAUTADA</b>			
ALEGRIA-DULANTZI	54,67	13,50	68,17
ASPARRENA	43,15	40,49	83,64
BARRUNDIA	-	-	-
ELBURGO-BURGELU	7,73	5,16	12,89
IRURAIZ-GAUNA	-	-	-
AGURAIN	79,97	106,65	186,62
SAN MILLAN	68,65	7,00	75,65
ZALDUONDO			
GUZTIZKO PARTZIALA			
<b>ARABAKO LAUTADA</b>	<b>254,17</b>	<b>172,80</b>	<b>426,97</b>
<b>GASTEIZKO AZPIESKUALDEA</b>			
IRUÑA OKA	116,64	151,55	268,19
GASTEIZ	1.296,98	971,42	2.268,40
ZIGOITIA	35,19	13,39	48,58
GUZTIZKO PARTZIALA			
<b>GASTEIZKO AZPIESKUALDEA</b>	<b>1.448,81</b>	<b>1.136,36</b>	<b>2.585,17</b>
<b>GORBEIA INGURUAK</b>			
ARRAZUA-UBARRUNDIA	2,24	13,50	15,74
LEGUTIO	219,69	48,24	267,93
OTXANDIO	12,58	3,30	15,88
UBIDE	-	-	-
URKABUSTAIZ	9,50	3,60	13,10
ZUIA	11,08	2,50	13,58
GUZTIZKO PARTZIALA			
<b>GORBEIA INGURUAK</b>	<b>255,09</b>	<b>71,14</b>	<b>326,23</b>
<b>ARABAKO HARANAK</b>			
ARAMIÑON	9,75	9,83	19,58
BARANTURI	29,67	-	29,67
KUARTANGO	-	-	-
LANTARON	107,66	23,39	131,05
ERRIBERA GOITIA	0,94	17,96	18,90
ERRIBERA BEITIA**	31,34	33,51	64,85
GESALZA	-	-	-
GAUBEA	2,20	9,47	11,67
ZANBRANA	3,49	3,50	6,99
GUZTIZKO PARTZIALA			
<b>ARABAKO HARANAK</b>	<b>185,05</b>	<b>97,66</b>	<b>282,71</b>
<b>ARABAKO MENDIALDEA</b>			
ARRAIA-MAEZTU	5,91	7,00	12,91
BERNEDO	3,60	3,90	7,50
KANPEZU	11,00	16,60	27,60
LAGRAN	-	-	-
URIZAHARRA	-	19,32	19,32
HARANA	0,16	0,80	0,96
GUZTIZKO PARTZIALA			
<b>ARABAKO MENDIALDEA</b>	<b>20,67</b>	<b>47,62</b>	<b>68,29</b>
<b>GUZTIRA</b>			
<b>ARABA ERDIALDEKO EE</b>	<b>2.163,79</b>	<b>1.525,58</b>	<b>3.689,37</b>

\* 03-12-31n eguneratuta. Udalplan 2004.

\*\* Ez dago jasota Erribera Beitiazen azken eguneratzea.



**ARABA ERDIALDEKO EE**

**BIZTANLERIA GUZTIRA, BIGARREN SEKTOREAN LAN EGITEN DUEN BIZTANLERIA  
ETA JARDUERA EKONOMIKOETARAKO LURZORUA BEHAR DUTEN ENPLEGUEN KOPURUA  
AZPIESKUALDE ETA UDALERRIEN ARABERA 2000N**

<b>AZPIESKUALDEA / UDALERRIA</b>	<b>BIZTANLERIA GUZTIRA (Biztanle-kop.)</b>	<b>BIZTANLERIA LANEAN BIGARREN SEKTOREAN (Lan eg. kop.)</b>	<b>ENPLEGU-KOP. JARD. EKON. LURZORUAN (Enplegu-kop.)</b>
<b>ARABAKO LAUTADA</b>			
ALEGRIA-DULANTZI	1.259	177	198
ASPARRENA	1.544	318	260
BARRUNDIA	586	67	-
ELBURGO-BURGELU	231	14	67
IRURAZ-GAUNA	42	33	-
AGURAIN	3.876	832	921
SAN MILLAN	700	95	54
ZALDUONDO	132	22	-
GUZTIZKO PARTZIALA			
<b>ARABAKO LAUTADA</b>	<b>8.370</b>	<b>1.558</b>	<b>1.500</b>
<b>GASTEIZKO AZPIESKUALDEA</b>			
IRUÑA OKA	1.683	311	790
GASTEIZ	218.210	37.997	39.628
ZIGOITIA	1.132	165	82
GUZTIZKO PARTZIALA			
<b>GASTEIZKO AZPIESKUALDEA</b>	<b>221.025</b>	<b>38.473</b>	<b>40.500</b>
<b>GORBEIA INGURUAK</b>			
ARRAZUA-UBARRUNDIA	761	100	108
LEGUTIO	1.324	291	2.170
OTXANDIO	1.018	268	281
UBIDE	163	36	-
URKABUSTAIZ	821	121	327
ZUIA	1.578	218	139
GUZTIZKO PARTZIALA			
<b>GORBEIA INGURUAK</b>	<b>5.665</b>	<b>1.034</b>	<b>3.025</b>
<b>ARABAKO HARANAK</b>			
ARAMIÑON	145	19	184
BERANTURI	406	38	283
KUARTANGO	362	33	8
LANTARON	901	121	613
ERRIBERA GOITIA	518	63	37
ERRIBERA BEITIA	499	62	265
GESALTZA	185	23	1
GAUBEA	896	76	16
ZANBRANA	366	54	68
GUZTIZKO PARTZIALA			
<b>ARABAKO HARANAK</b>	<b>4.278</b>	<b>489</b>	<b>1.475</b>
<b>ARABAKO MENDIALDEA</b>			
ARRAIA-MAEZTU	692	146	74
BERNEDO	548	83	48
KANPEZU	1.073	180	149
LAGRAN	195	16	1
URIZAHARRA	243	44	1
HARANA	358	68	2
GUZTIZKO PARTZIALA			
<b>ARABAKO MENDIALDEA</b>	<b>3.109</b>	<b>537</b>	<b>275</b>
<b>GUZTIRA ARABA ERDIALDEKO EE</b>	<b>242.447</b>	<b>42.091</b>	<b>46.775</b>



**ARABA ERDIALDEKO EE**

**LURZORU KALIFIKATUAREN ERRESERBA-INDIZEA, BIGARREN SEKTOREKO AUTOENPLEGUARENA  
ETA BIGARREN SEKTOREKO ENPLEGU-DENTSIKAZIOARENA AZPIESKUALDE ETA UDALERRIEN ARABERA 2003AN**

AZPIESKUALDEA / UDALERRIA	LURZORU LIBREAREN ERRESERBA-INDIZEA	BIGARREN SEKTOREKO AUTOENPLEGU-INDIZEA	BIGARREN SEKTOREKO ENPLEGUAREN DENTSIKAZIO-INDIZEA
	AZAL. LURZORU KALIF. LIBREA AZAL. LURZORU KALIF. GUZTIRA	BIG. SEK. ENPLEGUA BIZ. OKUP. BIG. SEK.	BIG. SEK. ENPLEGUA LURZORU OKUP. J. E. (enplegu/ha)
<b>ARABAKO LAUTADA</b>			
ALEGRIA-DULANTZI	0,20	1,12	3,99
ASPARRENA	0,48	0,82	6,03
BARRUNDIA	-	-	-
BURGELU	0,40	4,79	8,69
IRURAZ-GAUNA	-	-	-
AGURAIN	0,57	1,11	15,77
SAN MILLAN	0,09	0,57	0,79
ZALDUONDO	-	-	-
GUZTIZKO PARTZIALA			
<b>ARABAKO LAUTADA</b>	<b>0,40</b>	<b>0,96</b>	<b>5,90</b>
<b>GASTEIZKO AZPIESKUALDEA</b>			
IRUÑA OKA	0,57	2,54	6,77
GASTEIZ	0,43	1,04	30,55
ZIGOITIA	0,28	0,50	9,19
GUZTIZKO PARTZIALA			
<b>GASTEIZKO AZPIESKUALDEA</b>	<b>0,44</b>	<b>1,05</b>	<b>27,95</b>
<b>GORBEIA INGURUAK</b>			
ARRAZUA-UBARRUNDIA	0,86	1,08	48,21
LEGUTIO	0,18	7,46	9,88
OTXANDIO	0,21	1,05	22,33
UBIDE	-	-	-
URKABUSTAIZ	0,27	2,70	34,42
ZUIA	0,18	0,64	15,31
GUZTIZKO PARTZIALA			
<b>GORBEIA INGURUAK</b>	<b>0,22</b>	<b>2,93</b>	<b>11,86</b>
<b>ARABAKO HARANAK</b>			
ARAMIÑON	0,50	9,68	18,87
BERANTURI	-	7,45	9,54
KUARTANGO	-	0,24	-
LANTARON	0,18	5,07	5,69
ERRIBERA GOITIA	0,95	0,59	39,36
ERRIBERA BEITIA	0,52	4,27	9,19
GESALTZA	-	0,04	-
GAUBEA	0,81	0,21	7,37
ZANBRANA	0,50	1,26	19,48
GUZTIZKO PARTZIALA			
<b>ARABAKO HARANAK</b>	<b>0,35</b>	<b>3,02</b>	<b>7,97</b>
<b>ARABAKO MENDIALDEA</b>			
ARRAIA-MAEZTU	0,54	0,51	14,80
BERNEDO	0,52	0,58	13,33
KANPEZU	0,60	0,83	13,86
LAGRAN	-	0,06	-
URIZAHARRA	1,00	0,02	-
HARANA	0,83	0,03	12,50
GUZTIZKO PARTZIALA			
<b>ARABAKO MENDIALDEA</b>	<b>0,70</b>	<b>0,51</b>	<b>13,30</b>
<b>GUZTIRA</b>			
<b>ARABA ERDIALDEKO EE</b>	<b>0,41</b>	<b>1,11</b>	<b>21,62</b>

### 3.2.2.- AIARAKO ESKUALDE-EGITURA

#### a) Esparru fisikoa

Nerbioi ibaiaren goi-ibilbideari eta uretan behera Kadagoa ibaiaren haranean biltzen diren Artzeniega, San Migel eta Izalde ibaien goi-ibilbideko Arabako zatiei dagokien lurralde esparrua.

Topografia gorabeheratsua eta haran estuak dituen eremu menditsu honetan espazio zabal urri azaltzen da: Amurrio eta Urduña inguruetan -Nerbioi ibaiaren ibilbidean-, Orozkon -Altube ibaiaren ibilbidean-, Okondo eta Arespalditzan -Izoria ibaiaren ibilbidean- eta Artzeniegako haranean.

Eskualde-egituraren hegoaldeko muga Kantauriar erlaitzaren eta Arabako Lautadaren arteko ur-banalerroak osatzen du (Urduña eta Altube mendateak).

471,0 km<sup>2</sup>-ko azalera du eta Euskal Autonomia Erkidegoaren lurraldearen %6,6 hartzen du.

#### b) Hiri-egitura eta jarduera ekonomikoa.

Aiarako eskualde-egiturak 39.500 biztanle inguru ditu, hau da, Euskal Autonomia Erkidego osoko biztanleriaren %1,9. Hirigunerik nagusienak Laudio (19.900 biztanle) eta Amurrio (9.800 biztanle) dira.

Biztanle gehien dituzten hiriguneak -Laudio, Amurrio eta Urduña- Nerbioi ibaiaren goi-ibilbidean daude. Biztanleriaren gainerakoa alboetako haranetan kokatzen diren landa-izaerako herrixketan banatzen da.

Laudio industria-tradizio handia duen herria da; alabaina, eskualde-egituraren gainerakoan fenomeno berri samarra da industria-hazkundera, Amurrio eta Urduñako hainbat enpresa izan ezik.

Gaur egun dauden enpleguak kontuan izanik, honela banatzen da jarduera ekonomikoa: %4 lehen sektorea, %58 bigarren sektorea eta %38 hirugarren sektorea.

Bigarren sektoreko enpleguen kopuruaren eta eskualde-egituran bizi diren industria-langileen kopuruaren artean oreka dagoela antzematen da.

Hirugarren sektoreak azken hamar urteetan garapen esanguratsua izan du, %11ko gehikuntza izan baitu.

Industria-jarduera oinarritzko metalurgian, metal-erlaldatuetan eta beiraren industrian oinarritzen da.

Laudiok birmoldaketako esku-hartze handiak bizi izan ditu hirigintzaren eta industriaren arloetan eta birmoldaketa horiei esker bere industria-garapenerako oinarritzko azpiegituren baldintzak guztiz hobetu dira. Laudioko Industrialdearen eraikuntzak industria-ehuna berrantolatzea eta gaizki kokatuta zeuden enpresa txikiak lekualdatzea ahalbidetu du.

Amurrioko udalerriak espazio gehiago du eskura eta industria-hazkunde handia bizi du gaur egun.

Murgako poligonoa natur balio handiko haran zabal baten erdian kokatuta dago eta, bide-zirkuitu nagusietatik eta hiriguneetatik baztertuta dagoen arren, gainezka dago eta gainditzea komeni ez den mailara heldu da.

Ildo honetan auzitan jar daiteke Urduñako haranean industria-okupazio intentsiboa garatzeko aukera eta, horrela, natur kualifikazio handiko eremu batean industria-garapen handiak kokatzea.

Jarduera ekonomikoetarako garapen berrietan okupazio intentsiboaren eskema logikoari jarraituta, komeni da horiek Nerbioi ibaiaren haranaren ardatz nagusian, Laudiotik Amurrioraino, metatzea eta eskualde-egituraren lurraldearen gainerakoa okupazio-intentsitate txikiagoaz mantentzea.

### **c) Komunikabide-sarea**

Komunikabideen ardatz nagusia A-625 errepideak eta Bilbo-Miranda de Ebro trenbideak osatzen dute. A-68 autobidea tangenzialki lotzen da eskualde-egiturarekin. A-624 errepidea Ekialdea-Mendebaldea norabidean bideratzen den bigarren mailako zeharkako ardatza da.

Hiri-garapen eta industria-ezarpen nagusienak Nerbioi ibaiaren komunikabide-ardatzari jarraituta finkatu dira. Industria-trafikoak hiriguneak zeharka ditzan saihesteko beharrezkoa den esku-hartzerik nagusia Amurrioko saihebidetua eraikitzean datza.

Luxaondo eta Amurrio arteko haranaren tartean dauden industria-ezarpenen segida etenik dago, trenbideak sortzen duen oztopoak eraginda batik bat. Garrantzitsua izango litzateke gaur egun hutsik dauden espazioen industria-aprobetxamendua ahalbidetuko lukeen lurralde-esparru honen antolamendu osoa lortzea.

### **d) Lurzoru-erreserbak**

Gaineratzen den taulan islatzen denaren arabera jarduera ekonomikoetarako hirigintza-kalifikazioa duten lurzoruek 433 ha-ko azalera hartzen dute Aiarako eskualde-egituran. Guztizko honetatik 321 ha okupatuta daude eta 112 ha libretzat jotzen dira.

### **e) Lurzoru-eskariaren aurreikuspenak**

1990-2002 aldian eskualde-egitura honetan okupatutako industria-lurzoruaren gehikuntza 50 ha ingurukoa izan da. Horrek urteko 4 ha-ko hazkunde-eritmoa dakar.

16 urteko horizontean jarduera ekonomikoetarako lurzuaren etorkizuneko eskari hipotetikoa estaltzeko, eskualde-egitura honetan, hipotesi baikorrenean, hazkunde-eritmo iraunkor hori bereganatzeko gai izango den lurzoru-eskaintza aurreikustea komeni da.

**AIARAKO ESKUALDE-EGITURA**

**JARDUERA EKONOMIKOETARAKO LURZORUA**  
**OKUPATUA, LIBREA ETA GUZTIZKOA AZPIESKUALDE ETA UDALERRIEN ARABERA 2003AN\***

AZPIESKUALDEA / UDALERRIA	JARDUERA EKONOMIKOETARAKO LURZORUA (Azalera ha-tan)		
	OKUPATUA	LIBREA	GUZTIRA
AMURRIO	126,74	35,95	162,69
ARAKALDO	3,51	3,46	6,97
ARTZINIEGA	12,68	11,00	23,68
AIARA	39,54	14,50	54,04
LAUDIO	105,25	19,22	124,47
OKONDO	9,97	0,55	10,52
URDUÑA	12,80	19,93	32,73
OROZKO	10,25	7,94	18,19
<b>GUZTIRA</b>			
<b>AIARAKO EE</b>	<b>320,74</b>	<b>112,55</b>	<b>433,29</b>

\* 2003-12-31n eguneratuta. Udalplan 2004

**BIZTANLERIA GUZTIRA, BIGARREN SEKTOREAN LAN EGITEN DUEN BIZTANLERIA**  
**ETA JARDUERA EKONOMIKOETARAKO LURZORUA BEHAR DUTEN ENPLEGUEN KOPURUA**  
**AZPIESKUALDE ETA UDALERRIEN ARABERA 2000N**

AZPIESKUALDEA / UDALERRIA	BIZTANLERIA	BIZTANLERIA	ENPLEGU-KOP.
	GUZTIRA (Biztanle-kop.)	LANEAN BIGARREN SEKTOREAN (Lan eg. kop.)	JARD. EKON. LURZORUAN (Enplegu-kop.)
AMURRIO	9.420	2.291	2.544
ARAKALDO	92	25	129
ARTZINIEGA	1.317	244	312
AIARA	2.001	369	700
LAUDIO	19.694	4.338	3.560
OKONDO	810	154	144
URDUÑA	3.882	870	695
OROZKO	1.922	343	591
<b>GUZTIRA</b>			
<b>AIARAKO EE</b>	<b>39.138</b>	<b>8.634</b>	<b>8.675</b>

**AIARAKO ESKUALDE-EGITURA**

**LURZORU KALIFIKATUAREN ERRESERBA-INDIZEA, BIGARREN SEKTOREKO AUTOENPLEGUARENA  
ETA BIGARREN SEKTOREKO ENPLEGU-DENTSIFIKAZIOARENA AZPIESKUALDE ETA UDALERRIEN ARABERA 2003AN**

AZPIESKUALDEA / UDALERRIA	LURZORU LIBREAREN ERRESERBA-INDIZEA	BIGARREN SEKTOREKO AUTOENPLEGU-INDIZEA	BIGARREN SEKTOREKO ENPLEGUAREN DENTSIFIKAZIO-INDIZEA
	AZAL. LURZORU KALIF. LIBREA AZAL. LURZORU KALIF. GUZTIRA	BIG. SEK. ENPLEGUA BIZ. OKUP. BIG. SEK.	BIG. SEK. ENPLEGUA LURZORU OKUP. J. E. (enplegu/ha)
AMURRIO	0,22	1,11	20,07
ARAKALDO	-	5,16	18,22
ARTZINIEGA	0,46	1,28	24,61
AIARA	0,27	1,90	17,70
LAUDIO	0,15	0,82	34,05
OKONDO	0,05	0,94	27,64
URDUÑA	0,61	0,80	58,90
OROZKO	0,44	1,72	41,47
<b>GUZTIRA AIARAKO EE</b>	<b>0,26</b>	<b>1,00</b>	<b>27,05</b>

### 3.2.3.- ARABAKO ERRIOXAKO ESKUALDE-EGITURA

#### a) Esparru fisikoa

Ebro ibaiaren ezker aldean dagoen lurralde-esparrua. Mendebaldetik Ekialdera luzatzen da hegoaldeetik muga egiten duen Ebro ibaiaren eta iparraldetik muga egiten duen Kantabriako mendilerroaren artean.

1.200 metrotik Ebroko urbazterretako 400 metrora pikoan jaisten den oso eremu topografiko aldapatsua da eta mazela hauek Kantabriako mendilerrotik jaisten diren uhar sakonek urratzen dituzte.

Ebro ibaiaren tarte honetako ezker aldean jalkin-ibarreko eremu lauak oso urriak dira.

316,3 km<sup>2</sup>-ko azalera du eta Euskal Autonomia Erkidegoaren lurraldearen %4,4 hartzen du.

#### b) Hiri-egitura eta jarduera ekonomikoa

Arabako Errioxak 9.700 biztanle inguru ditu, hau da, Euskal Autonomia Erkidego osoaren % 0,46. Hirigune nagusiak Oion, Biasteri, Bastida, Eltziego eta La Puebla de Labarka dira.

Upategi-instalazioez gain nolabaiteko industria-garapena duten eremu bakarrak Oion eta Biasteri-Casablanca dira, biak Logroñotik oso hurbil.

Eskualdearen buruaren titulartasuna Biasterik badu ere, praktikan eskualdea Logroño eta Haroko hiriguneeen inguruan bideratzen da.

Gaur egun dauden enpleguak kontuan izanik, honela banatzen da Arabako Errioxako eskualde-egituraren jarduera ekonomikoa: %34 lehen sektorea, %30 bigarren sektorea eta %36 hirugarren sektorea. Lehen sektorearen zati handi bat upategi handiei dagokie.

Oion eta Casablancako industrializazioaren gainetik eskualdearen jarduera ekonomikoan lehen sektoreak duen garrantzia antzeman daiteke. Izatez, lehen sektorearen barruan barne hartu diren enpleguetako asko familia-tamainako upategi-instalazioetako lanpostuak dira.

Jarduera ekonomikoak, beraz, lotura handia du mahastizaintzarekin eta ardoen fabrikazioarekin. Tamaina askotariko upategi-instalazio ugari dago eta ia herri guztietan aurki daiteke ardoa produzitzen duen kooperatibaren bat.

Bestalde, turismoa eta ostalaritza gorakada nabarmena duten jarduera ekonomikoak dira, batez ere klima onak eta upategien erakarpenak eraginda.

Nolanahi ere, hirugarren sektoreari, dagokionez Haro eta Logroñorekiko duen mendetasunaren ondorioz, esanguratsua da sektore honek eskualde-egitura honetan izan duen garapen urria.

Eskualdean dauden industria-enpleguetatik %51 Oioni dagozkio eta %24 Biasteriri. Ia enplegu guztiak, Oionen eta Biasteri-Casablančan izan ezik, upategi-instalazioei dagozkie.

### **c) Komunikabide-sarea**

Arabako Errioxako eskualde-egiturak euskarri dituen oinarrizko komunikabide-ardatzak (Miranda de Ebro-Kastejon trenbidea, N-232 errepidea eta Bilbo-Bartzelona autopista) Ebro ibaiaren eskuinaldetik bideratzen dira, hau da, Errioxako probintziatik, eta, horrenbestez eskualde-eremuaz kanpo.

Barneko bide-sarea A-124 errepidea da, eskualdea zeharkatzen duen errepide honek Logroñotik hasi eta Ekialdetik Mendebalderako noranzkoan Biasteri, Samaniego eta Bastidan barrena Harora jotzen du.

Oiongo hirigunea zuzenean lotuta dago Logroñorekin: Bestalde, Baños-Mainueta, Eltziego eta La Puebla de Labarka herriak, Ebro ibaiaren ondoan kokatuak, funtzionalki lotura estuagoa dute ibaiaren eskuinaldearekin (Cenicero eta Fuenmayor-ko hiriguneak, N-232 errepidea eta A-68 autobidea) A-124 ardatzarekin baino.

Oionerako sarbidea Logroño eta Iruña lotzen dituen N-111 errepidetik eta A-68 autobidetik bideratzen da, Logroño-ko hirigunea zeharkatu beharrik gabe.

### **d) Lurzoru-erreserbak**

Gaineratzen den taulan islatzen denaren arabera, jarduera ekonomikoetarako hirigintza-kalifikazioa duten lurzoruek 299 ha-ko azalera hartzen dute Arabako Errioxako eskualde-egiturari. Guztizko honetatik 171 ha okupatuta daude eta 128 ha libre daude.

Jarduera ekonomikoetarako kalifikazioa duen lurzoruaren inbentarioak eragozpen bat du; ez du irizpide homogeneorik jarraitzen upategi handietako instalazioak barne hartzeari dagokionez. Era berean, ez dago "chateau" motako upategi berriek -upategi hauek orokorrean beren inguruan mahastiak izaten dituzte- hartzen duten azalera hiri-lurzoru edo landa-lurzoru gisa katalogatzeko irizpide finkorik. Izan ere, upategi batzuk hiri-instalaziotzat hartzen dira eta beste batzuk landa-lurzoru urbanizaezintzat hartzen dira.

Oionen industria-lurzoru kalifikazioa duen lurzoru zati handi batean upategi-instalazioek hartzen dute eta, beren ingurunean mahastiak landatu dituztenez gero, eragotzi egin dute industria berriak ezartzeko lurzoru-eskaintza zabaltzea.

Jarduera ekonomikoetarako lurzoru sustatzeko erreserba nagusiak Logroñotik Biasterira arteko A-124 errepidearen tartean biltzen dira. Arabako Foru Aldundiko Ekonomia Sailak Biasterin bultzatu duen eta ia erabat amaituta dagoen Casablanca poligonoaren ekimenari Lantziegoko udalerrian egin den beste sustapen bat (44 ha) eta, duela gutxiago, Casablanca poligonoaren zabalkuntza (31 ha) gaineratu behar zaizkio.

Nolanahi ere, lurzoru librearen eskaintza Arabako Errioxan oso baldintzatuta dago mahastirako lurzoru gisa duen ahalmenaren ondoriozko lehiagatik.

**e) Lurzoru-eskariaren aurreikuspenak**

1990-2002 aldian eskualde-egitura honetan okupatutako industria-lurzoruaren gehikuntza 48 ha ingurukoa izan da, mahastiz landatutako lurzuak okupatuzat hartu gabe. Horrek urteko 4 ha-ko hazkunde-erritmoa dakar.

16 urteko horizontean etorkizuneko eskari hipotetikoa estaltzeko, eskualde-egitura honetan, hipotesi baikorrenean, hazkunde-erritmo iraunkor hori bereganatzeko gai izango den lurzoru-eskaintza aurreikusteak komeni da. Industria-lurzoru kalifikatua upategi handien planta berriak finkatzen badira, aurreikuspen hau gorantz berraztertu beharko da.



**ARABAKO**  
**ERRIOXAKO**  
**ESKUALDE-EGITURA**

**JARDUERA EKONOMIKOETARAKO LURZORUA**  
**OKUPATUA, LIBREA ETA GUZTIZKOA AZPIESKUALDE ETA UDALERRIEN ARABERA 2003AN\***

AZPIESKUALDEA / UDALERRIA	JARDUERA EKONOMIKOETARAKO LURZORUA (Azalera ha-tan)		
	OKUPATUA	LIBREA	GUZTIRA
BAINUETA	-	-	-
ELTZIEGO	11,64	13,63	25,27
BILAR	0,60	1,97	2,57
KRIPAN	-	-	-
LA PUEBLA DE LABARKA	3,02	5,88	8,90
BASTIDA	6,00	2,00	8,00
BIASTERI	53,28	41,22	94,50
LANTZIEGO	19,95	24,09	44,04
LEZA	-	-	-
MORETA	-	-	-
NABARIDAS	-	-	-
OION	70,06	37,00	107,06
SAMANIEGO	3,65	0,70	4,35
URIONA	3,00	1,50	4,50
EKORA	-	-	-
<b>GUZTIRA</b>			
<b>ARABAKO ERRIOXAKO EE</b>	<b>171,20</b>	<b>127,99</b>	<b>299,19</b>

\* 2003-12-31n eguneratuta. Udalplan 2004

**BIZTANLERIA GUZTIRA, BIGARREN SEKTOREAN LAN EGITEN DUEN BIZTANLERIA**  
**ETA JARDUERA EKONOMIKOETARAKO LURZORUA BEHAR DUTEN ENPLEGUEN KOPURUA**  
**AZPIESKUALDE ETA UDALERRIEN ARABERA 2000N**

AZPIESKUALDEA / UDALERRIA	BIZTANLERIA	BIZTANLERIA	ENPLEGU-KOP.
	GUZTIRA (Biztanle-kop.)	LANEAN BIGARREN SEKTOREAN (Lan eg. kop.)	JARD. EKON. LURZORUAN (Enplegu-kop.)
BAINUETA	334	13	2
ELTZIEGO	909	197	212
BILAR	352	22	19
KRIPAN	187	26	1
LA PUEBLA DE LABARKA	864	188	180
BASTIDA	1.177	181	137
BIASTERI	1.409	119	666
LANTZIEGO	645	73	21
LEZA	172	10	1
MORETA	289	51	6
NABARIDAS	217	12	-
OION	2.246	463	1.415
SAMANIEGO	305	18	38
URIONA	339	28	39
EKORA	252	53	13
<b>GUZTIRA</b>			
<b>ARABAKO ERRIOXAKO EE</b>	<b>9.697</b>	<b>1.454</b>	<b>2.750</b>

**ARABAKO**  
**ERRIOXAKO**  
**ESKUALDE-EGITURA**

**LURZORU KALIFIKATUAREN ERRESERBA-INDIZEA, BIGARREN SEKTOREKO AUTOENPLEGUARENA**  
**ETA BIGARREN SEKTOREKO ENPLEGU-DENTSIFIKAZIOARENA AZPIESKUALDE ETA UDALERRIEN ARABERA 2003AN**

AZPIESKUALDEA / UDALERRIA	LURZORU LIBREAREN ERRESERBA- INDIZEA	BIGARREN SEKTOREKO AUTOENPLEGU-INDIZEA	BIGARREN SEKTOREKO ENPLEGUAREN DENTSIFIKAZIO- INDIZEA
	AZAL. LURZORU KALIF. LIBREA AZAL. LURZORU KALIF. GUZTIRA	BIG. SEK. ENPLEGUA BIZ. OKUP. BIG. SEK.	BIG. SEK. ENPLEGUA LURZORU OKUP. J. E. (enplegu/ha)
BAINUETA	-	0,15	-
ELTZIEGO	0,54	1,08	18,21
BILAR	0,77	0,86	31,67
KRIPAN	-	0,04	-
LA PUEBLA DE LABARKA	0,66	0,96	59,60
BASTIDA	0,25	0,76	22,83
BIASTERI	0,44	5,60	14,52
LANTZIEGO	0,55	0,29	1,05
LEZA	-	0,10	-
MORETA	-	0,12	-
NABARIDAS	-	-	-
OION	0,35	3,06	20,20
SAMANIEGO	0,16	2,11	10,41
URIONA	0,33	1,39	13,00
EKORA	-	0,25	-
<b>GUZTIRA</b>			
<b>ARABAKO ERRIOXAKO EE</b>	<b>0,43</b>	<b>1,89</b>	<b>16,06</b>

### 3.2.4.- ARRATIAKO ESKUALDE-EGITURA

#### a) **Esparru fisikoa**

Arratiako eskualdea Ibaizabal ibaiaren haranarekiko elkarzut dago, haran honen eta Gorbeia mendigunearen artean. Zeberioko udalerriaren bitartez Nerbioi ibaiaren haranarekin lotuta dago.

Eskualde-egitura honetako ibarreko behe-eremuak bere urak Ibaizabal ibaira (Lemoan) isurtzeko eskualde hau goitik behera zeharkatzen duen Arratia ibaiaren urbazterretan eta Dimako azpiharanean dagoen Indusi ibaiaren urbazterretan daude.

204,6 km<sup>2</sup>-ko azalera du eta Euskal Autonomia Erkidegoaren lurraldearen %2,8 hartzen du.

#### b) **Hiri-egitura eta jarduera ekonomikoa**

Arratiako eskualde-egiturak 11.500 biztanle inguru ditu, hau da, Euskal Autonomia Erkidego osoko biztanleriaren %0,5.

Eskualde-egitura txiki honetan ondoko udalerrri hauek daude: Bedia, Lemoa, Igorre, Dima, Arantzazu, Artea, Areatza eta Zeanuri. Lehen hirua ez, gainerakoak ingurumenari dagokionez kalitate handia eta oso dentsitate demografiko txikia duten udalerrri txikiak dira.

Eskualde-eremuko hirigune nagusia Igorre da eta, oso biztanle gutxi duenez gero, eta bertatik hurbil garrantzi handiagoa duten hiriguneak daudenez gero (Zornotza, Galdakao eta Bilbo bera), ezin ditu zerbitzuetako eskualde-buruaren jarduerak burutu (lehen zerbitzuak izan ezik).

Produkzio-egituraren barruan bigarren sektorea da nagusi, sektore honek eskualde-egiturako enpleguen %64 hartzen du. Eskualde-egitura honen erabateko nagusitasuna du metal-eraldatuen jarduerak. Ia landa-herri guztietan oso ugariak dira bizimodu mistoak, hau da, nekazaritza eta basogintzako jarduerak eta industria-jarduerak partekatzen dituzten bizimoduak.

Eskualde-egiturak enpleguen saldo positiboa du bigarren sektorean; hirugarren sektorean, aldiz, okupazioa/enplegua erlazioa negatiboa da. Bi datu hauek agerian uzten dute eskualde-egitura honek Bilbo Metropolitarrarekiko eta Durangaldearekiko duen mendetasuna eta auzitan jartzen dute duela gutxira arte orokorrean onartzen zen ondoko iritzia: industriak bizitokien kokapenari dagokionez erakarpen handia du.

#### c) **Komunikabide-sarea**

Eskualde-egitura honen ardatza N-240 errepidea da, Galdakaotik abiatuta eta Barazarko mendatean barrena Bizkaia Arabarekin lotzen duena.

Ibaizabal ibaiaren ibilbideari jarraitzen dion Bilbo-Donostia trenbideak Bedia eta Lemoako udalerrriak zeharkatzen ditu.



**d) Lurzoru-erreserbak**

Gaineratzen den taulan islatzen denaren arabera Arratiako eskualde-egiturak lurzoru kalifikatuko 165 ha ditu eta hauetako 105 ha okupatuta daude eta gainerako 60 ha libre daude.

Lurzoru libre kalifikatuko erreserba nagusiak Artea-Arantzazun eta Diman aurreikusitako poligonoei dagozkie.

**e) Lurzoru-eskariaren aurreikuspenak**

Azken hamarkada honetan ez da ia eskualde-egiturako industria-lurzoru okupatua gehitu.

Eskualdearen kanpoan, hala badagokio, eskaintza suspertzaile batek sorraraziko duen erakarpen-ahalmenaren eskutik etorriko da etorkizuneko lurzoru-eskaria.

**ARRATIAKO**  
**ESKUALDE-EGITURA**

**JARDUERA EKONOMIKOETARAKO LURZORUA**  
**OKUPATUA, LIBREA ETA GUTZIZKOA AZPIESKUALDE ETA UDALERRIEN ARABERA 2003AN\***

AZPIESKUALDEA / UDALERRIA	JARDUERA EKONOMIKOETARAKO LURZORUA (Azalera ha-tan)		
	OKUPATUA	LIBREA	GUZTIRA
ARANTZAZU	0,37	7,00	7,37
AREATZA	-	4,34	4,34
ARTEA	-	19,49	19,49
BEDIA	18,43	-	18,43
DIMA	2,02	10,00	12,02
IGORRE	37,21	5,30	42,51
LEMOA	44,70	6,74	51,44
ZEANURI	2,50	7,00	9,50
<b>GUZTIRA</b>			
<b>ARRATIAKO EE</b>	<b>105,23</b>	<b>59,87</b>	<b>165,10</b>

\* 2003-12-31n eguneratuta. Udalplan 2004

**ARRATIAKO**  
**ESKUALDE-EGITURA**

**BIZTANLERIA GUZTIRA, BIGARREN SEKTOREAN LAN EGITEN DUEN BIZTANLERIA**  
**ETA JARDUERA EKONOMIKOETARAKO LURZORUA BEHAR DUTEN ENPLEGUEN KOPURUA**  
**AZPIESKUALDE ETA UDALERRIEN ARABERA 2000N**

AZPIESKUALDEA / UDALERRIA	BIZTANLERIA GUZTIRA (Biztanle-kop.)	BIZTANLERIA LANEAN BIGARREN SEKTOREAN (Lan eg. kop.)	ENPLEGU-KOP. JARD. EKON. LURZORUAN (Enplegu-kop.)
ARANTZAZU	270	59	49
AREATZA	1.049	207	30
ARTEA	595	94	19
BEDIA	988	169	819
DIMA	1.050	216	31
IGORRE	3.940	947	2.400
LEMOA	2.466	507	856
ZEANURI	1.160	215	46
<b>GUZTIRA ARRATIAKO EE</b>	<b>11.518</b>	<b>2.414</b>	<b>4.250</b>

**LURZORU KALIFIKATUAREN ERRESERBA-INDIZEA, BIGARREN SEKTOREKO AUTOENPLEGUARENA**  
**ETA BIGARREN SEKTOREKO ENPLEGU-DENTSIKAZIOARENA AZPIESKUALDE ETA UDALERRIEN ARABERA 2003AN**

AZPIESKUALDEA / UDALERRIA	LURZORU LIBREAREN ERRESERBA-INDIZEA	BIGARREN SEKTOREKO AUTOENPLEGU-INDIZEA	BIGARREN SEKTOREKO ENPLEGUAREN DENTSIKAZIO-INDIZEA
	AZAL. LURZORU KALIF. LIBREA AZAL. LURZORU KALIF. GUZTIRA	BIG. SEK. ENPLEGUA BIZ. OKUP. BIG. SEK.	BIG. SEK. ENPLEGUA LURZORU OKUP. J. E. (enplegu/ha)
ARANTZAZU	0,95	0,83	132,43
AREATZA	1,00	0,14	-
ARTEA	1,00	0,20	-
BEDIA	-	4,85	44,44
DIMA	0,83	0,14	30,39
IGORRE	0,12	2,53	66,02
LEMOA	0,13	1,69	19,15
ZEANURI	0,74	0,21	18,40
<b>GUZTIRA ARRATIAKO EE</b>	<b>0,36</b>	<b>1,76</b>	<b>40,39</b>

### 3.2.5.- BILBO METROPOLITARREKO ESKUALDE-EGITURA

#### a) Esparru fisikoa

Bilboko hirigunea inguratzen duen eskualde-egitura bat dator Ibaizabal eta Nerbioi ibaien goi-ibilbidearekin, bi ibai hauek Etxebarri-Basauri esparruan bat egin ondoren Bilboko itsasadarra osatzen dute Abran urak itsasora isurtzeko bidean.

Asua, Udondo eta Gobelak ibaiek, eskuinaldean, eta Kadagoa eta Galindo ibaiek, ezker aldean, itsasadarrean isurtzen dituzte urak. Barbadun ibaia zuzenean isurtzen ditu urak itsasoan Muskizko udalerrian.

Ibaizabal ibaia, Nerbioi ibaia eta, bereziki, Bilboko itsasadarra dira eskualde hau egituratzen duen benetako ardatza. Ibai hauen ibilbidean terraza alubialak eta padurak ageri dira.

Okupatuta ez dauden esparru lau nagusiak Bilboko itsasadarrarekiko haran paraleloetan kokatzen dira (Barakaldo eta Santurtzi artean ezker aldean eta Asuako haranean, eskuinaldean).

Eskualde-egiturak guztira 499,4 km<sup>2</sup>-ko azalera du eta Euskal Autonomia Erkidegoaren lurraldearen %7,0 hartzen du.

#### b) Hiri-egitura eta jarduera ekonomikoa

Ondoko udalerriak daude Bilbo Metropolitarrako eskualde-egituran: Muskiz, Abanto-Zierbena, Santurtzi, Urtuella, Portugalete, Trapaga, Sestao, Barakaldo, Alonsotegi, Bilbo, Etxebarri, Basauri, Galdakao, Arrigorriaga, Zaratamo, Ugao-Miraballes, Arrankudiaga, Zeberio, Larrabetzu, Lezama, Zamudio, Derio, Sondika, Loiu, Erandio, Leioa, Getxo, Berango, Sopela, Urduliz, Barrika, Plentzia, Gortiz eta Lemoiz.

Eskualde-egitura hau Bilboko eremu nagusiaren eta bide-loturako ardatz nagusien inguruan garatutako konurbazio gisa osatzen den hiri-esparru bat da nagusiki. Lurralde-esparru honetan bertako eremuen arteko osagarritasuna eta erlazioak oso handiak dira eta, horrenbestez, lan-merkatu eta bizitoki integratutzat har daiteke. Izan ere, eskualde-egituraren aldeetakoren batean gerta daitekeen edozein aldaketak osotasunean du eragina.

Gaur egun Bilbo Metropolitarrako eskualde-egiturak 912.000 biztanle inguru ditu, hau da, Euskal Autonomia Erkidegoko biztanleriaren %43,5.

Azterlan honetarako eskualde-egitura hainbat azpieskualdetan banandu da, bigarren sektorearekin lotzen den biztanleriari eta industria-lurzorua eskuragarritasunari dagokionez berriazko profila duten hainbat azpieskualdetan hain zuzen ere.

- Itsasadarrak eta Ezker aldeak 298.000 biztanle dituzte, hau da, Euskal Autonomia Erkidegoko biztanleriaren %14,3. Bertako lanpostuen %41 bigarren sektorekoak dira eta %59 hirugarren sektorekoak.

Bigarren sektorean 40.500 langilek egiten dute lan eta 27.300 industria-enplegu baino ez ditu.

- Plentzia-Leioa iraganbideak 136.600 biztanle inguru ditu, hau da, Euskal Autonomia Erkidego osoko biztanleriaren %6,6. Bertako lanpostuen %1 lehen sektorekoak dira, %28 bigarren sektorekoak eta %71 hirugarren sektorekoak.

Plentzia-Leioa iraganbidean 14.700 langile daude lanean bigarren sektorean eta 8.200 industria-enplegu baino ez ditu.

- Txorierri 16.500 biztanle ditu, hau da, Euskal Autonomia Erkidego osoko biztanleriaren %0,8 besterik ez. Bertako lanpostuen %2 lehen sektorekoak dira, %54 bigarren sektorekoak eta %44 hirugarren sektorekoak.

2.800 langilek egiten dute lan bigarren sektorean eta 12.600 industria-enplegu ditu ordea.

- Nerbioi Behereak 102.000 biztanle ditu, hau da, Euskal Autonomia Erkidegoko biztanleriaren %4,9. Bertako lanpostuen %1 lehen sektorekoak dira, %50 bigarren sektorekoak eta %49 hirugarren sektorekoak.

Bigarren sektorean 17.000 langilek egiten dute lan eta 18.300 industria-enplegu ditu.

- Azkenik Bilboko udalerriak 358.000 biztanle ditu, hau da, Euskal Autonomia Erkidegoko biztanleriaren %17,4. Bertako lanpostuen %25 bigarren sektorekoak dira eta %75 hirugarren sektorekoak.

Bigarren sektorean 33.000 langilek egiten dute lan eta 37.000 industria-enplegu ditu.

Bilbo Metropolitarrako eskualde-egiturak guztira 108.100 langile ditu bigarren sektorean eta 103.700 industria-enplegu ditu.

Bere produkzio-egitura zerbitzu-sektorean nolabait espezializatuta dago, biztanleria landunaren %66k dihardu sektore honetan eta industria-enpleguetan, berriz, %34k.

Ondokoak dira bigarren sektorean okupazioa/enplegua erlazioan defizit nabarmena duten udalerriak Barakaldo (-6.100), Portugalete (-6.050), Getxo (-5.350), Santurtzi (-5.000), Sestao (-1.500), Galdakao (-800), Sopela (-800) eta Urtuella (-650) dira eta saldirik aldekoena dutenak, aldiz, Zamudio (+5.300), Trapaga (+4.400), Bilbo (+4.100), Sondika (+2.050), Etxebarri (+1.600), Loiu (+1.450), Zaratamo (+1.150), Derio (+850), Erandio (+950) eta Urduliz (+600) dira.

Ikus dezakegunez, Ezkerraldeko eta Plentzia-Leioa iraganbideko udalerriak, orokorrean, jarduera ekonomikoan defizitarioak dira eta Txorierriko udalerriek, berriz, bigarren sektorean lanean diharduten pertsonen kopurua baino enplegu-kopuru handiagoa dute. Nerbioi-Ibaizabal iraganbidean egoera orekatua da orokorrean.

### **c) Komunikabide-sarea**

Bilbo Metropolitarrako eskualde-egitura antolatzen duen komunikabide-sareen barruan bi maila bereiz daitezke. Lehen mailan kanpoaldearekiko loturarako funtsezko azpiegiturak daude, hau da, A-8 eta A-68 autobideak, N-634 eta N-625 errepideak eta ibilbide luzeko trenbideak. Bigarren maila batean Bilbo eta bere ingurunea eta alboko eskualdeak lotzen dituzten komunikabide eta garraiorako sareak daude.

Eskuinaldea eta Txorierri N-637 errepidearen inguruan egituratzen dira, Erletxestik Rontegiko zubiraino, ondoren Plentziaraino luzatuz.



Bilboko sarean bi luzerako ardatz nabarmentzen dira: batetik, hegoaldeko soluzioa eta, bestetik, Txorierriko iraganbidea. Bi ardatz hauek itsasadarraren behe-bideekin osatzen dira.

Arlo honetan aurreikusten diren jardunen artean Derio-Mungia iraganbidea garatzea eta udalerrri hauetan saihezbideak egitea, N-634 errepidea El Gallo eta Erletxes artean bitan banatzea eta Kadaguako iraganbidea egitea daude. Premiarik larriena hiriburua inguratuko duen sarea osatzean eta zeharkako elementu berriekin (Artxandako tunela, itsasadarra zeharkatzeko iraganbide berriak) osatzean datza.

Komunikabide eta garraioko azpiegituraren funtsezko elementuen artean Bilboko Kanpoko Portua eta aireportu berria daude.

Bilboko Kanpoko Portuak garrantzi handia du Iberiar Penintsulako itsasoan zeharreko garraio-sarean. Lehen fase batean dike bat eta kontradike bat eraiki dira eta itsasoari 150/200 ha hartu zaizkio. Ondorengo faseetan obra osatu egingo da 8 km-ko kaia osatu arte eta itsasoari 400 ha hartu arte.

Kanpoko Portua eraikitzea antzina itsasadarrean zeuden portu-instalazio eta industria-instalazio guztiak pixkanaka birmoldatzea ahalbidetzen ari da eta, gainera, portu-instalazio guztiak metatzea eta hala beren funtzionamendua hobetzea ahalbidetuko du.

Kanpoko Portu berriaren disfuntzio nagusiak lehorreko komunikabideetan oinarritzen dira, bai errepidean zeharrekoetan bai trenbidean zeharrekoetan. Trenbidean zeharreko komunikabideak epe luzera begira hobetu ahal izateko inguruko berriak eraiki beharko dira.

Bestalde, Kanpoko Portuan Renfe konpainiaren sailkapen-geltoki berria eta edukiontzien terminal berria ari dira eraikitzen.

Aireportu berria eraikitzearekin batera jarduera aurreratuen ezarpengunea finkatzen da, Teknologi Elkartegiaren inguruan egituratutakoa, eta terminal berriaren inguruan higiezinaren sustapenean tirabira handiak antzematen dira.

#### **d) Lurzoru-erreserbak**

Gaineratzen den taularen arabera Bilbo Metropolitarrako eskualde-egituraren jarduera ekonomikoetarako lurzoru gisa kalifikatzen diren 2.966 ha daude eta hauetako 2.154 ha lurzoru okupatuak dira eta 812 ha lurzoru libre dira.

Azterketa azpieskualdeen arabera eginez gero, ondokoa dugu:

- Kanpoko Portua

Kanpoko Portuaren eraikuntzaren bitartez oinarritzko jarduera ekonomikoa eta salgaiak garraiatzeko etorkizuneko sistemaren jasoko duen garrantzi handiko espazio berria ari da sortzen.

Azterketa honetan Kanpoko Portuan sortzen den luraren barruan jarduera ekonomikoetarako (produkzio eta muntaiatik biltegiratze, banatze eta garraiora bitartean) eremu gisa erabil daitezkeen azalera guztiak barne hartu behar dira, komunikabideen sistema orokorrari dagozkion lurzoruen zuzkidura

izan ezik (kaietako atrakatzeko-perimetroak, trenbide-terminal berria, edukiontzien geltoki berria).

Eraikuntza-prozesua amaitutakoan jarduera ekonomikoetarako 402 ha izango dira Kanpoko Portuan, Portu Autonomoaren aurreikuspenen arabera. Azalera honetatik gaur egun 121 ha daude okupatuta eta gainerako 281 ha itsasoari espazioa hartzeko prozesuan okupatu gabetzat hartzen dira. Hala eta guztiz ere, 281 ha hauek oso eskaintza garrantzitsua dira, datozen urteetan bertan enpresa handiak ezartzea aurreikusten baita.

Trenbide-sarrera berriaren eraikuntzaren bitartez eta etorkizunean trenbide-sarrera berri baten aurreikuspena kontuan izanik, Euskal Autonomia Erkidegoko jarduera ekonomikoko poligono nagusia eta garraio-zerbitzuko plataforma logistiko garrantzitsua Kanpoko Portua izango da.

- Itsasadarra eta Ezkerraldea

Ezkerraldean ondoko udalerrietako lurak barne hartzen dira: Muskiz, Abanto-Zierbena (Kanpoko Portua izan ezik), Santurtzi (Kanpoko Portua izan ezik), Portugalete, Sestao, Urtuella, Trapaga, Barakaldo eta Alonsotegi, azkena eskuinaldean kokatutakoa.

Lurzoru kalifikatuak 1.239 ha hartzen ditu eta hauetako 938 ha lurzoru okupatuak dira eta 301 ha lurzoru libre.

Haatik, lurzoru libretzat hartu diren lurzoru asko ez dira erabilgarri dagoen lurzoru-eskaintza erreala, hirigintza-kudeaketako arazoak dituzte, kutsadurako arazoak dituzte, zaharkituta dauden industria-planten birmoldatze-prozesu korapilotsuen menpe dauden lurzoruak dira edo oso prezio altuak dituzte.

Erreserba nagusiak antzinako mehatze-eremuak edo industria-planta zaharkituak berreskuratzeko eragiketei dagozkie, El Campillo (Abanto 15 ha), Abra Industrial (Abanto 41 ha, Urtuella 26 ha), Ballonti (Portugalete 5 ha), F, H, I eta J sektoreak (Trapaga 23 ha), A.18 eta A.19 (Sestao 45 ha), baita Barakaldo itsasadarren inguruan sustatutako hirugarren sektoreko jarduera ekonomikoetarako lurzoru-eskaintzei, Urban Galindo eragiketari, BEPB 05. Lutzana-Burceña.

- Bilbo

Bilboko udal-lurraldean ez dago jada industria-lurzoru garrantzitsurik, bere industria-ehun osoan ia gertatu den birmoldatze-prozesu handiaren ondorioz.

- Plentzia-Leioa iraganbidea

Plentzia-Leioa iraganbidean ondoko udalerrietako lurzoruak barne hartzen dira: Lemoiz, Gorliz, Plentzia, Barrika, Sopela, Urduliz, Berango, Getxo eta Leioa.

Plentzia-Leioa iraganbidean kalifikatuta dagoen lurzoruaren azalera, batez ere bizitoki-lurzorua, 241 ha-koa da, hauetako 158 ha okupatuta daude eta 83 ha libre.

Adierazi behar da lurzoru hauen zati handi bat hirugarren sektoreko merkataritzaguneei dagokiela (Artea, Eroski, eta abar) eta ez industria-jarduerei.

Lurzoru-erreserba nagusiak Leioan (45 ha) eta Getxo-Martiturrin (15 ha) daude.

- Txorierrri

Txorierrin ondoko udalerrietako lurzoruak barne hartzen dira: Sondika, Loiu, Derio, Zamudio, Lezama eta Larrabetzu.

Txorierriko kalifikatutako lurzoruak 460 ha-koa da eta hauetatik 369 ha okupatuta daude eta 91 ha libre.

Lurzoru kalifikatuko erreserba nagusiak Derion -Teknologi Elkartegiaren 2. fasean-, eta Zamudion -Pinoa eta Ugaldeguren poligonoetako garatu gabeko eremuetan- daude.

- Nerbioi Beherea

Nerbioi Beherean ondoko udalerrietako lurzoruak barne hartzen dira: Etxebarri, Basauri, Galdakao, Zaratamo, Arrigorriaga, Ugao-Miraballes, Arrigorriaga eta Zeberio.

Nerbioi Beherean kalifikatutako lurzoruak 522 ha hartzen ditu eta hauetatik 479 ha okupatuta daude eta 43 ha libre.

Dena den, 57 ha hauek hainbat eremu txiki sakabanaturik dagozkie, azpieskualdean ez dago industria-lurzoru libreko eskaintza esanguratsurik. Galdakaoko Erletxes poligonoaren azken fasea -pabilioiekin okupatzeko prozesuan- eta Arrigorriagako Bentako-Erreka eta Martiartu II eremuak soilik adieraz daitezke.

## **e) Lurzoru-eskariaren aurreikuspenak**

1990-2002 aldian Bilbo Metropolitarrako eskualde-egituraren okupatutako industria-lurzoruaren gehikuntza 390 ha ingurukoa izan da (jarduera ekonomiko lurzorutzat hartzen den portuko instalazioen gehikuntzaz gain); 60 ha Ezkerraldean daude, itsasadarreko lurzoruen bizitegi-erabilerrako birmoldaketa konpentsatzeko hainbat poligono berri eraiki dira bertan (Campillo, Granada, Ugarteko zuzena); 70 ha Plentzia-Leioa iraganbidean (30 ha Arteako merkataritzaguneari dagozkio); 130 ha Txorierrin (beste poligono batzuen artean, Teknologi Elkartegia eta aireportuaren ingurua); eta 130 ha Nerbioi Beherean (30 ha Sidenor plantarenak, 30 ha Erletxes poligonoarenak eta 15 ha Bilbondo merkataritzagunearienak).

16 urteko horizonte batean jarduera ekonomikoetarako lurzoruaren etorkizuneko eskari hipotetikoa estaltzeko komeni da Bilbo Metropolitarrako eskualde-egitura honetan, hipotesi baikorrenean, lurzoru berria okupatzeko urteko 32 ha-ko erositua bereganatzeko gai izango den lurzoru-eskaintza aurreikustea.

JARDUERA EKONOMIKOETARAKO LURZORUA SORTZEKO ETA SALTOKI HANDIAK  
ANTOLATZEKO LURRALDEAREN ARLOKO PLANA

**BILBO METROPOLITARREKO EE**  
**JARDUERA EKONOMIKOETARAKO LURZORUA**  
**OKUPATUA, LIBREA ETA GUZTIZKOA AZPIESKUALDE ETA UDALERRIEN ARABERA 2003AN\***

AZPIESKUALDEA / UDALERRIA	JARDUERA EKONOMIKOETARAKO LURZORUA (Azalera ha-tan)		
	OKUPATUA	LIBREA	GUZTIRA
<b>KANPOKO PORTUA</b>			
ZIERBENA (1)	40,00	130,00	170,00
SANTURTZI (1)	81,00	151,00	232,00
GUZTIZKO PARTZIALA			
<b>KANPOKO PORTUA</b>	<b>121,00</b>	<b>281,00</b>	<b>402,00</b>
<b>ITSASADARRA ETA EZKERRALDEA</b>			
ABANTO-ZIERBENA	106,67	60,93	167,60
ALONSOTEGI	18,38	2,50	20,88
BARAKALDO	174,63	48,45	223,08
ERANDIO	118,75	45,25	164,00
MUSKIZ	170,01	13,30	183,31
URTUELLA	34,34	33,15	67,49
PORTUGALETE	19,47	15,83	35,30
SANTURTZI (2)	37,16	12,76	49,92
SESTAO	100,55	42,00	142,55
TRAPAGA	152,82	27,03	179,85
ZIERBENA (2)	5,50	-	5,50
GUZTIZKO PARTZIALA			
<b>ITSASADARRA ETA EZKERRALDEA</b>	<b>938,28</b>	<b>301,20</b>	<b>1.239,48</b>
<b>BILBO</b>			
BILBO	89,43	12,77	102,20
GUZTIZKO PARTZIALA			
<b>BILBO</b>	<b>89,43</b>	<b>12,77</b>	<b>102,20</b>
<b>PLENTZIA-LEIOA IRAGANBIDEA</b>			
BARRIKA	-	6,75	6,75
BERANGO	16,34	0,50	16,84
GETXO	10,57	15,00	25,57
GORLIZ	-	3,35	3,35
LEIOA	97,67	47,10	144,77
LEMOIZ	-	3,17	3,17
PLENTZIA	-	-	-
SOPELA	13,50	1,50	15,00
URDULIZ	19,54	5,70	25,24
GUZTIZKO PARTZIALA			
<b>PLENTZIA-LEIOA IRAGANBIDEA</b>	<b>157,62</b>	<b>83,07</b>	<b>240,69</b>
<b>TXORIERRI</b>			
DERIO	78,76	30,28	109,04
LARRABETZU	8,14	-	8,14
LEZAMA	10,94	8,00	18,94
LOIU	38,39	22,09	60,48
SONDIKA	50,12	5,61	55,73
ZAMUDIO	182,20	25,00	207,20
GUZTIZKO PARTZIALA			
<b>TXORIERRI</b>	<b>368,55</b>	<b>90,98</b>	<b>459,53</b>
<b>NERBIOI BEHEREA</b>			
ARRANKUDIAGA	16,97	1,00	17,97
ARRIGORRIAGA	48,37	12,82	61,19
BASAURI	179,07	10,24	189,31
ETXEBARRI	60,97	-	60,97
GALDAKAO	132,57	12,38	144,95
UGAO-MIRABALLES	16,07	1,00	17,07
ZARATAMO	24,81	2,50	27,31
ZEBERIO	-	3,60	3,60
GUZTIZKO PARTZIALA			
<b>NERBIOI BEHEREA</b>	<b>478,83</b>	<b>43,54</b>	<b>522,37</b>
<b>GUZTIRA</b>			
<b>BILBO METROPOLITARREKO EE</b>	<b>2.153,71</b>	<b>812,56</b>	<b>2.966,27</b>

(1) Portu-esparrua

(2) Portu-esparrua zenbatu gabe

\* 2003-12-31n eguneratuta. Udalplan 2004

**BILBO METROPOLITARREKO EE**  
**BIZTANLERIA GUZTIRA, BIGARREN SEKTOREAN LAN EGITEN DUEN BIZTANLERIA**  
**ETA JARDUERA EKONOMIKOETARAKO LURZORUA BEHAR DUTEN ENPLEGUEN KOPURUA**  
**AZPIESKUALDE ETA UDALERRIEN ARABERA 2000N**

AZPIESKUALDEA / UDALERRIA	BIZTANLERIA GUZTIRA (Biztanle-kop.)	BIZTANLERIA LANEAN BIGARREN SEKTOREAN (Lan eg. kop.)	ENPLEGU-KOP. JARD. EKON. LURZORUAN (Enplegu-kop.)
<b>KANPOKO PORTUA</b>			
ZIERBENA (1)	-	-	-
SANTURTZI (1)	-	-	-
GUZTIZKO PARTZIALA			
<b>KANPOKO PORTUA</b>	-	-	-
<b>ITSASADARRA ETA EZKERRALDEA</b>			
ABANTO-ZIERBENA	8.812	1.283	1.806
ALONSOTEGI	2.829	384	810
BARAKALDO (1)	98.649	11.969	5.879
ERANDIO	23.207	3.133	3.868
MUSKIZ	6.123	977	1.172
URTUELLA	8.778	1.305	656
PORTUGALETE	53.498	7.613	1.561
SANTURTZI (2)	48.962	6.799	1.800
SESTAO	33.732	4.954	3.410
TRAPAGA	12.673	1.912	6.288
ZIERBENA (2)	1.170	183	18
GUZTIZKO PARTZIALA			
<b>ITSASADARRA ETA EZKERRALDEA</b>	<b>298.433</b>	<b>40.512</b>	<b>27.268</b>
<b>BILBO</b>			
BILBO	358.467	33.142	37.275
GUZTIZKO PARTZIALA			
<b>BILBO</b>	<b>358.467</b>	<b>33.142</b>	<b>37.275</b>
<b>PLENTZIA-LEIOA IRAGANBIDEA</b>			
BARRIKA	1.076	129	47
BERANGO	4.690	605	846
GETXO	82.974	7.668	2.319
GÖRLIZ	3.808	417	46
LEIOA	27.308	3.822	3.407
LEMOIZ	877	71	4
PLENTZIA	3.286	309	48
SOPELA	9.815	1.273	481
URDULIZ	2.825	447	1.027
GUZTIZKO PARTZIALA			
<b>PLENTZIA-LEIOA IRAGANBIDEA</b>	<b>136.659</b>	<b>14.741</b>	<b>8.225</b>
<b>TXORIERRI</b>			
DERIO	4.666	935	1.785
LARRABETZU	1.552	251	154
LEZAMA	2.053	304	503
LOIU	1.661	175	1.622
SONDIKA	3.694	488	2.550
ZAMUDIO	2.953	671	5.968
GUZTIZKO PARTZIALA			
<b>TXORIERRI</b>	<b>16.579</b>	<b>2.824</b>	<b>12.582</b>
<b>NERBIOI BEHEREA</b>			
ARRANKUDIAGA	740	146	570
ARRIGORRIAGA	10.502	1.592	1.659
BASAURI	48.107	7.686	7.250
ETXEBARRI	6.416	1.103	2.683
GALDAKAO	29.418	5.061	4.239
UGAO-MIRABALLES	4.150	923	452
ZARATAMO	1.614	262	1.423
ZEBERIO	929	159	49
GUZTIZKO PARTZIALA			
<b>NERBIOI BEHEREA</b>	<b>101.876</b>	<b>16.932</b>	<b>18.325</b>
<b>BILBO METROPOLITARREKO EE GUZTIRA</b>	<b>912.014</b>	<b>108.151</b>	<b>103.675</b>

(1) Portu-esparrua

(2) Portu-esparrua zenbatu gabe

**BILBO METROPOLITARREKO EE**  
**LURZORU KALIFIKATUAREN ERRESERBA-INDIZEA, BIGARREN SEKTOREKO AUTOENPLEGUARENA**  
**ETA BIGARREN SEKTOREKO ENPLEGU-DENTSIFIKAZIOARENA AZPIESKUALDE ETA UDALERRIEN ARABERA 2003N**

AZPIESKUALDEA / UDALERRIA	LURZORU LIBREAREN	BIGARREN SEKTOREKO	BIGARREN SEKTOREKO
	ERRESERBA-INDIZEA	AUTOENPLEGU-INDIZEA	ENPLEGUAREN
	AZAL. LURZORU KALIF. LIBREA	BIG. SEK. ENPLEGUA	DENTSIFIKAZIO-INDIZEA
	AZAL. LURZORU KALIF. GUZTIRA	BIZ. OKUP. BIG. SEK.	BIG. SEK. ENPLEGUA LURZORU OKUP. J. E.
<b>KANPOKO PORTUA</b>			
ZIERBENA (1)	0,76	-	-
SANTURTZI (1)	0,65	-	-
GUZTIZKO PARTZIALA			
<b>KANPOKO PORTUA</b>	<b>0,70</b>	-	-
<b>ITSASADARRA ETA EZKERRALDEA</b>			
ABANTO-ZIERBENA	0,36	1,41	16,93
ALONSOTEGI	0,12	2,11	44,07
BARAKALDO	0,22	0,49	33,67
ERANDIO	0,28	1,23	32,57
MUSKIZ	0,07	1,20	6,89
URTUELLA	0,49	0,50	19,10
PORTUGALETE	0,45	0,21	80,17
SANTURTZI (2)	0,26	0,26	48,44
SESTAO	0,29	0,69	28,68
TRAPAGA	0,15	3,29	41,15
ZIERBENA (2)	-	8,89	32,74
GUZTIZKO PARTZIALA			
<b>ITSASADARRA ETA EZKERRALDEA</b>	<b>0,24</b>	<b>0,67</b>	<b>29,06</b>
<b>BILBO</b>			
BILBO	0,12	1,12	416,80
GUZTIZKO PARTZIALA			
<b>BILBO</b>	<b>0,12</b>	<b>1,12</b>	<b>416,80</b>
<b>PLENTZIA-LEIOA IRAGANBIDEA</b>			
BARRIKA	1,00	0,36	-
BERANGO	0,03	1,40	51,77
GETXO	0,59	0,30	219,39
GORLIZ	-	0,11	-
LEIOA	0,33	0,89	34,88
LEMOIZ	1,00	0,06	-
PLENTZIA	-	0,16	-
SOPELA	0,10	0,38	35,63
URDULIZ	0,23	2,30	52,56
GUZTIZKO PARTZIALA			
<b>PLENTZIA-LEIOA IRAGANBIDEA</b>	<b>0,35</b>	<b>0,56</b>	<b>52,18</b>
<b>TXORIERRI</b>			
DERIO	0,28	1,91	22,66
LARRABETZU	-	0,61	18,92
LEZAMA	0,42	1,65	45,98
LOIU	0,37	9,27	37,07
SONDIKA	0,10	5,23	50,88
ZAMUDIO	0,12	8,89	32,74
GUZTIZKO PARTZIALA			
<b>TXORIERRI</b>	<b>0,20</b>	<b>4,46</b>	<b>34,14</b>
<b>NERBIOI BEHEREA</b>			
ARRANKUDIAGA	0,06	3,90	33,59
ARRIGORRIAGA	0,21	1,04	34,30
BASAURI	0,05	0,94	40,49
ETXEBARRI	-	2,43	44,00
GALDAKAO	0,09	0,84	34,58
UGAO-MIRABALLES	0,06	0,49	28,13
ZARATAMO	0,09	5,43	57,36
ZEBERIO	1,00	0,31	-
GUZTIZKO PARTZIALA			
<b>NERBIOI BEHEREA</b>	<b>0,08</b>	<b>1,08</b>	<b>38,27</b>
<b>BILBO METROPOLITARREKO EE GUZTIRA</b>	<b>0,27</b>	<b>0,96</b>	<b>48,14</b>

(1) Portu-esparrua

(2) Portu-esparrua zenbatu gabe

### 3.2.6.- DURANGALDEKO ESKUALDE-EGITURA

#### a) **Esparru fisikoa**

Durangaldea Ibaizabal Garaiaren eskualde naturala da. Iparraldeko Oiz mendia eta Hegoaldeko Anboto mendilerroaren artean dago kokatuta.

Ibaizabal ibaiaren ardatzak eskualdea Hego-ekialdetik Ipar-mendebaldera zeharkatzen du, eta Bilbo Metropolitarrako eskualde-egituraren eta Gipuzkoako Deba ibaiaren haranaren arteko iraganbide naturala osatzen duen harana itxuratzen du. Iraganbide natural hau funtsezkoa gertatzen da bi eremu hauen arteko erlazioetan eta bi eremu hauek arintzeko duen izaerak baldintzatzen du iraganbide honen etorkizuna.

255,51 km<sup>2</sup>-ko azalera du eta Euskal Autonomia Erkidegoaren lurraldearen %3,6 hartzen du.

#### b) **Hiri-egitura eta jarduera ekonomikoa**

Durangaldeko eskualde-egituran ondoko udalerriak barne hartzen dira: Zornotza, Iurreta, Durango, Garai, Izurtza, Mañaria, Abadiño, Berriz, Zaldibar, Atxondo eta Elorrio. Guztira 68.500 biztanle ditu, hau da, Euskal Autonomia Erkidego osoko biztanleriaren %3,3.

Mallabia eta Ermua, Bizkaiko udalerriak, Durangaldeko eskualdean barne hartu ohi badira ere, Lurraldearen Antolamendurako Artezpideetan Debabarreneko eskualde-egituraren barruan barne hartzen dira, udalerri honekin harreman funtzional handiagoa dute-eta.

Eskualde honek bi buru ditu: Zornotza (16.000 biztanle), udalerri honen inguruan ere oinarritzen da funtzio batzuetarako Arratiako eskualde-egitura, eta Durango (24.000 biztanle) eskualdeko gainerako udalerriak biltzen dituena.

Eskualde-egitura honen produkzio-egituran garrantzi handikoa da bigarren sektorea (enpleguaren %55) eta ahul samarra hirugarren sektorea (enpleguaren %44). Metal-eraldatuen jardueretan oso espezializazio handia dago, baita arlo honekiko mendetasun handia ere.

Okupazioa/enplegua erlazioak oso saldo desberdinak azaltzen ditu bigarren sektoreari eta hirugarren sektoreari dagokionez. Bigarren sektorean saldoa 2.800 enplegutik gora positiboa den bitartean, hirugarren sektoreak defizit handia azaltzen du.

Ekonomiaren ikuspuntutik, metal-eraldatuen arloan gertatzen den espezializazioa arriskutsua den arren, hazkundea eskualde-egitura honetarantz hedatuko dela pentsa daiteke. Eta hori horrela gertatuko dela pentsatzeko hainbat arrazoi dago: inbertsioaren portaera, azken urte hauetan hirugarren sektorean izan den gehikuntza, industria-lurzoru erabilgarri gutxi duten hiru eskualde-egituretatik hurbil egotea, bide-azpiegituren sare egokia izatea eta lurzoru-eskaintza handia izatea.

#### c) **Komunikabide-sarea**

A-8 autobideak eta N-634 errepideak egituratzen dute eskualde-egiturako bide-azpiegitura. Pixkanaka eraikitzen ari den Beasain-Durango autobidea (BI-632 eta GI-632) funtsezkoa izango da Durangaldeak Euskal Autonomia Erkidegoan izan duen zentraltasunari begira.

Dena den, eskualde honetan beste hainbat bide garrantzitsu dago, hala nola Durango eta Arabako Lurralde Historikoa Urkiolako mendatetik barrena lotzen duen BI-623 errepidea, Aurtzagane mendatetik barrena eskualdea Gernikarekin lotzen duen BI-635 errepidea eta Trabakua mendatetik eskualdea Markinarekin lotzen duen BI-633 errepidea.

Trenbide-azpiegiturari dagokionez, eskualde honetan Euskotren-eko Bilbo-Donostia trenbidea dago. Zornotzatik Gernika eta Bermeorantz jotzen duen trenbide-adarra dago.

Euskal trenbide-sarearen trazadura berria eskualde honetatik bideratuko da eta bertan geltoki bat egiteko aukerak zabaldu egiten du eskualde-egitura honek etorkizuneko garapenerako dituen aukera estrategikoak.

#### **d) Lurzoru-erreserbak eta industria-problematika**

Durangaldeko eskualde-egitura Bilbo Metropolitarraren eta Debagoieneko eta Debabarreneko eskualde-egituren arteko iraganbide naturala da.

Bertan garatu den industrializazio-prozesua bi eremu hauen arteko erlazioetan betetzen duen zereginaren ondoriozkoa izan da eta bi eremu hauek, batik bat, arintzeko funtzioa izan du. Industrializazio-prozesu hau zenbait landa-herriguneren inguruan (Euba, Iurreta, Izurtza, Mañaria, Abadiño, Berriz, Zaldibar, Atxondo) garatu da eta ez da inolako koordinaziorik izan bere plantamenduan. Lurzoru-eskaintza handia izan da eta, okupazio-urbanizazio prozesuaren gaineko kontrol urria gertatu denez gero, lurzoru hauek modu sakabanatuan eta inolako ordenarik gabe okupatu dira.

Industriaren hazkunde honekin batera bizitoki-hazkunde handia gertatu da eta hasierako industrializazioaren zenbait eremu hirigunerik garrantzitsuenetako hiri-ehunaren barruan geratu dira, hala nola Zornotzan, Elorrion eta, batez ere, Durangon.

Eskualde-egitura honen pribilegiozko kokapenak, bertako azpiegitura-sistema Beasain-Durango iraganbidearen eraikuntzari eta trenbide-sarearen "Y" soluzioa bertatik igarotzeari esker indartu egingo baita, eskualde-egituran lurzoru-eskaintza areagotuko den iguripen handiak sorrarazten ditu.

Gaineratzen den taulan islatzen denaren arabera, Durangaldeko eskualde-egiturak lurzoru kalifikatuko 757 ha ditu eta hauetatik 510 ha okupatuta daude eta 247 ha okupatu gabe.

Okupatu gabeko lurzoruaren erreserbarik handiena Zornotzako udalerrian dago 117 ha (70 ha Boroan), Durangok 48 ha ditu, Abadiñok 13 ha, Iurretak 34 ha eta Berrizek 6 ha. Jarduera ekonomikoetarako lurzorurik ez duten gainerako udalerrietako bakoitzak, Garaik izan ezik, 5 ha inguruko erreserbak ditu.

Eskualde-egiturak 247 ha-ko okupatu gabeko lurzoru kalifikatua duenez gero, erreserba garrantzitsuak ditu eta bertako eskaria asetzeko moduan ez ezik, inguruko eskualdeak arintzeko eremu bihurtzeko moduan ere badago, betiere lurzoruaren kudeaketa egokia egiten bada.

#### **e) Lurzoru-eskariaren aurreikuspenak**



1990-2002 aldian eskualde-egitura honetan okupatutako industria-lurzoruaren gehikuntza 125/150 ha ingurukoa izan da. Horrek urteko 10 ha-ko hazkunde-eritmoa dakar.

16 urteko horizontean jarduera ekonomikoetarako lurzuaren etorkizuneko eskari hipotetikoa estaltzeko, eskualde-egitura honetan, hipotesi baikorrenean, hazkunde-eritmo iraunkor hori bereganatzeko gai izango den lurzoru-eskaintza aurreikustea komeni da.

**DURANGALDEKO**  
**ESKUALDE-EGITURA**

**JARDUERA EKONOMIKOETARAKO LURZORUA**  
**OKUPATUA, LIBREA ETA GUZTIZKOA AZPIESKUALDE ETA UDALERRIEN ARABERA 2003AN**

AZPIESKUALDEA / UDALERRIA	JARDUERA EKONOMIKOETARAKO LURZORUA (Azalera ha-tan)		
	OKUPATUA	LIBREA	GUZTIRA
ABADIÑO	99,53	12,75	112,28
AMOREBIETA-ETXANO	177,73	117,06	294,79
ATXONDO	19,41	7,20	26,61
BERRIZ	36,93	6,32	43,25
DURANGO	41,53	48,60	90,13
ELORRIO	46,48	7,44	53,92
GARAI	-	-	0,00
IURRETA	52,21	34,30	86,51
IZURTZA	13,57	8,00	21,57
MAÑARIA	1,63	4,17	5,80
ZALDIBAR	20,64	1,30	21,94
<b>DURANGALDEKO EE GUZTIRA</b>	<b>509,66</b>	<b>247,14</b>	<b>756,80</b>

\* 2003-12-31n eguneratuta. Udalplan 2004

**BIZTANLERIA GUZTIRA, BIGARREN SEKTOREAN LAN EGITEN DUEN BIZTANLERIA**  
**ETA JARDUERA EKONOMIKOETARAKO LURZORUA BEHAR DUTEN ENPLEGUEN KOPURUA**  
**AZPIESKUALDE ETA UDALERRIEN ARABERA 2000N**

AZPIESKUALDEA / UDALERRIA	BIZTANLERIA GUZTIRA (Biztanle-kop.)	BIZTANLERIA LANEAN BIGARREN SEKTOREAN (Lan eg. kop.)	ENPLEGU-KOP. JARD. EKON. LURZORUAN (Enplegu-kop.)
	ABADIÑO	6.820	1.728
AMOREBIETA-ETXANO	16.207	3.301	2.816
ATXONDO	1.488	357	621
BERRIZ	4.113	987	1.544
DURANGO	24.260	4.753	3.048
ELORRIO	7.233	1.745	3.014
GARAI	240	41	1
IURRETA	4.420	941	961
IZURTZA	273	52	374
MAÑARIA	476	118	181
ZALDIBAR	2.944	811	1.174
<b>DURANGALDEKO EE GUZTIRA</b>	<b>68.474</b>	<b>14.834</b>	<b>17.675</b>

**DURANGALDEKO**  
**ESKUALDE-EGITURA**

**LURZORU KALIFIKATUAREN ERRESERBA-INDIZEA, BIGARREN SEKTOREKO AUTOENPLEGUARENA**  
**ETA BIGARREN SEKTOREKO ENPLEGU-DENTSIKAZIOARENA AZPIESKUALDE ETA UDALERRIEN ARABERA 2003AN**

AZPIESKUALDEA / UDALERRIA	LURZORU LIBREAREN ERRESERBA-INDIZEA	BIGARREN SEKTOREKO AUTOENPLEGU-INDIZEA	BIGARREN SEKTOREKO ENPLEGUAREN DENTSIKAZIO-INDIZEA
	AZAL. LURZORU KALIF. LIBREA AZAL. LURZORU KALIF. GUZTIRA	BIG. SEK. ENPLEGUA BIZ. OKUP. BIG. SEK.	BIG. SEK. ENPLEGUA LURZORU OKUP. J. E. (enplegu/ha)
ABADIÑO	0,11	2,28	79,57
AMOREBIETA-ETXANO	0,40	0,85	15,84
ATXONDO	0,27	1,74	31,99
BERRIZ	0,15	1,56	41,81
DURANGO	0,54	0,64	73,39
ELORRIO	0,14	1,73	64,85
GARAI	-	0,02	-
IURRETA	0,40	1,02	18,41
IZURTZA	0,37	7,19	33,79
MAÑARIA	0,72	1,53	111,04
ZALDIBAR	0,06	1,45	56,88
<b>DURANGALDEKO EE GUZTIRA</b>	<b>0,33</b>	<b>1,19</b>	<b>34,68</b>

### 3.2.7.- ENKARTAZIOETAKO ESKUALDE-EGITURA

#### a) Esparru fisikoa

Enkartazioko eskualdeak Kantabriako probintziarekin egiten du muga Iparraldean eta Mendebaldean eta Burgosko probintziarekin eta Arabako Lurralde Historikoarekin Hegoaldean. Eskualde honen barruan Kantabriakoa den Turtziozko enklabea dago.

Eskualde-egituraren barruan, hiru haran nagusi hauek ditugu: Karrantzakoa Mendebaldean, mehatze-eremua edo Somorrostroko haranaren goialdea zentroan eta Kadaguako harana Hego-ekialdean.

Bertako erliebea oso gorabeheratsua da eta IM-HE norabidea duten mendilerroez inguratutako sakonuneak sortzen dira. Oso urriak dira ibarreko eremu lauak, lehen bi eremuetan batik bat.

Enkartazioetako eskualde-egiturak 4.311 m<sup>2</sup>-ko azalera du, hau da, Bizkaiko Lurralde Historikoaren bosten bat eta Euskal Autonomia Erkidegoaren %6,1.

#### b) Hiri-egitura eta jarduera ekonomikoa

Eskualdeak 29.600 biztanle ditu (Euskal Autonomia Erkidegoaren biztanleria osoaren %1,4) eta ondoko udalerriak barne hartzen dira bertan: Lanestosa, Karrantza, Turtzioz, Artzentales, Sopuerta, Galdames, Guenes, Gordexola, Zalla eta Balmaseda.

Eskualde honetako udalerrri bat bera ere ez da 10.000 biztanlera iristen eta hauetako erdiak baino gehiagok 2.000 biztanle baino gutxiago du.

Biztanleria oso modu irregularrean banatzen da eskualdean, Kadagua ibaiaren haranak biltzen ditu biztanle gehien, guztizko biztanleriaren %75 bizi da bertan eta biztanleria hau Balmaseda, Zalla eta Sodupen (Guenesen) biltzen da nagusiki.

Eskualdeko hirigune nagusia tradizioz Balmaseda izan den arren, eskualdearen ertz batean egotearen ondorioz eta Bilbok duen nagusitasunaren eraginez, bertan behera joan dira bere funtzioak. Gainera, Sodupe (Guenes) eta Aranguren (Zalla) herriguneen inguruan garatu den industria-jarduerak auzitan jartzen du Balmasedaren nagusitasuna, aipatutako udalerrri hauek nabarmen egin baitute gora.

Honela banatzen da jarduera ekonomikoa sektoreen arabera: %12 lehen sektorea, %36 bigarren sektorea eta %52 hirugarren sektorea. Nabarmendu behar da eskualde-egitura honetan lehen sektoreak Euskal Autonomia Erkidegoko batezbestekoarekin alderatuta duen garrantzia. Izatez, Karrantzako harana nekazaritza eta abeltzaintzako ustiapenera bideratzen da. Bigarren sektoreak gainbehera nabarmena bizi du papergintzaren sektorearen eta Balmasedako industriaren birmoldaketaren eraginez. Eskualde honetan bigarren sektoreko okupazioa/enplegua erlazioak saldo negatiboa du. Azken hamarkada honetan defizit hau 1.300 industria-enplegutik 2.000 industria-enplegura gehitu da.

Laburbilduz, eskualde honetako biztanleriaren hazkundearen indizeak eta enpleguaren galeraren indizeak oso urteko tasa metatu negatiboak azaltzen dituzte, Euskal Autonomia Erkidego osoarekiko, eta, gainera, eskariaren joerak kontuan hartuta hazteko aukera urriak dituen industria-espezializazioa nagusi da bertan. Administrazioak

esku-hartzen ez badu, bertako ekonomia gelditze-egoeran geratzea aurreikus daiteke, etorkizunean biztanleriaren galera handiagoarekin.

**c) Komunikabide-sarea**

Komunikabide ardatza Bilbo eta Balmaseda arteko BI-636 errepideak eta Balmaseda eta Karrantza arteko BI-630 errepideak osatzen dute. Lehen errepidean Sodupe, Aranguren eta Zallako udalerrriak daude.

Eskualdearen industriaren etorkizunak nahitaez behar du Kadaguako iraganbidea errepidea (BI-636) erabat bide azkar bihurtzea. Sodupe-Balmaseda tartea egin ondoren Sodupe-Castrejana tartea falta da.

Bilbo-Santander eta Bilbo-Leon trenbideek bat egiten dute Kadaguako iraganbidean zehar Zallaraino eta lehen trenbidearen adar bat Balmasedaraino luzatzen da.

**d) Lurzoru-erreserbak eta industria-problematika**

Enkartazioko eskualde-egituraren gaur egungo egoera hainbat arrazoiren ondorio da: garapen-ardatz nagusiez kanpo geratu da, biztanleria txikia du eta sakabanatu samartuta dago, bide-azpiegitura zaharkitua eta zaila du, hirigune nagusia (Balmaseda) txikia da eta eskualdearen bazter batean dago.

Bere jarduera-zentroek ixte-arazoari egin behar diote aurre eta industriaren gainbehera nabarmena da.

Gaineratzen den taularen arabera Enkartazioko eskualde-egiturak 164 ha ditu kalifikatuta, hauetatik 85 ha okupatuta daude eta 79 ha okupatu gabe daude.

Lurzoru-erreserba nagusiak Guenesen (23 ha) daude. Balmasedan (22 ha) eta Zallan (14 ha) aurreikusitako erreserbak ez dira hain erakargarriak.

**e) Lurzoru-eskariaren aurreikuspenak**

1990-2002 aldian eskualde-egitura honetan okupatutako industria-lurzoruaren gehikuntza 35 ha ingurukoa izan da. Horrek urteko 3 ha-ko hazkunde-eritmoa dakar.

16 urteko horizontean jarduera ekonomikoetarako lurzoruaren etorkizuneko eskari hipotetikoa estaltzeko, eskualde-egitura honetan hazkunde-eritmo horri gutxienez eusteko gai izango den lurzoru-eskaintza aurreikustea komeni da. Jakina, jarduera ekonomikoa suspertzeko politika bereziak aurreikusiz gero, horiei erantzun ahal izateko erreserba osagarriak programatzea komeniko da.

**ENKARTAZIOETAKO  
ESKUALDE-EGITURA**

**JARDUERA EKONOMIKOETARAKO LURZORUA  
OKUPATUA, LIBREA ETA GUZTIZKOA AZPIESKUALDE ETA UDALERRIEN ARABERA 2003AN**

AZPIESKUALDEA / UDALERRIA	JARDUERA EKONOMIKOETARAKO LURZORUA (Azalera ha-tan)		
	OKUPATUA	LIBREA	GUZTIRA
ARTZENTALES	-	-	-
BALMASEDA	18,30	22,20	40,50
KARRANTZA	5,01	2,58	7,59
GALDAMES	12,30	2,30	14,60
GORDEXOLA	-	7,42	7,42
GUENES	23,67	23,11	46,78
LANESTOSA	-	-	-
SOPUERTA	2,91	3,96	6,87
TURTIZIOZ	-	3,00	3,00
ZALLA	23,27	14,10	37,37
<b>GUZTIRA</b>			
<b>ENKARTAZIOETAKO EE</b>	<b>85,46</b>	<b>78,67</b>	<b>164,13</b>

\* 2003-12-31n eguneratuta. Udalplan 2004

**BIZTANLERIA GUZTIRA, BIGARREN SEKTOREAN LAN EGITEN DUEN BIZTANLERIA  
ETA JARDUERA EKONOMIKOETARAKO LURZORUA BEHAR DUTEN ENPLEGUEN KOPURUA  
AZPIESKUALDE ETA UDALERRIEN ARABERA 2000N**

AZPIESKUALDEA / UDALERRIA	BIZTANLERIA GUZTIRA (Biztanle-kop.)	BIZTANLERIA LANEAN BIGARREN SEKTOREAN (Lan eg. kop.)	ENPLEGU-KOP. JARD. EKON. LURZORUAN (Enplegu-kop.)
	ARTZENTALES	644	63
BALMASEDA	7.106	970	462
KARRANTZA	3.081	244	124
GALDAMES	780	126	20
GORDEXOLA	1.463	149	94
GUENES	5.870	734	200
LANESTOSA	296	20	4
SOPUERTA	2.271	268	101
TURTIZIOZ	530	57	17
ZALLA	7.582	1.078	731
<b>GUZTIRA</b>			
<b>ENKARTAZIOETAKO EE</b>	<b>29.623</b>	<b>3.709</b>	<b>1.775</b>

**ENKARTAZIOETAKO**  
**ESKUALDE-EGITURA**

**LURZORU KALIFIKATUAREN ERRESERBA-INDIZEA, BIGARREN SEKTOREKO AUTOENPLEGUARENA**  
**ETA BIGARREN SEKTOREKO ENPLEGU-DENTSIKAZIOARENA AZPIESKUALDE ETA UDALERRIEN ARABERA 2003AN**

AZPIESKUALDEA / UDALERRIA	LURZORU LIBREAREN ERRESERBA-INDIZEA	BIGARREN SEKTOREKO AUTOENPLEGU-INDIZEA	BIGARREN SEKTOREKO ENPLEGUAREN DENTSIKAZIO-INDIZEA
	AZAL. LURZORU KALIF. LIBREA AZAL. LURZORU KALIF. GUZTIRA	BIG. SEK. ENPLEGUA BIZ. OKUP. BIG. SEK.	BIG. SEK. ENPLEGUA LURZORU OKUP. J. E. (enplegu/ha)
ARTZENTALES	-	0,35	-
BALMASEDA	0,55	0,48	38,82
KARRANTZA	0,34	0,51	24,75
GALDAMES	0,16	0,16	1,63
GORDEXOLA	1,00	0,63	42,34
GUENES	0,49	0,27	9,39
LANESTOSA	-	0,20	-
SOPUERTA	0,58	0,38	34,70
TURTZIOZ	-	0,30	-
ZALLA	0,38	0,68	36,98
<b>ENKARTAZIOETAKO EE GUZTIRA</b>	<b>0,48</b>	<b>0,48</b>	<b>20,77</b>

### 3.2.8.- BUSTURIALDEA-ARTIBAICO ESKUALDE-EGITURA

#### a) Esparru fisikoa

Busturialdea-Artibaiko eskualde-egiturak ondoko mugak ditu: Iparraldean, itsasoa Matxitxako lurmuturraren eta Artibai ibaiaren bokalearen artean; Ekialdean, Gipuzkoako Lurralde Historikoa; Hegoaldean, Durangaldea; eta Mendebaldean Mungiako azpieskualde-egitura. Busturialdea-Artibaiko eskualde-egiturak 507,1 km<sup>2</sup>-ko azalera du eta Euskal Autonomia Erkidegoaren lurraldearen %7,1 hartzen du. Bi azpieskualde ditu: Urdaibai eta Lea-Artibai.

- Urdaibaiko azpieskualdea

Bizkaiko erdialdeko ekialdean kokatzen den eremu honek oso erliebe gorabeheratsua du, Gernikako itsasadarraren inguruko aldean izan ezik. Azpieskualde honen hegoaldean Bizkargi eta Oiz mendiguneek azpieskualde honen eta Durangaldeko eskualde-egituraren arteko muga egiten dute. Oka ibaia eta bere bokalean sortzen den Gernikako itsasadarra dira azpieskualde honetako ardatza, ibai-sistemari dagokionez.

Ibai honen urbazterretan azpieskualde honetako ibar-eremuak daude. Azpieskualde honetan hiru alde bereiz daitezke: kostaldea (Bermeo, Mundaka, Sukarrieta, Ibarangelu, Elantxobe eta Eako udalerriek osatua), itsasadarraren urbazterrak (Busturia, Murueta, Forua, Gautegiz-Arteaga eta Gernika) eta barnealdea (Morga, Errigoiti, Muxika, Mendata, Ajangiz, Arratzu, Kortezubi, Nabarriz eta Ereño).

Eskualdeak 303,5 km<sup>2</sup>-ko azalera du eta Euskal Autonomia Erkidegoaren lurraldearen %4,2 hartzen du.

- Lea-Artibaiko azpieskualdea

Busturialdea-Artibaiko eskualde-egituraren ekialdeko zatian kokatzen den azpieskualde honek Ekialdean Gipuzkoako Lurralde Historikoarekin eta Hegoaldean Debabarreneko eskualde-egituraren barruan dauden Ermua eta Mallabiko udalerriekin egiten du muga. Oso erliebe gorabeheratsua du.

Markinan eta azpieskualdea luzera zeharkatzen duen Artibai ibaiaren ibarretan azaltzen dira azpieskualde honetan dauden eremu lau urriak.

Lea ibaiaren ibilbidearen inguruko esparrua eremu bereizia da eta ondoko udalerriek osatzen dute: Lekeitio, Mendexa, Ipazter, Amoroto, Gizaburuaga, Aulesti eta Munitibar.

Eskualdeak 203,6 km<sup>2</sup>-ko azalera du eta Euskal Autonomia Erkidegoaren lurraldearen %2,9 hartzen du.

#### b) Hiri-egitura eta jarduera ekonomikoa

Eskualde-egitura honek 70.800 biztanle inguru ditu, hau da, Euskal Autonomia Erkidego osoko biztanleriaren %3,4.



Nabarmendu behar da lehen sektoreak pisu erlatibo handia duela Euskal Autonomia Erkidegoko batezbestekoarekin alderatuz gero. Honetan eskualde-egiturako biztanle gehien dituzten lau udalerritako hirutan (Bermeo, Ondarroa eta Lekeitio) arrantza-sektoreak duen garrantziak eta gainerako udalerrri gehienek duten landa-izaerak eragin handia izan du.

- Urdaibaiko azpieskualdea

Bermeo, Mundaka, Sukarrieta, Busturia, Murueta, Forua, Gernika, Ajangiz, Arratzu, Kortezubi, Nabarriz, Errigoitia, Morga, Muxika, Mendata, Gautegiz-Arteaga, Ibarrangelu, Elantxobe, Ea eta Ereñoko udalerriek osatzen duten azpieskualde hau. 44.900 biztanle inguru ditu, hau da, Euskal Autonomia Erkidego osoko biztanleriaren %2,2.

Bi udalerririk baino ez dute nolabaiteko pisu demografikoa, Bermeok (17.000 biztanle) eta Gernika-Lumok (15.500 biztanle). 15 udalerririk, berriz, 1.000 biztanle baino gutxiago dituzte.

Komunikabide-sare konplexu eta nahasiaren ondorioz eta hirugarren sektorean dituen mugen eraginez Gernikak ez du lurraldearen osotasunean izan behar zuen eragina lortu. Hori dela-eta, Bermeok bere hurbileko ingurunea erakartzen du eta Gernikarekiko nolabaiteko isolamenduari eusten dio.

Azpieskualde honek industriaren ikuspegitik duen dinamismo urriaren arrazoia oinarritzko komunikabide-saretik kanpo egotean datza. Gainera, kostaldeko herriek joera turistikoa eta bizitoki-joera argia dute, barneko komunikabideen sarea oso nahasia eta desegokia da -batez ere industria-garraiako- eta sakabanatuta dauden udalerrri gehienek landa-izaera dute. Honek guztiak eraginda, bertan dagoen industria-jardueraren eskari bakarra eskualde-egituraren endogenoa baino ez da.

Eskari endogeno honi erantzun behar zaio eta eskaintza gune jakin batzuetan metatu behar da, gehiegizko sakabanatzea saihestearren. Izatez, gehiegizko sakabanatzeak ez ditu udalerrri txikien garapen-arazoak ebatzen eta, aitzitik, lurraldearen degradazioa eragiten du.

Azpieskualdeko herri gehienek landa-izaera dute eta hori nabarmen ikus dezakegu produkzio-egituran: lehen sektorea %16, bigarren sektorea %38 eta hirugarren sektorea %46. Nabarmendu behar da, beraz, lehen sektoreak, hau da, nekazaritza eta arrantzako jarduerak duten pisu handia.

Era berean, komeni da kostaldeko udalerrri gehienek duten izaera turistikoa eta bizitoki-izaera nabarmentzea.

Bigarren sektorea Gernikan eta Bermeon baino ez da esanguratsua.

Azpieskualdeak 1.850 industria-enpleguko saldo negatiboa du bigarren sektorean.

- Lea-Artibaiko azpieskualdea

Ondarroa, Berriatu, Markina-Xemein, Etxebarri, Lekeitio, Ipazter, Mendexa, Gizaburuaga, Amoroto, Aulesti eta Munitibarko udalerriek osatzen dute

azpieskualde hau. 26.000 biztanle inguru ditu, hau da, Euskal Autonomia Erkidego osoko biztanleriaren %1,2 hartzen du.

Biztanleria Lekeitio (7.400 biz.), Ondarroa (10.100 biz.) eta Markina-Xemeingo (4.700 biz.) udalerrietan metatzen da. Gainerakoan hiri-egitura sakabanatuta dago.

Ondokoa da azpieskualdearen produkzio-egitura: lehen sektoreak enpleguaren %21 hartzen du, bigarren sektoreak %39 eta hirugarren sektoreak %40.

Urdaibaiko azpieskualdean bezalaxe, produkzio-egituraren alderdirik nabarmenena lehen sektoreko jardueren pisua da. Izan ere, Lekeitiok eta Ondarroak azpieskualdeko biztanleriaren zati handi bat biltzen dute eta herri hauetan garrantzi handikoa da arrantza-sektorea.

Dena den, gainerako udalerrietan industria-sektoreak hartzen du jardueraren zatirik handiena eta udalerrri hauetan oso arrunta da nekazaritzako jarduerak eta industria-jarduerak partekatzen dituen bizimodu mistoa.

Azpieskualdeak 1.150 industria-enpleguren defizita du. Defizit hau Markina, Lekeitio eta Ondarroako udalerrietan metatzen da, Berriatu eta Etxebarriko udalerriek, aitzitik, saldo positiboak dituzte.

### **c) Komunikabide-sarea**

Ondokoak dira eskualde-egitura antolatzen duten komunikabide nagusiak: BI-635 errepidea (Zornotza-Gernika-Bermeo), BI-638 errepidea (Gernika-Lekeitio-Ondarroa) Urdaibaiko azpieskualdean, BI-633 errepidea (Ondarroa-Markina-Durango) eta GI-2.636 errepidea (Markina eta Elgoibar artekoa, Debabarreneko eskualde-egituran).

Zornotza eta Bermeo artean luzatzen den trenbideak sendotu egiten du BI-635 errepideak definitzen duen ardatza, nolana ere trenbide hau ez da errepidean zeharreko trafikorako alternatiba. Komunikabide honek eragozpen larri bat du: Gernikako hirigunea zeharkatzen du.

Gernika eta Ondarroa arteko BI-638 errepideak oso trazadura zahar eta zaila du Lekeitio eta Ondarroa artean eta ez da, beraz, industria-garraiorako alternatiba. Gainera, errepide honek udan kostaldeko udalerrietako hondartzetara joaten diren ehunka pertsonen trafiko handia jasan behar du.

Bermeoko porturako irisgarritasuna hobetzeko etorkizunerako aukera bat Solluben barrena doan BI-631 errepidea eraldatzea eta Mungiako saihebidarekin lotzea izan daiteke.

Markinako inguruetako irteera naturalak Deba, Durango eta Elgoibarrentzat dira eta azken bi hauek Trabakua eta San Migel gaineratik bideratzen direnez gero zailtasun handiak dituzte industria-trafikorako. Trabakuako errepidea hobetzeak eta Markinako saihebidarearen eraikuntzak Durangaldearekiko komunikazioak erraztuko dituzte.

Ondarroako porturako irisgarritasuna oso hobetuko litzateke GI-638 errepidea Deban N-634 errepidearekin bat egiten duen guneraino eraldatuko balitz.

### **d) Lurzoru-erreserbak eta industria-problematika**

Gaineratzen den taulan islatzen denaren arabera hirigintza-kalifikazioa duten lurzoruek, plangintzan aintzat hartzen direnek, 261 ha-ko azalera hartzen dute guztira eskualde-egituran. Hauetatik 190 ha inguru okupatuta daude eta 71 ha inguru libre.

- Urdaibaiko azpieskualdea

Lurzoru kalifikatuko 157 ha ditu eta hauetatik 117 ha okupatuta daude eta 40 ha libre.

Industriako lurzoru-erreserba nagusiak Muxikan (22 ha) daude.

- Lea-Artibaiko azpieskualdea

Lurzoru kalifikatuko 104 ha ditu eta hauetatik 72 okupatuta daude eta 32 ha libre.

Lurzoru libreko erreserba nagusiak Etxebarria eta Ipazterren daude.

Orokorrean eskaintza urria da, kalifikatutako lurzoruak kudeatu gabe daude eta eskualdeak duen irisgarritasun txarraren arazo orokorra dute.

Ondarroak ez du lurzorurik eta hedatzeko aukera bakarra ondoko Mutriku herrirantz bideratu beharko du.

#### **e) Lurzoru-eskariaren aurreikuspenak**

1990-2002 aldian Busturialdea-Artibaiko eskualde-egituran okupatutako industria-lurzoruaren gehikuntza 55 ha ingurukoa izan da: 40 ha Urdaibain eta 15 ha Lea-Artibain. Horrek urteko 4 eta 5 ha arteko batez besteko gehikuntza-eritmoa dakar.

16 urteko horizontean jarduera ekonomikoetarako lurzoruaren etorkizuneko eskari hipotetikoa estaltzeko, Busturialdea-Artibaiko eskualde-egituran hazkunde-eritmo horri gutxienez eusteko gai izango den lurzoru-eskaintza aurreikustea komeni da. Jakina, jarduera ekonomikoa suspertzeko politika bereziak aurreikusiz gero, horiei erantzun ahal izateko erreserba osagarriak programatzea komeniko da.

**BUSTURIALDEA-ARTIBAIKO**  
**ESKUALDE-EGITURA**

**JARDUERA EKONOMIKOETARAKO LURZORUA**  
**OKUPATUA, LIBREA ETA GUZTIZKOA AZPIESKUALDE ETA UDALERRIEN ARABERA 2003AN**

AZPIESKUALDEA / UDALERRIA	JARDUERA EKONOMIKOETARAKO LURZORUA (Azalera ha-tan)		
	OKUPATUA	LIBREA	GUZTIRA
<b>URDAIBAI</b>			
AJANGIZ	8,32	1,50	9,82
ARRATZU	-	-	0,00
BERMEO	25,49	3,93	29,42
BUSTURIA	1,44	1,50	2,94
EA	0,91	-	0,91
ELANTXOBE	-	-	-
EREÑO	-	-	-
ERRIGOITI	0,20	6,35	6,55
FORUA	1,70	-	1,70
GAUTEGIZ-ARTEAGA	-	-	0,00
GERNIKA-LUMO	48,37	4,43	52,80
IBARRANGELU	-	-	-
KORTEZUBI	-	-	-
MENDATA	-	-	-
MORGA	-	-	-
MUNDAKA	16,83	-	16,83
MURUETA	4,29	-	4,29
MUXIKA	9,00	21,89	30,89
NABARNIZ	0,42	-	0,42
SUKARRIETA	-	-	-
GUZTIZKO PARTZIALA			
<b>URDAIBAI</b>	<b>116,97</b>	<b>39,60</b>	<b>156,57</b>
<b>LEA-ARTIBAI</b>			
AMOROTO	3,59	-	3,59
AULESTI	1,82	-	1,82
BERRIATUA	15,62	3,24	18,86
ETXEBARRIA	15,88	8,08	23,96
GIZABURUAGA	5,90	3,15	9,05
IPAFTER	-	9,57	9,57
LEKEITIO	4,00	-	4,00
MARKINA-XEMEIN	14,06	4,90	18,96
MENDEXA	-	-	-
MUNITIBAR-ARBATZEGI-GERRIKAITZ	-	-	-
ONDARROA	11,68	3,00	14,68
GUZTIZKO PARTZIALA			
<b>LEA-ARTIBAI</b>	<b>72,55</b>	<b>31,94</b>	<b>104,49</b>
<b>BUSTURIALDEA-ARTIBAIKO</b>			
<b>EE GUZTIRA</b>	<b>189,52</b>	<b>71,54</b>	<b>261,06</b>

\* 2003-12-31n eguneratuta. Udalplan 2004

**BUSTURIALDEA-ARTIBAICO**  
**ESKUALDE-EGITURA**

**BIZTANLERIA GUZTIRA, BIGARREN SEKTOREAN LAN EGITEN DUEN BIZTANLERIA**  
**ETA JARDUERA EKONOMIKOETARAKO LURZORUA BEHAR DUTEN ENPLEGUEN KOPURUA**  
**AZPIESKUALDE ETA UDALERRIEN ARABERA 2000N**

AZPIESKUALDEA / UDALERRIA	BIZTANLERIA GUZTIRA (Biztanle-kop.)	BIZTANLERIA LANEAN BIGARREN SEKTOREAN (Lan eg. kop.)	ENPLEGU-KOP. JARD. EKON. LURZORUAN (Enplegu-kop.)
<b>URDAIBAI</b>			
AJANGIZ	401	79	501
ARRATZU	390	87	-
BERMEO	16.989	2.223	1.721
BUSTURIA	1.667	283	21
EA	813	70	6
ELANTXOBE	484	21	-
EREÑO	266	47	4
ERRIGOITI	452	78	1
FORUA	979	212	152
GAUTEGIZ ARTEAGA	811	121	22
GERNIKA-LUMO	15.485	2.757	2.040
IBARRANGELU	517	50	9
KORTEZUBI	357	56	-
MENDATA	322	63	12
MORGA	381	68	1
MUNDAKA	1.783	181	49
MURUETA	221	35	152
MUXIKA	1.387	287	252
NABARNIZ	236	40	1
SUKARRIETA	330	42	6
GUZTIZKO PARTZIALA			
<b>URDAIBAI</b>	<b>44.271</b>	<b>6.800</b>	<b>4.950</b>
<b>LEA-ARTIBAI</b>			
AMOROTO	370	99	89
AULESTI	643	168	24
BERRIATUA	955	299	1.046
ETXEBARRIA	793	255	800
GIZABURUAGA	131	35	170
IPAZTER	615	116	128
LEKEITIO	7.466	1.051	254
MARKINA-XEMEIN	4.692	1.190	607
MENDEXA	341	62	24
MUNITIBAR-ARBATZEGI-GERRIKAITZ	394	74	3
ONDARROA	10.114	1.766	805
GUZTIZKO PARTZIALA			
<b>LEA-ARTIBAI</b>	<b>26.514</b>	<b>5.115</b>	<b>3.950</b>
<b>BUSTURIALDEA-ARTIBAICO</b>			
<b>EE GUZTIRA</b>	<b>70.785</b>	<b>11.915</b>	<b>8.900</b>

**BUSTURIALDEA-ARTIBAIKO**  
**ESKUALDE-EGITURA**

**LURZORU KALIFIKATUAREN ERRESERBA-INDIZEA, BIGARREN SEKTOREKO AUTOENPLEGUARENA**  
**ETA BIGARREN SEKTOREKO ENPLEGU-DENTSIFIKAZIOARENA AZPIESKUALDE ETA UDALERRIEN ARABERA 2003AN**

AZPIESKUALDEA / UDALERRIA	LURZORU LIBREAREN ERRESERBA-INDIZEA	BIGARREN SEKTOREKO AUTOENPLEGU-INDIZEA	BIGARREN SEKTOREKO ENPLEGUAREN DENTSIFIKAZIO-INDIZEA
	AZAL. LURZORU KALIF. LIBREA AZAL. LURZORU KALIF. GUZTIRA	BIG. SEK. ENPLEGUA BIZ. OKUP. BIG. SEK.	BIG. SEK. ENPLEGUA LURZORU OKUP. J. E. (enplegu/ha)
<b>URDAIBAI</b>			
AJANGIZ	0,15	6,34	60,22
ARRATZU	-	-	-
BERMEO	0,13	0,77	67,52
BUSTURIA	0,51	0,07	14,58
EA	-	0,09	6,59
ELANTXOBE	-	-	-
EREÑO	-	0,09	-
ERRIGOITI	-	0,01	5,00
FORUA	-	0,72	89,41
GAUTEGIZ ARTEAGA	-	0,18	-
GERNIKA-LUMO	0,08	0,74	42,17
IBARRANGELU	-	0,18	-
KORTEZUBI	-	-	-
MENDATA	-	0,19	-
MORGA	-	0,01	-
MUNDAKA	-	0,27	8,19
MURUETA	-	4,34	35,43
MUXIKA	0,71	0,88	28,00
NABARNIZ	-	0,03	2,38
SUKARRIETA	-	0,14	-
<b>GUZTIZKO PARTZIALA</b>			
<b>URDAIBAI</b>	<b>0,25</b>	<b>0,73</b>	<b>42,32</b>
<b>LEA-ARTIBAI</b>			
AMOROTO	-	0,90	24,79
AULESTI	-	0,14	13,19
BERRIATUA	0,17	3,50	66,97
ETXEBARRIA	0,34	3,14	50,38
GIZABURUAGA	-	4,86	28,81
IPAZTER	1,00	1,10	-
LEKEITIO	-	0,24	63,50
MARKINA-XEMEIN	0,26	0,51	69,53
MENDEXA	-	0,39	-
MUNITIBAR-ARBATZEGI-GERRIKAITZ	-	0,04	-
ONDARROA	0,20	0,46	73,05
<b>GUZTIZKO PARTZIALA</b>			
<b>LEA-ARTIBAI</b>	<b>0,31</b>	<b>0,77</b>	<b>54,45</b>
<b>BUSTURIALDEA-ARTIBAIKO</b>			
<b>EE GUZTIRA</b>	<b>0,27</b>	<b>0,75</b>	<b>46,96</b>

### 3.2.9.- MUNGIAKO ESKUALDE-EGITURA

#### a) Esparru fisikoa

Mungiako eskualde-egituraren lurralde-esparrua, Ekialdean, Sollube eta Mendigana mendiek eta, Hegoaldean, hura Txorierritik bereizten duen mendilerroek mugatzen dute. Mendigune hauen artean Mungiako harana kokatzen da.

Bizkargi mendian, Morga inguruan, jaiotzen den eta Plentziako itsasadarrean itsasoratzen den Butroe ibaia dugu eskualde-egitura honetako ibai-ardatza. Sollube eta Uribe-Aretxabalagako mendigunetik jaisten diren erreka askoren urak jasotzen ditu.

Butroe ibaiaren urbazterretan ibarreko eremu lau ugari dago, batez ere Mungia eta Plentzia artean.

159 km<sup>2</sup>-ko azalera du eta Euskal Autonomia Erkidegoaren lurraldearen %2 hartzen du.

#### b) Hiri-egitura eta jarduera ekonomikoa

Mungiako eskualde-egiturak oso biztanleria urria du; 19.700 biztanle inguru dira, hau da, Euskal Autonomia Erkidego osoko biztanleriaren %0,9 hartzen du.

Ondoko udalerriak barne hartzen ditu: Mungia, Laukiz, Gatika, Maruri, Bakio, Meñaka, Gamiz-Fika, Fruniz eta Arrieta. Mungiaren inguruan biltzen diren landa-izaerako udalerrri txikiak dira. Mungian biztanleriaren %67 biltzen da, baita ia jarduera ekonomikoa guztia ere. Mungiak hazkunde demografiko eta ekonomiko nabarmena bizi du azken aldi honetan, Bilbo Metropolitarrak hedatzearen ondorioz.

Produkzio-egituraren barruan bigarren sektorea da nagusi, enpleguaren %54 hartzen baitu. Hirugarren sektoreak %39 hartzen du eta lehen sektoreak %7. Baso-ustiapenak nolabaiteko garrantzia du landa-izaerako ia udalerrri guztietan.

Okupazioa/enplegua erlazioari dagokionez, eskualde-egitura honek 1.200 industria-enpleguren saldo positiboa du bigarren sektorean, zerbitzu-sektorean, aitzitik, saldo negatiboa du.

Zenbateko hauek aztertuta argi eta garbi antzeman dezakegu arlo honetan bizi den hazkundera hazkunde endogenoa baino gehiago Bilbo Metropolitarrako eskualde-egiturako enpresak lekualdatzearen ondorioz gertatu den hazkundera dela. Zerbitzu-sektorean dagoen saldo negatiboak hipotesi hau berresten du.

Horrenbestez, Mungiako hazkunderak Bilbo Metropolitarraren datozen hamar urteetan gertatzen den bilakaeraren arabera garapena eta, bereziki, enpresek Bilbotik hurbilen dauden eremuetan kokatzeko izango duten aukeraren arabera garapena izango duela aurreikus daiteke.

#### c) Komunikabide-sarea

Ondokoak dira eskualde-egituraren lurraldea antolatzen duten komunikabide-nagusiak: Bilbo eta Bermeo Artebakarra eta Sollube gainetan zehar lotzen dituen BI-631 errepidea, eskualde honetako errepide-ardatz nagusia; Mungiako eskualde-egituraren ekialdea, hau da, Mungia eta Plentzia arteko eremua egituratzen duen BI-2.120 errepidea; eta Busturialdea-Artibaiko eskualde-egiturako Muxika udalerriarekin lotzen duen BI-1.121 errepidea.

Komunikabide-ardatz nagusia, BI-631 errepidea, Mungiako saihesbidearekin osatzen da, Bermeoranzko trazadura hobetzeko lehen fase gisa.

Lurraldearen gainerakoa egituratzen duten maila apalagoko beste errepide batzuk Bermeo eta Plentzia arteko kostaldeko errepidea eta Mungiatik abiatuta eskualde-egitura hau Urduliz, Leioa, Gernika eta Larrabetzuko udalerriekin lotzen duten errepideak ditugu. Errepide hauetan kokatzen dira eskualdeko landa-hirigune nagusiak.

#### **d) Lurzoru-erreserbak**

Jarduera ekonomikoetarako lurzoruari dagokionez eskualde honek duen problematika Bilborekiko hurbiltasunak eragindakoa da. Bilbo Metropolitarran jarduera ekonomikoetarako lurzorurik ez izatearen ondorioz eta lurzoruaren prezio handiek eraginda, eskualde-egitura honetako lurzoruaren gainean garapen endogenoaz guztiz gainera iguripenak sortu dira. Zenbait udalerritan antzematen hasi diren iguripen hauek, gainera, kudeaketa eta kontrolerako gaitasun urria duten landa-udalerrietako lurzoruetan oinarritzen dira. Aurreikus daitekeenez Derio-Mungia iraganbidea bultzatzeak eta Mungiako saihesbidea eraikitzeak Butroe ibaiaren urbazterretan industria-lurzoria kalifikatzeko iguripenak areago ditzake.

Gaineratzen den taulan ikus daitekeenez, Mungiako eskualde-egituraren osotasunean 155 ha lurzoru kalifikatu daude, hauetatik 102 ha okupatuta daude (85 ha Mungiako udalerrian) eta 53 ha libre daude. Lurzoru-erreserba nagusiak Mungiako udalerrian daude (47 ha).

Eskualde-egitura honek, oro har, landa-izaera duenez gero eta eskualde-egitura honetako buru den udalerrian premia endogenoei aurre egiteko (baita Bilboko ingurunekeo enpresaren bat hartzeko ere) behar besteko lurzoru-erreserbak dituen gero, egokia dirudi eskaintza osoa udalerrian honetan metatzeak eta horrela arazorik ebatzi gabe lurraldearen degradazioa baino eragingo ez duten beste kalifikazioak saihestek.

#### **e) Lurzoru-eskariaren aurreikuspenak**

1990-2002 aldian Mungiako eskualde-egituran okupatutako industria-lurzoruaren gehikuntza 20 ha ingurukoa izan da. Horrek urteko 1 eta 2 ha arteko batez besteko hazkunde-eritmoa dakar.

16 urteko horizontean jarduera ekonomikoetarako lurzoruaren etorkizuneko eskari hipotetikoa estaltzeko, Mungiako eskualde-egituran hazkunde-eritmo gutxienez eusteko gai izango den lurzoru-eskaintza aurreikustea komeni da.



**MUNGIAKO**  
**ESKUALDE-EGITURA**

**JARDUERA EKONOMIKOETARAKO LURZORUA**  
**OKUPATUA, LIBREA ETA GUZTIZKOA AZPIESKUALDE ETA UDALERRIEN ARABERA 2003N\***

AZPIESKUALDEA / UDALERRIA	JARDUERA EKONOMIKOETARAKO LURZORUA (Azalera ha-tan)		
	OKUPATUA	LIBREA	GUZTIRA
ARRIETA	-	-	-
BAKIO	2,80	2,64	5,44
FRUIZ	-	-	-
GAMIZ-FIKA	6,44	-	6,44
GATIKA	7,51	3,58	11,09
LAUKIZ	-	-	-
MARURI	-	-	-
MEÑAKA	0,46	-	0,46
MUNGIA	84,94	46,54	131,48
<b>MUNGIAKO</b>			
<b>EE GUZTIRA</b>	<b>102,15</b>	<b>52,76</b>	<b>154,91</b>

\* 2003-12-31n eguneratuta. Udalplan 2004

**BIZTANLERIA GUZTIRA, BIGARREN SEKTOREAN LAN EGITEN DUEN BIZTANLERIA**  
**ETA JARDUERA EKONOMIKOETARAKO LURZORUA BEHAR DUTEN ENPLEGUEN KOPURUA**  
**AZPIESKUALDE ETA UDALERRIEN ARABERA 2000N**

AZPIESKUALDEA / UDALERRIA	BIZTANLERIA	BIZTANLERIA	ENPLEGU-KOP.
	GUZTIRA (Biztanle-kop.)	LANEAN BIGARREN SEKTOREAN (Lan eg. kop.)	JARD. EKON. LURZORUAN (Enplegu-kop.)
ARRIETA	472	58	7
BAKIO	1.490	179	18
FRUIZ	314	42	9
GAMIZ-FIKA	1.022	162	29
GATIKA	1.177	187	164
LAUKIZ	919	121	20
MARURI	582	86	14
MEÑAKA	476	89	9
MUNGIA	13.216	2.256	4.105
<b>MUNGIAKO</b>			
<b>EE GUZTIRA</b>	<b>19.668</b>	<b>3.180</b>	<b>4.375</b>

**MUNGIAKO**  
**ESKUALDE-EGITURA**

**LURZORU KALIFIKATUAREN ERRESERBA-INDIZEA, BIGARREN SEKTOREKO AUTOENPLEGUARENA  
ETA BIGARREN SEKTOREKO ENPLEGU-DENTSIKAZIOARENA AZPIESKUALDE ETA UDALERRIEN ARABERA 2003AN**

AZPIESKUALDEA / UDALERRIA	LURZORU LIBREAREN ERRESERBA-INDIZEA	BIGARREN SEKTOREKO AUTOENPLEGU-INDIZEA	BIGARREN SEKTOREKO ENPLEGUAREN DENTSIKAZIO-INDIZEA
	AZAL. LURZORU KALIF. LIBREA AZAL. LURZORU KALIF. GUZTIRA	BIG. SEK. ENPLEGUA BIZ. OKUP. BIG. SEK.	BIG. SEK. ENPLEGUA LURZORU OKUP. J. E. (enplegu/ha)
ARRIETA	-	0,12	-
BAKIO	0,49	0,10	6,43
FRUIZ	-	0,21	-
GAMIZ-FIKA	-	0,18	4,50
GATIKA	0,32	0,88	20,22
LAUKIZ	-	0,17	-
MARURI	-	0,16	-
MEÑAKA	-	0,10	19,57
MUNGIA	0,35	1,82	47,35
<b>MUNGIAKO EE GUZTIRA</b>	<b>0,34</b>	<b>1,38</b>	<b>42,83</b>

### 3.2.10.- DEBAGOIENeko ESKUALDE-EGITURA

#### a) **Esparru fisikoa**

Deba ibaiaren goi-ibilbidea, Soralezetik gora. Ondoko mugak ditu: Iparraldean Debabarreneko eskualde-egitura; Ekialdean, Goierriko eskualde-egitura; Hegoaldean, Araba Erdialdeko eskualde-egitura; eta Mendebaldean, Durangaldeko eskualde-egitura.

418,8 km<sup>2</sup>-ko azalera du eta Euskal Autonomia Erkidegoaren lurraldearen %5,9 hartzen du.

Topografia gorabeheratsuko lurralde honek mendigune handien (Aizkorri, Urkila, Arantzazu, Elgea, Udalaiz) eta alboetako haranen artean behera egiten duen Deba ibaiaren ibilbidea du oinarri.

Deba ibaiaren goi-ibilbideko haranaren zabalguene nagusiak ia agortuta daude hiri-garapenaren ondorioz (Bergara eta Arrasate). Espazio-erreserba nagusienak Oñati, Garagartza eta Uberako alboetako haranetan eta Aretxabaletako Urkulu urtegiaren goi-eremuetan daude.

#### b) **Hiri-egitura eta jarduera ekonomikoa**

Debagoieneko eskualde-egituran ondoko udalerriak barne hartzen dira: Bergara, Elgeta, Antzuola, Oñati, Arrasate, Aretxabaleta, Eskoriatza eta Leintz-Gatzaga Gipuzkoako Lurralde Historikoan eta Aramaio Arabako Lurralde Historikoan.

Eskualde-egitura honek 64.500 biztanle inguru ditu guztira, hau da, Euskal Autonomia Erkidego osoko biztanleriaren %31.

Eskualdearen hiri-egitura bi hiriguneren inguruan antolatzen da: Bergara -Elgeta eta Antzuolako udalerriak ere biltzen dituen- eta Arrasate -Aretxabaleta, Eskoriatza, Leintz-Gatzaga eta Aramaio biltzen dituen-. Oñati tartekoa suertatzen da.

Produktzio-egituran, bestalde, nabarmen nagusitzen da industria-sektorea (%59) eta hirugarren sektoreko jarduerak pisu erlatibo txikia dute (%40).

Industriari dagokionez jarduera-indizerik handiena metal-eraldatuen sektoreari dagokio ia eskualde-egiturako enpleguen %50 hartzen baitu.

Eskualde-egiturako jarduera tradizionala oinarritzko metal-lanetan eta metal-eraldatuetan oinarritzen da (Unión Cerrajera, Altos Hornos de Bergara, Juan de Garay, Ederlan eta abar).

Deba Goienerako eskualdearen errealitate ekonomikoan eta soziologikoan funtsezkoa izan den kooperatiben mugimenduaren ekimenaren ondorioz jarduera-esparru berriak jorratu dira bertan: etxeko tresna elektrikoak (Fagor, Mayc), elektronika (Arrasate, Copreci), eraikuntza (Ulma), merkataritza (Eroski) Hauek guztiek guztiz bultzatu dute jarduera ekonomikoaren aniztasuna.

#### c) **Komunikabide-sarea**

Debagoieneko eskualde-egitura antolatzen duen komunikabide-ardatza GI-627 errepidea da. Errepide honek eskualde osoa zeharkatzen du, Maltzaga eta Leintz-Gatzaga artean, Arlaban mendatea igaro eta Arabarekin lotzeko.

Deba ibaiarekiko paralelo doan ardatz honetan daude bizitoki eta industrien garapen nagusiak; izatez, komunikabide honetan Bergara, Arrasate, Aretxabaleta, Eskoriatza eta Leintz-Gatzaga udalerriak daude. Duela gutxi errepide honek zeharkatzen zituen hirigune nagusietan saihezbideak eraiki dira eta horrela nabarmen hobetu da bide-ardatz hau.

Eskualde-egitura honetan, ordea, bada beste komunikabiderik: eskualdea Ekialdetik Mendebaldera zeharkatzen duen GI-632 errepidea, Antzuola, Bergara eta Epelen barrena Goierri eta Durangaldea lotzen dituen alegia; GI-2630 errepidea (San Prudentzio-Oñati-Legazpi) eta GI-2620 errepidea (Aramaio-Legutio).

GI-632 errepidea pixkanaka-pixkanaka indartu egingo da; izatez, Errepide Planak Beasain eta Durango arteko lotura lehentasunezko ibilbidetzat hartu du eta bertan Deskarga eta Kanpazar gainetan tunelak eraikitzea aurreikusi da.

Errepide-bilbe honi eraikitzen ari den Eibar-Gasteiz autobidea gaineratuko zaio eta autobide honek guztiz erraztuko du eskualde-egitura honen eta kanpoaldearen arteko hurbilerraztasuna.

#### **d) Lurzoru-erreserbak eta industria-problematika**

Gaineratzen den taulan islatzen denaren arabera Debagoieneko eskualde-egituraren jarduera ekonomikoetarako hirigintza-kalifikazioa duten lurzoruek guztira 578 ha hartzen dute, hauetatik 404 ha lurzoru okupatuak dira eta 174 ha lurzoru librea da.

Lurzoru kalifikatu eta okupatu gabeko 174 ha egoteak ez du esanahi dagoeneko erabiltzeko moduan daudenik. Hauen artean eskaintza errealtzat hartu ezin diren lurzoruak daude eta horretan ezaugarri topografikoek, irisgarritasun-baldintzek edo kudeaketa-arazoek du eragina. Hortaz, eskaintza erreala 135 ha ingurukoa da.

Eskualdearen erreserben zati handiena Arrasaten (90 ha) biltzen da. Bertan, hiri-plangintzaren arabera, Garagarza haranaren alboko hegalean garapen intentsiboa eta Arlaban mendatean poligono berriak sustatzea aurreikusten da. Garagarzaren garapen handiaren aurreikuspenak betetzeko, haranerako bide-irisgarritasuna ebatzi beharko da nolana ere.

Antzuolan, bideragarritasun tekniko eta ekonomiko zalantzarikoko poligono bat programatu da.

Oñatin lurzoruen eskaintza oso sakabanatuta dago haranean zehar, industria-ekarpenen gehiegizko sakabanaketa bultzatu duen politikaren ondorioz. Haranaren antolamendu integratua bultzatzen da, hala espazio-unitate handi bat gauzatzearen.

Aretxabaletan lurzoru librea udalerriaren Iparraldeko sARBIDEAN dago, eta Eskoriatzan Leintz-Gatzagaranzko irtenbidean.

Horrenbestez, aditzera eman daiteke aurreikusitako lurzoruek zailtasun handiak ematen dituztela eskualde-egituraren osotasunean jarduera ekonomikoetarako esparru

berriak jasotzeko ahal izateko. Hori dela-eta, espazio-baliabideak neurtzeko hirigintza-politika bultzatzen da.

**e) Lurzoru-eskariaren aurreikuspenak**

1990-2002 aldian Debagoieneko eskualde-egituran okupatutako industria-lurzoruaren gehikuntza 70 ha ingurukoa izan da. Horrek urteko 5 eta 6 ha arteko batez besteko hazkunde-erritmoa dakar.

16 urteko horizontean jarduera ekonomikoetarako lurzuaren etorkizuneko eskari hipotetikoa estaltzeko, Debagoieneko eskualde-egituran hazkunde-erritmo iraunkor hori bereganatzeko gai izango den lurzoru-eskaintza aurreikustea komeni da.

Proiekzio hauei Arrasaten aurreikusitako jarduera ekonomikoa berritzaileen enpresa-elkartegia ezartzeko beharrezko lurzoru-baliabideak gaineratu beharko zaizkio.

**DEBAGOIENEO**  
**ESKUALDE-EGITURA**

**JARDUERA EKONOMIKOETARAKO LURZORUA**  
**OKUPATUA, LIBREA ETA GUZTIZKOA AZPIESKUALDE ETA UDALERRIEN ARABERA 2003N\***

AZPIESKUALDEA / UDALERRIA	JARDUERA EKONOMIKOETARAKO LURZORUA (Azalera ha-tan)		
	OKUPATUA	LIBREA	GUZTIRA
ANTZUOLA	6,78	31,45	38,23
ARAMAIO	-	1,62	1,62
ARETXABALETA	23,68	9,50	33,18
ARRASATE	140,12	90,31	230,43
BERGARA	129,18	5,25	134,43
ELGETA	12,78	10,80	23,58
ESKORATZA	18,94	13,25	32,19
LEINTZ-GATZAGA	-	-	-
OÑATI	73,12	11,62	84,74
<b>DEBAGOIENEO</b>			
<b>EE GUZTIRA</b>	<b>404,60</b>	<b>173,80</b>	<b>578,40</b>

\* 2003-12-31n eguneratuta. Udalplan 2004

**DEBAGOIENeko**  
**ESKUALDE-EGITURA**

**BIZTANLERIA GUZTIRA, BIGARREN SEKTOREAN LAN EGITEN DUEN BIZTANLERIA**  
**ETA JARDUERA EKONOMIKOETARAKO LURZORUA BEHAR DUTEN ENPLEGUEN KOPURUA**  
**AZPIESKUALDE ETA UDALERRIEN ARABERA 2000N**

AZPIESKUALDEA / UDALERRIA	BIZTANLERIA GUZTIRA (Biztanle-kop.)	BIZTANLERIA LANEAN BIGARREN SEKTOREAN (Lan eg. kop.)	ENPLEGU-KOP. JARD. EKON. LURZORUAN (Enplegu-kop.)
ANTZUOLA	1.920	600	753
ARAMAIO	158	379	97
ARETXABALETA	5.975	1.866	2.054
ARRASATE	24.185	6.703	8.636
BERGARA	15.141	3.884	4.044
ELGETA	984	241	475
ESKORATZA	3.987	1.240	1.775
LEINTZ-GATZAGA	254	70	2
OÑATI	10.634	2.713	3.539
<b>DEBAGOIENeko</b>			
<b>EE GUZTIRA</b>	<b>63.238</b>	<b>17.696</b>	<b>21.375</b>

**LURZORU KALIFIKATUAREN ERRESERBA-INDIZEA, BIGARREN SEKTOREKO AUTOENPLEGUARENA**  
**ETA BIGARREN SEKTOREKO ENPLEGU-DENTSIKAZIOARENA AZPIESKUALDE ETA UDALERRIEN ARABERA 2003AN**

AZPIESKUALDEA / UDALERRIA	LURZORU LIBREAREN ERRESERBA-INDIZEA	BIGARREN SEKTOREKO AUTOENPLEGU-INDIZEA	BIGARREN SEKTOREKO ENPLEGUAREN DENTSIKAZIO-INDIZEA
	AZAL. LURZORU KALIF. LIBREA AZAL. LURZORU KALIF. GUZTIRA	BIG. SEK. ENPLEGUA BIZ. OKUP. BIG. SEK.	BIG. SEK. ENPLEGUA LURZORU OKUP. J. E. (enplegu/ha)
ANTZUOLA	0,82	1,26	111,06
ARAMAIO	1,00	0,26	-
ARETXABALETA	0,29	1,10	86,74
ARRASATE	0,39	1,29	61,63
BERGARA	0,04	1,04	31,30
ELGETA	0,46	1,97	37,17
ESKORATZA	0,41	1,43	93,72
LEINTZ-GATZAGA	-	0,03	-
OÑATI	0,14	1,30	48,40
<b>DEBAGOIENeko</b>			
<b>EE GUZTIRA</b>	<b>0,30</b>	<b>1,21</b>	<b>52,83</b>

### 3.2.11.- DEBABARRENEKO ESKUALDE-EGITURA

#### a) Esparru fisikoa

Gipuzkoako eta Bizkaiko Lurralde Historikoetako lurraldeak hartzen dituen eskualde-egitura hau oso menditsua da eta erliebe izugarri gorabeheratsua du. Ego ibaiaren haranean eta Deba ibaiaren erdialdeko eta behealdeko ibilbideetan egituratzen da.

Ibai sakon-sakon mehartzen dira. Hori dela-eta, herriak haranen zabaltze urrietan kokatzen dira. Bi ibai hauek Maltzagan egiten dute bat eta bertatik Deba ibaiak kostaldera egiten du hainbat arroila estu osatuz.

Haran estuaren hondoko eremuetan bide-azpiegiturak eta hiri- eta industria-erzpenak gainjarri dira eta espazio urriaren ondorioz oso lehia handia sortu da lurzorua erabileren eta mazelen okupazio sistematikoaren artean.

Kostaldea, Euskal Herriko kostalde ia osoa bezalaxe, oso malkartsua da eta Deba, Mutriku eta Saturrarango hondartzek soilik eteten duten itsaslabarrez osatuta dago.

Eskualde-egiturak 213,3 km<sup>2</sup>-ko azalera du eta Euskal Autonomia Erkidegoaren lurraldearen %3 hartzen du.

#### b) Hiri-egitura eta jarduera ekonomikoa

Debabarreneko eskualde-egiturak 74.400 biztanle inguru ditu, hau da, Euskal Autonomia Erkidego osoko biztanleriaren %35.

Bizkaiko Mallabia eta Ermuko udalerriak eta Gipuzkoako Eibar, Soraluze, Elgoibar, Mendaro, Deba eta Mutrikuko udalerriak barne hartzen ditu. Biztanleria Eibar, Elgoibar eta Ermuko udalerrietan biltzen da batik bat, hiru udalerrri hauek eskualde-egiturako biztanleriaren %78 biltzen dute. Hiri-dinamikari dagokionez Debabarreneko eskualde-egiturak atzerako prozesua bizi du eta Euskal Autonomia Erkidegoan biztanleria gehien galdu duten eskualdeen artean dago. Demografiari dagokionez Soraluze, Mendaro, Elgoibar, Eibar eta Ermuko udalerriek atzera egin dute 86-96 aldian.

Ermua, Eibar eta Soraluzeko udalerrietako espazioa erabat ase dago eta planteatzen diren zabaltze berriak kostu ekonomiko handikoak dira eta, gainera, hirigintzaren aldetik oso zalantzan dago beren funtzionalitatea.

Produkzio-egituran nabarmen nagusitzen da bigarren sektorea (enpleguaren %53 hartzen du) eta zerbitzu-sektoreak garapen txikiagoa izan duela ikus daiteke (enpleguaren %45). Eskualde-egituraren industria-egitura guztiz espezializatuta dago metal-eraldatuen sektorean.

Eibar, Ermua eta Soraluzeko udalerrietan industria-instalazio zaharkituak ageri direnez gero, komeni da lurzoru egokirik ez izateagatik zalantzazko bideragarritasuna duten zabaltze-eragiketak planteatu beharrean, udalerrri hauetan lehentasuna izango duten barne-birmoldaketarako politikak lantzea.

#### c) Komunikabide-sarea

la paralelo bideratzen diren N-634 errepidea eta A-8 autobidea eta Deba ibaiaren ibilbideari jarraituta Debagoieneko eskualde-egitura eta Debabarreneko eskualde-egitura lotzen dituen GI-627 errepidea dira eskualde-egitura antolatzen duten komunikabide-ardatzak.

Eusko Trenbideak konpainiako Bilbo eta Donostia arteko trenbideak indartu egiten du adierazi dugun lehen ardatza. Nolanahi ere, trenbide honen benetako funtzionaltasuna eskualde-egitura barneko hurbileko zerbitzu izatera mugatzen da.

Komunikabide hauetan zehar zabaldu da hiri- eta industria-garapen nagusia eta horrela industria-garapeneko bi iraganbide osatu dira: Ermua-Eibar-Elgoibar iraganbidea, N-634 errepidearen trazaduraren inguruan, eta Maltzaga-Soraluze-Deba Goiena, GI-627 errepidearen inguruan.

Eskualdeen arteko lotura egiten duten beste errepideak ere badaude, hala nola, Elgoibar eta Azkoitia arteko GI-2634 errepidea, Elgoibar eta Markina arteko GI-2636 errepidea eta Eibar eta Elgeta arteko GI-2639 errepidea. Dena den, errepide hauek ez dira industria-trafikorako alternatiba bat, ez eta Debatik Mutriku eta Ondarroarantz jotzen duen kostaldeko GI-638 errepidea ere. Salbuespen bakarra dago, GI-2634 errepidea, Azkarateko tunelaren eraikuntzarekin birmoldatu den errepidea baita.

Gaur egun, Eibar-Gasteiz autobidea eraikitzeko lanak oso aurreratuta daude. Autobide horrek eskualde-egitura hau Arabako Erdialdearekin zuzenean lotzeko aukera emango du.

#### **d) Lurzoru-erreserbak eta industria-problematika**

Gaineratzen den taulan islatzen denaren arabera, Debabarreneko eskualde-egituraren jarduera ekonomikoetarako kalifikazioa duten lurzoruek 384 ha-ko azalera hartzen dute guztira. Guztizko honetatik 282 ha okupatuta daude eta 102 ha okupatu gabe daude.

Azken zenbaki hori azpimarratu beharra dago, desoreka nabarmena baitago zenbatutako lurzoru libre kalifikatuaren eta benetako lurzoru-eskuragarritasunaren artean. Kalifikatu diren eremuetako askok arazo larriak dituzte bideragarri izateko. Eskaintza bideragarria soilik hartuta, eskualde-egitura honetan 50 ha baino gutxiago hartu behar dira aintzat. Gainera, kopuru horren zati handi bat eskualde-egituraren ipar-ekialdean dagoen Itziarko poligonoan dagoela aintzat hartzen badugu, argi eta garbi ikus daiteke eskualde-egitura honek lurzoruaren urritasunari dagokionez duen egoera larria.

Eibarko udal-plangintzak planteatzen dituen jarduera ekonomikoetarako jarduera berriak kokatzeko alternatibak ez dira oso gomendagarriak; izan ere, oso zalantza hirigintza-irtenbideak (Txonta, Iburerrea, Matxaria) dira, gaur egun dauden arazo gehienak sortarazi dituztenen moduko arazoak berriro sortzea, eta gainera justifikatzeko zaila den kostuan, eragiten baitituzte. Soraluzeko udalerriak ere ez du industria-ezarpenerako alternatibarik eta Ermuko udalerriaren kasuan ere oso alternatiba urriak dira. Elgoibarko aurreikuspenen bideragarritasuna berraztertu egin behar da (San Lorentzo, Lerun). Eskualdeko gainerako hiriguneez, Debak, Mendarok eta Mutriku, ere ez dute kokapen egokien gabeziarako alternatiba handirik.

Debako udalerrian dagoen Itziarko poligonoa, bestalde, funtzionaltasunaren arabera azalera eraiki handia behar duten eta enplegu kopuru mugatua duten instalazioekin bete ahal izango da. Nolanahi ere, poligono hau ez da eskualde-egiturako jarduera ekonomikoetarako lurzoruaren problematikarako alternatiba global



bideragarria. Kudeatutako lurzuaren eskaintza gaur egun Albitxurira (Elgoibar) eta Goitondoko (Mallabia) zabalpena mugatzen da.

Laburbilduz, jarduera ekonomikoetarako lurzuari dagokionez eskualde-egiturak duen arazoa honetan datza: Eibarko hirigunek eta eskualde-egiturako beste udalerriek enpresen birmoldaketa edo hedapena -udalerritik edota eskualdetik lekualdatu beharrik gabe- ahalbidetuko duten lurzoru librerik ez izatean.

**e) Lurzoru-eskariaren aurreikuspenak**

1990-2002 aldian Debabarreneko eskualde-egituran okupatutako industria-lurzoruaren gehikuntza 80 ha ingurukoa izan da. Horrek urteko 6 eta 7 ha bitarteko batez besteko hazkunde-erritmoa dakar.

16 urteko horizontean jarduera ekonomikoetarako lurzuaren etorkizuneko eskari hipotetikoa estaltzeko, eskualde-egitura honetan hazkunde-erritmo iraunkor hori bereganatzeko gai izango den lurzoru-eskaintza aurreikustea komeni da.

Eskualde-egiturak espazioari dagokionez dituen mugak aintzat hartuta, lurzoru-zuzkidura hau ezin da eskualde-egituraren esparruaren barruan gauzatu eta, horrenbestez, Debabarreneko premien zati bat eskualde-egitura mugakideetan ebazteko aukera hartu behar da aintzat.

**DEBABARRENEKO  
ESKUALDE-EGITURA**

**JARDUERA EKONOMIKOETARAKO LURZORUA  
OKUPATUA, LIBREA ETA GUZTIZKOA AZPIESKUALDE ETA UDALERRIEN ARABERA 2003AN**

AZPIESKUALDEA / UDALERRIA	JARDUERA EKONOMIKOETARAKO LURZORUA (Azalera ha-tan)		
	OKUPATUA	LIBREA	GUZTIRA
DEBA	44,26	29,30	73,56
EIBAR	54,36	7,82	62,18
ELGOIBAR	69,21	40,68	109,89
ERMUA	39,28	-	39,28
MALLABIA	36,00	19,26	55,26
MENDARO	13,34	3,90	17,24
MUTRIKU	9,00	1,20	10,20
SORALUZE	16,27	-	16,27
<b>DEBABARRENEKO EE GUZTIRA</b>	<b>281,72</b>	<b>102,16</b>	<b>383,88</b>

\* 2003-12-31n eguneratuta. Udalplan 2004

**DEBABARRENEKO  
ESKUALDE-EGITURA**

**BIZTANLERIA GUZTIRA, BIGARREN SEKTOREAN LAN EGITEN DUEN BIZTANLERIA  
ETA JARDUERA EKONOMIKOETARAKO LURZORUA BEHAR DUTEN ENPLEGUEN KOPURUA  
AZPIESKUALDE ETA UDALERRIEN ARABERA 2000N**

AZPIESKUALDEA / UDALERRIA	BIZTANLERIA GUZTIRA (Biztanle-kop.)	BIZTANLERIA LANEAN BIGARREN SEKTOREAN (Lan eg. kop.)	ENPLEGU-KOP. JARD. EKON. LURZORUAN (Enplegu-kop.)
DEBA	5.032	1.054	1.719
EIBAR	29.747	5.931	3.880
ELGOIBAR	10.869	2.598	3.529
ERMUA	17.334	4.551	2.171
MALLABIA	1.079	221	1.597
MENDARO	1.284	331	283
MUTRIKU	4.743	992	428
SORALUZE	4.337	1.126	743
<b>DEBABARRENEKO EE GUZTIRA</b>	<b>74.425</b>	<b>16.804</b>	<b>14.350</b>

**LURZORU KALIFIKATUAREN ERRESERBA-INDIZEA, BIGARREN SEKTOREKO AUTOENPLEGUARENA  
ETA BIGARREN SEKTOREKO ENPLEGU-DENTSIFIKAZIOARENA AZPIESKUALDE ETA UDALERRIEN ARABERA 2003AN**

AZPIESKUALDEA / UDALERRIA	LURZORU LIBREAREN ERRESERBA-INDIZEA	BIGARREN SEKTOREKO AUTOENPLEGU-INDIZEA	BIGARREN SEKTOREKO ENPLEGUAREN DENTSIFIKAZIO-INDIZEA
	AZAL. LURZORU KALIF. LIBREA AZAL. LURZORU KALIF. GUZTIRA	BIG. SEK. ENPLEGUA BIZ. OKUP. BIG. SEK.	BIG. SEK. ENPLEGUA LURZORU OKUP. J. E. (enplegu/ha)
DEBA	0,40	1,63	38,84
EIBAR	0,13	0,65	71,38
ELGOIBAR	0,37	1,36	60,93
ERMUA	-	0,48	55,27
MALLABIA	0,35	7,23	44,36
MENDARO	0,23	0,85	21,21
MUTRIKU	0,12	0,43	47,56
SORALUZE	-	0,66	46,73
<b>DEBABARRENEKO EE GUZTIRA</b>	<b>0,27</b>	<b>0,85</b>	<b>50,94</b>

### 3.2.12.- DONOSTIA-BETERRIKO ESKUALDE-EGITURA

#### a) Esparru fisikoa

Donostiako hirigunea inguratzen duen eskualde-egitura. Itsasertzeko eremu honek ondoko mugak ditu: Ekialdean, Frantzia; Hego-Ekialdean, Nafarroa; Hego-Mendebaldean, Toloserriko eskualde-egitura; eta Mendebaldean, Urola-Kostako eskualde-egitura. 376,8 km<sup>2</sup>-ko azalera du eta Euskal Autonomia Erkidegoaren lurraldearen %5,3 hartzen du. Plan honen eraginetarako, lau azpieskualde edo eremu hauetan bereizten da: Bidasoa Beherea, Oarsoaldea, Donostia eta Donostialdeko hego-mendebaldea.

- Bidasoa Behereko azpieskualdea

Bidasoa ibaiaren itsasadar eta behe-ibilbideari eta Jaizubiako haran txikiari dagokion lurralde-esparrua. Bidasoa ibaiak Jaizkibel mendiaren babespean dagoen Txingudiko badiaren isurtzen ditu urak itsasora. Olaberria eta Artia errekek ere esparru honen barruan daude.

Txingudiko badiaren inguruan jalkinez osatutako ibarreko eremu lauak eta topografia leuneko muinoak daude. Lurraldearen gainerakoa mendiguneetan kokatzen da: Jaizkibel mendia Iparraldean eta Aiako Harria hegoaldean.

Eskualdeak 71,6 km<sup>2</sup>-ko azalera du eta Euskal Autonomia Erkidegoaren lurraldearen %1,0 hartzen du.

- Oarsoaldeko azpieskualdea

Pasaiako badiaren itsasoratzen den Oiartzun ibaiaren haranari dagokion lurralde-esparrua hartzen du. 111,4 km<sup>2</sup>-ko azalera du eta Euskal Autonomia Erkidegoaren lurraldearen %1,6 hartzen du.

- Donostia

Urumea ibaiaren behe-arroaren, Añorgako errekaen eta Kontxako badiaren inguruan egituratzen den Donostiako udalerrria hartzen du. 61,5 km<sup>2</sup>-ko azalera du eta Euskal Autonomia Erkidegoaren lurraldearen %0,8 hartzen du.

- Donostialdeko hego-mendebaldea

Urumea ibaiaren behe-ibilbidea eta Ori ibaiaren behe-ibilbideko erdiko tarte bat, Aginagatik Andoainera, hartzen du. 133,1 km<sup>2</sup>-ko azalera du eta Euskal Autonomia Erkidegoaren lurraldearen %1,9 hartzen du.

Donostia-Beterriko eskualde-egiturak osotasunean topografia bereziko lurralde-esparrua du. Itsasertzean hainbat mendigunez (Jaizkibel, Ullia, Igeldo) osatutako mendilerroa nabarmentzen da. Lur-eremu lau bakarrak ibaien ibarrei dagozkie eta hiri-garapena arro desberdinen arteko lotura bihurtzen diren topografia leuneko mendi-lepoetan zabaldu da.

## b) Hiri-egitura eta jarduera ekonomikoa

Donostia-Beterriko eskualde-egiturak ondoko udalerriak hartzen ditu: Hondarribia, Irun, Oiartzun, Lezo, Errenteria, Pasaia, Donostia, Astigarraga, Hernani, Urnieta, Andoain, Lasarte-Oria eta Usurbil.

Eskualde-egitura honek 384.000 biztanle inguru ditu, hau da, Euskal Autonomia Erkidego osoko biztanleriaren %18,3.

Donostiako hirigunearen inguruan biltzen da eskualde-egituraren osotasuna, gainerakoa ia etenik gabeko konurbazioa baita. Azterlan honetan, hala eta guztiz ere, eskualde-egituraren barruan berezitasun propioak dituzten hainbat azpieskualde edo eremu bereizi dira.

- Bidasoa Behereko azpieskualdea

Bidasoa Behereko eskualdea Hondarribia eta Irungo udalerriek osatzen dute eta 69.700 biztanle inguru ditu. Izaera berezi nabarmena duten bi hirigune hauetan oinarritzen den eskualde honek hiri-izaera du nagusiki. Irun mugako herria izan da eta bere garapena komunikabide eta garraioa zerbitzuetan eta nazioarteko pasabideko gune estrategikoarekin lotzen diren industria-jardueretan oinarritu da. Hondarribia, aldiz, arrantza jarduera tradizionalari lotzen zaion herri bat izan da, baina mende honetan bere garapena turismoaren fenomenoaren eta hondartzarekin lotzen den bitoki gisa dituen baldintza paregabeen ondorioz areagotu egin da.

Azpieskualde honetan turismoarekin eta desagertutako mugarekin hirugarren sektorerako tradizio handia izan den arren, industria-garapena ere handia izan da bertan. Sektoreen arabera ondoko enplegu banaketa du: lehen sektorea %4, bigarren sektorea %31 eta hirugarren sektorea %65. Industria-jarduera metal-erlaldatuen eta garraioaren sektoreetan oinarritzen da.

Eskualdeko industria-enpleguen guztizko kopurua bigarren sektorean lana egiten duen biztanleria baino askoz ere txikiagoa da. 1.500 industria-enpleguen defizita dago, enplegu hauek azpieskualde honetatik Donostialdera eta Nafarroara (Lesaka, Bera eta abarrera) doazen langileei dagozkie.

- Oarsoaldeko azpieskualdea

Oarsoaldeko azpieskualdeak Oiartzun, Lezo, Errenteria eta Pasaia udalerriak eta Donostiako udalerriaren Ekialdeko zatia biltzen ditu. Gutxi gorabehera 71.400 biztanle ditu. Pasaia portuaren inguruan garatu den etenik gabeko konurbazio gisa egituratuta dagoen azpieskualde honek hiri-izaera du nagusiki.

Pasaia eta Errenteriako udalerriek 1960 eta 1980 artean industria eta bitoki-garapen-prozesu handia bizi izan dute, ase arte. Hazkundera orain Lezo eta Oiartzungo udalerrietarantz bideratzen da, udalerrak ere oraindik lurzoru-erreserbak dituzte-eta.

Sektoreen arabera enplegu-banaketa hau du: lehen sektorea %3, bigarren sektorea %40 eta hirugarren sektorea %57. Lehen sektoreak 1.200 industria-enpleguko saldo negatiboa du azpieskualde honetan.

- Donostia

Donostiako udalerriak ez du industriarako lurzoru-erreserba handirik, antzinako industria-ehunak bizitoki-erabileretarako edo hirugarren sektoreko erabileretarako birmoldatzearen ondorioz eta Astigarraga Donostiako udalerritik banantzearen ondorioz -honek arintzeko berezko interland-a izatea eragotzi dio-. Donostiak 178.000 biztanle inguru ditu, hau da, Euskal Autonomia Erkidegoko biztanleriaren %8,5.

Ondokoa da Donostia-Beterriko eskualde-egiturako enpleguen banaketa sektoreen arabera: lehen sektorea %1, bigarren sektorea %21 eta hirugarren sektorea %78. Hiriak 3.300 industria-enpleguen defizita du, baina hirugarren sektoreko enplegua biltzen du.

- Donostialdeko hego-mendebaldea

Ondoko udalerriak hartzen ditu: Astigarraga, Hernani, Urnieta, Andoain, Lasarte-Oria eta Usurbil. 64.700 biztanle inguru ditu, hau da, Euskal Autonomia Erkidego osoko biztanleriaren %3,1.

Urumea ibaiaren iraganbidean Astigarraga eta Hernaniko udalerriek industria-garapen handia dute eta zabaldu ahal izateko lurzoru-erreserbak dituzte oraindik ere. Hiri-iraganbide hau Hernani-Urnieta ardatzaren bitartez Andoaineraino hedatzen da.

Donostiako mendebalderantz industriaren hazkundera Añorga-Errekalde-Lasarte ardatzean finkatu da eta orain Usurbil bihurtu da jarduera ekonomikoetarako lurzoru-erreserba nagusia.

Ondokoa da bertako enpleguen banaketa sektoreen arabera: lehen sektorea %2, bigarren sektorea %54 eta hirugarren sektorea %44. Bigarren sektoreak 2.100 industria-enpleguen soberako saldoa du.

Laburbilduz, ondokoa da Donostia-Beterriko eskualde-egiturako enpleguen banaketa sektoreen arabera: lehen sektorea %2, bigarren sektorea %31 eta hirugarren sektorea %67. Banaketa honek erakusten digunez, Donostiako udalerrian, Gipuzkoako Lurralde Historikoko hiriburu gisa, hirugarren sektorea logikoki nagusi den arren, eskualde-egiturak industria-sektore garrantzitsua du. Donostiako udalerria kentzen badugu -gogoan izan bertan hirugarren sektoreko enpleguek %78 hartzen dutela-, Usurbilen (%61), Lezon (%58), Andoainen (%58), Lasarten (%53), Hernanin (%52) eta Urnietan (%53), esate baterako, industriaren arloko bigarren sektorea argi eta garbi nagusi dela antzeman dezakegu.

**c) Komunikabide-sarea**

Eskualde-egitura antolatzen duten komunikabide-ardatzak N-1 errepidea, A-8 autobidea eta Irun-Madril trenbidea dira. Izan ere, Euskal Autonomia Erkidegoan zehar egituratzen den Europa eta Iberiar Penintsularen arteko loturarako funtsezko azpiegiturak dira komunikabide-ardatz hauek.

Komunikabide hauen inguruan gertatu da eskualde-egiturako hiri-garapen nagusia eta Donostiaren inguruan hainbat industria-iraganbide antolatu dira. Bata, Andoain- Lasarte-Añorga-Donostia iraganbidea da, N-1 errepidearen inguruan egituratua; bestea Andoain-Urnieta-Hernani-Astigarraga-Donostia iraganbidea, trenbidearekin bat egiten duena. Bi iraganbide hauek Donostian egiten dute bat eta Pasaiako Portuan eta Errenterian barrena Iruno mugaraino jotzen dute.

Jatorrizko azpiegitura honi A-8 autobide gaineratu zaio; autobide honek sendotu egin du bere lotuneen ingurueta dauden eremuen garapena.

Komunikabide eta garraioaren arloko azpiegituran funtsezkoak gertatzen dira, era berean, Pasaiako Portua eta Hondarribiko aireportua.

Pasaiako Portua garrantzi handiko gunea da Iberiar Penintsulako itsasoan zeharreko garraio-sarearen barruan. Tradizioz granelak eta produktu siderurgikoak izan dira bere espezializazioa; alabaina, gaur egun automobilen eta edukiontzien garraiorako birmoldaketa izan du.

Pasaiako Portuak 100 ha inguruko flotazio-eremua du, lehorrean 67 ha ditu. 5.000 ml-ko kaiak ditu eta sARBIDE zuzenak N-1 errepidearekin, A-8 autobidearekin, Madril-Irun trenbidearekin eta Eusko Trenbideak konpainiako trenbide estuko sarearekin. Portuak ezin duenez gehiago hazi, gaur egun kanpoko portu bat eraikitzeke aukeraren bideragarritasuna aztertzen ari dira.

Hondarribiko Aireportuak 1.700 m-ko luzera duen pista du. Pista eta instalazioen ahalmenagatik eta hegaldien maiztasunagatik, toki-izaerako aireportua dela esan daiteke. Bestalde, oso zaila da aireportu hau sendotzea hurbil dituen Sondika (Bilbo), Foronda (Gasteiz) eta Miarrizteko aireportuen lehiaren eta leku-ezaren eraginez. SARBIDE onak ditu N-1 errepidetik eta A-8 autobidetik; alabaina, udako ordu nagusietan tokiko joan-etorriek eragin handia dute sARBIDE hauen trafikoa.

Komunikabide-sare nagusiak, A-8, N-1 eta N-634 bideek osatutakoa, ase-sintomak ditu eta, laster, Donostiako konurbazioaren kanpoaldeko saihsARBIDE izango den 2. ingurabidea eraikitzeke lanei emango zaie hasiera.

Eskualde-egituraren barruko komunikabide-sarean beste errepide garrantzitsu batzuk daude: GI-131 errepidea, Donostia-Astigarraga-Hernani-Andoain; GI-2132 errepidea, Errekalde-Hernani-Astigarraga-Oiartzun; eta GI-2134 errepidea, Oiartzun-Landetxa-Mendelu. Errepide hauek N-1 errepidearekiko eta A-8 autobidearekiko ibilbide alternatiboa osatzen dute Andoain eta Irun arteko tartean eta errepide haueetan oinarritzen da, hain zuzen ere, jarduera ekonomikoaren garapenaren zati handi bat.

Epe ertainera aurreikusitako trenbide-sare berriak eskualde-egitura hau luzetara zeharkatuko du.

#### **d) Lurzoru-erreserbak eta industria-problematika**

Gaineratzen den taulan islatzen denaren arabera jarduera ekonomikoetarako hirigintza-kalifikazioa duten lurzoruek, plangintzan aintzat hartzen direnek, 1.424 ha-ko azalera hartzen dute guztira eskualde-egiturari. Guztizko honetatik 1.008 ha okupatuta daude eta 416 ha libretzat jotzen da.

Okupatu gabeko lurzoru kalifikatuko 416 ha baldin badaude ere, lurzoru hauek guztiak ez dira jada erabilgarri eta, horrenbestez, ez dira lurzoru-eskaintza erreala. Praktikan lurzoru urbanizatu gutxi dago erabilgarri eta erabilgarri dauden lurzoru urri horiek oso prezio altuak dituzte.

- Bidasoa Behereko azpieskualdea

Hondarribiko udalerriko Zubieta izeneko ingurunean jarduera ekonomikoetarako lurzoru-eskaintza egitea aztertu da. Sektorea kudeatu eta urbanizatu gabe dago.

Irunen industria-jardueretarako lurzoru kalifikatutako erreserba nagusiak Zaisa 3 eta Araso poligonoetan daude. Poligono hauen hirigintza-sustapena aurreratuta dago.

Azpieskualde honek duen berariazko arazo garrantzitsu bat errepidean zeharreko garraioari zerbitzu emango dioten plataforma logistikoak sortzean datza. Zaisa 3 eta Araso ekimenak dira xede honetarako lurzoru eskaintzeko aztertu diren alternatibetako batzuk.

- Oarsoaldeko azpieskualdea

Oiartzungo udalerrian lurzoru okupatu gabeko eskaintza Lanbarren eta Lintziringo eragiketei dagokie; eragiketa hauetako lurzoruak sustatzeko bidean dira.

Lezoko udalerrian ez dago industria-lurzoruko eskaintza esanguratsurik, kalifikatutako lurzoru guztia dagoeneko okupatuta dago-eta. Lezo Pasaiako Portuarekiko eta komunikabide-azpiegitura orokorrekiko duen kokapenari esker jarduera ekonomikoetarako lurzoru-erreserba estrategikoa da.

Gipuzkoako Foru Aldundiak Gaintzurizketako Triangeluko inguruan eremu estrategikoa sustatzeko lurzoru erosi du.

Errenteriako udalerrian Masti eta Txirrita-Maleoko sektoreetako industria-lurzoru berriaren eskaintza berehala ase du eskariak eta Udala, ondorioz, Egiburun lurzoru gehiago sustatu beharra ari da aztertzen.

Pasaiako udalerraren lurraldea, bestalde, guztiz ase dago. Portuaren barruan Herrerako kaiko instalazio zaharkituak erabat birmoldatzea eta bertan jarduera ekonomikoen ehun berria sustatzea aztertu beharko da.

- Donostia

Donostiako udalerrian, jarduera ekonomikoetarako lurzoru-eskaintza ondoko hauetan oinarritzen da:

- Igarako poligonoa.  
Lurzoru libreko 4 ha ditu. Okupatzeko prozesuan.
- Zuatsu sektorea.  
Donostiako Udalak sustatzen duen poligono berri honek herri-erakundeen parte-hartzea izango du. Urbanizatzeko prozesuan dago. Lurzoru libreko 4 ha ditu.
- Miramongo Teknologi Elkartegia.  
Jarduera ekonomikoetarako 50 ha, Donostiako Udalak bultzatua eta herri-erakundeen parte-hartzea duena. Sustapen-prozesuan. Sustatzeko prozesuan dago. 10 ha-ko erreserba librea zenbatesten da.
- Landarro poligonoa, Molinaoko errekaetan (20 ha).  
Zubietako garraio-zentroa (17 ha).
- Belartza 2 poligonoa (21 ha).



- Donostialdeko hego-mendebaldea

Astigarragako Udalerrriak lurzoru okupatu gabeko 21 ha ditu eta hauetako zati bat urbanizatzeko prozesuan dago gaur egun.

Hernanin, bestalde, ondokoak dira jarduera ekonomikoetara lurzoru-erreserba nagusiak:

- Orbegozo eremua (7 ha).  
Industrialde gisa garatzeko prozesuan.
- Akarregi sektorea (8 ha).
- Galarreta sektorea, bertan hirugarren sektoreko jarduera ekonomikoetarako poligono berri bat proposatzen da (12 ha).

Era berean, herri-administrazioak 35 ha-ko industria-poligono berri bat sustatu du Urnietako udalerrian. Poligono honen zati handi bat okupatuta dago jada. Urkain-Berri inguruan poligono berri bat sustatzeko aukera ari dira aztertzen.

Andoaingo udalerrian, Leizotz poligonoa garatu eta ia ase ondoren, Balastrain-Matxinea ingurunea garatzeari ekin beharko zaio, bertan baitago lurzoru erabilgarri berriaren erreserba bakarra.

Usurbilgo udalerrriak Oria ibaiaren ibarrean dagoen Atallu industria-sektore berrian (12 ha) du lurzoru librearen eskaintza.

Donostia-Beterriko eskualde-egituran jarduera ekonomikoetarako lurzoruaren eskaintzari buruzko balorazio orokor gisa aditzera eman behar da arlo honetako aurreikuspenak zatikatuegi daudela eta, oro har, ahaleginak sistematizatzea eta fondo publikoetako inbertsioak eskariaren beharren arabera bideratzea ahalbidetuko duen udalaz haraindiko plangintzarik ez dutela.

#### **e) Lurzoru-eskariaren aurreikuspenak**

1990-2002 aldian Donostia-Beterriko eskualde-egituran okupatutako industria-lurzoruaren gehikuntza 280 ha ingurukoa da (100 Bidasoa Beherean, 50 Oarsoaldean, 60 Donostian eta 70 Donostialdeko hego-mendebaldean). Horrek urteko 24 ha-ko batez besteko hazkunde-eritmoa dakar.

16 urteko horizontean jarduera ekonomikoetarako lurzoruaren etorkizuneko eskari hipotetikoa estaltzeko, Donostia-Beterriko eskualde-egitura honetan hazkunde-eritmo iraunkor hori bereganatzeko gai izango den lurzoru-eskaintza aurreikustea komeni da.

**DONOSTIA-BETERRIKO**  
**ESKUALDE-EGITURA**

**JARDUERA EKONOMIKOETARAKO LURZORUA**  
**OKUPATUA, LIBREA ETA GUZTIZKOA AZPIESKUALDE ETA UDALERRIEN ARABERA 2003AN\***

AZPIESKUALDEA / UDALERRIA	JARDUERA EKONOMIKOETARAKO LURZORUA (Azalera ha-tan)		
	OKUPATUA	LIBREA	GUZTIRA
<b>BIDASOA BEHEREA</b>			
HONDARRIBIA	15,78	43,20	58,98
IRUN	188,07	75,24	263,31
GUZTIZKO PARTZIALA			
<b>BIDASOA BEHEREA</b>	<b>203,85</b>	<b>118,44</b>	<b>322,29</b>
<b>OARSOALDEA</b>			
LEZO	70,64	27,00	97,64
OIARTZUN	67,21	2,54	69,75
PASAIA	86,54	78,69	165,23
ERRENTERIA	42,63	-	42,63
GUZTIZKO PARTZIALA			
<b>OARSOALDEA</b>	<b>267,02</b>	<b>108,23</b>	<b>375,25</b>
<b>DONOSTIA</b>			
DONOSTIA	177,37	91,83	269,20
GUZTIZKO PARTZIALA			
<b>DONOSTIA</b>	<b>177,37</b>	<b>91,83</b>	<b>269,20</b>
<b>DONOSTIALDEKO H-M</b>			
ANDOAIN	65,91	14,24	80,15
ASTIGARRAGA	51,80	25,05	76,85
HERNANI	109,15	45,10	154,25
LASARTE-ORIA	21,42	-	21,42
URNIETA	46,78	3,00	49,78
USURBIL	64,61	10,30	74,91
GUZTIZKO PARTZIALA			
<b>DONOSTIALDEKO H-M</b>	<b>359,67</b>	<b>97,69</b>	<b>457,36</b>
<b>DONOSTIA-BETERRIKO</b>			
<b>EE GUZTIRA</b>	<b>1.007,91</b>	<b>416,19</b>	<b>1.424,10</b>

\* 2003-12-31n eguneratuta. Udalplan 2004

**DONOSTIA-BETERRIKO**  
**ESKUALDE-EGITURA**

**BIZTANLERIA GUZTIRA, BIGARREN SEKTOREAN LAN EGITEN DUEN BIZTANLERIA**  
**ETA JARDUERA EKONOMIKOETARAKO LURZORUA BEHAR DUTEN ENPLEGUEN KOPURUA**  
**AZPIESKUALDE ETA UDALERRIEN ARABERA 2000N**

<b>AZPIESKUALDEA / UDALERRIA</b>	<b>BIZTANLERIA GUZTIRA (Biztanle-kop.)</b>	<b>BIZTANLERIA LANEAN BIGARREN SEKTOREAN (Lan eg. kop.)</b>	<b>ENPLEGU-KOP. JARD. EKON. LURZORUAN (Enplegu-kop.)</b>
<b>BIDASOA BEHEREA</b>			
HONDARRIBIA	14.546	1.388	319
IRUN	55.196	9.293	8.881
GUZTIZKO PARTZIALA			
<b>BIDASOA BEHEREA</b>	<b>69.742</b>	<b>10.681</b>	<b>9.200</b>
<b>OARSOALDEA</b>			
LEZO	5.798	949	1.709
OIARTZUN	9.003	1.484	3.813
PASAIA	17.255	1.848	1.749
ERRETERIA	39.376	5.858	1.629
GUZTIZKO PARTZIALA			
<b>OARSOALDEA</b>	<b>71.432</b>	<b>10.139</b>	<b>8.900</b>
<b>DONOSTIA</b>			
DONOSTIA	178.229	17.218	13.875
GUZTIZKO PARTZIALA			
<b>DONOSTIA</b>	<b>178.229</b>	<b>17.218</b>	<b>13.875</b>
<b>DONOSTIALDEKO H-M</b>			
ANDOAIN	14.371	3.013	2.917
ASTIGARRAGA	3.201	539	1.762
HERNANI	18.787	3.074	3.451
LASARTE-ORIA	17.750	3.238	2.841
URNIETA	5.295	994	1.206
USURBIL	5.282	1.097	1.923
GUZTIZKO PARTZIALA			
<b>DONOSTIALDEKO H-M</b>	<b>64.686</b>	<b>11.955</b>	<b>14.100</b>
<b>DONOSTIA-BETERRIKO</b>			
<b>EE GUZTIRA</b>	<b>384.089</b>	<b>49.993</b>	<b>46.075</b>

**DONOSTIA-BETERRIKO**  
**ESKUALDE-EGITURA**

**LURZORU KALIFIKATUAREN ERRESERBA-INDIZEA, BIGARREN SEKTOREKO AUTOENPLEGUARENA**  
**ETA BIGARREN SEKTOREKO ENPLEGU-DENTSIFIKAZIOARENA AZPIESKUALDE ETA UDALERRIEN ARABERA 2003AN**

AZPIESKUALDEA / UDALERRIA	LURZORU LIBREAREN ERRESERBA-INDIZEA	BIGARREN SEKTOREKO AUTOENPLEGU-INDIZEA	BIGARREN SEKTOREKO ENPLEGUAREN DENTSIFIKAZIO-INDIZEA
	AZAL. LURZORU KALIF. LIBREA AZAL. LURZORU KALIF. GUZTIRA	BIG. SEK. ENPLEGUA BIZ. OKUP. BIG. SEK.	BIG. SEK. ENPLEGUA LURZORU OKUP. J. E. (enplegu/ha)
<b>BIDASOA BEHEREA</b>			
HONDARRIBIA	0,73	0,23	22,92
IRUN	0,29	0,96	47,22
GUZTIZKO PARTZIALA <b>BIDASOA BEHEREA</b>	<b>0,37</b>	<b>0,86</b>	<b>45,13</b>
<b>OARSOALDEA</b>			
LEZO	0,28	0,28	23,06
OIARTZUN	0,04	1,80	26,41
PASAIA	0,48	2,57	42,56
ERRETERIA	-	0,85	36,95
GUZTIZKO PARTZIALA <b>OARSOALDEA</b>	<b>0,29</b>	<b>0,88</b>	<b>33,33</b>
<b>DONOSTIA</b>			
DONOSTIA	0,34	0,81	78,23
GUZTIZKO PARTZIALA <b>DONOSTIA</b>	<b>0,34</b>	<b>0,81</b>	<b>78,23</b>
<b>DONOSTIALDEKO H-M</b>			
ANDOAIN	0,18	0,97	44,26
ASTIGARRAGA	0,29	3,27	34,02
HERNANI	0,29	1,12	31,61
LASARTE-ORIA	-	0,88	132,63
URNIETA	0,06	1,21	25,78
USURBIL	0,14	1,75	29,87
GUZTIZKO PARTZIALA <b>DONOSTIALDEKO H-M</b>	<b>0,21</b>	<b>1,18</b>	<b>39,20</b>
<b>DONOSTIA-BETERRIKO EE GUZTIRA</b>	<b>0,29</b>	<b>0,92</b>	<b>45,71</b>

### 3.2.13.- GOIERRIKO ESKUALDE-EGITURA

#### a) **Esparru fisikoa**

Oria eta Urola ibaien arroetako goi-ibilbideei dagokien lurralde-esparrua da. Ondoko mugak ditu: Iparraldean, Toloserriko eta Urola-Kostako eskualde-egiturak; Hego-Ekialdean, Nafarroa; Hegoaldean, Araba; eta Mendebaldean, Deba ibaiaren arroaren goi-aldea.

359,2 km<sup>2</sup>-ko azalera du eta Euskal Autonomia Erkidegoaren lurraldearen %5,1 hartzen du.

Azterlan honetan ondo bereizitako bi azpieskualdetan banatzen da eskualde-egitura hau: Oria Garaia eta Urola Garaia.

- Oria Garaiko azpieskualdea

Oria ibaiaren ardatz nagusiaren eta honen alboetako haran txikiagoen inguruko lurralde honek topografia gorabeheratsua du. Oria ibaiaren eskuinaldetik Amundarain (Zaldibia), Agauntza (Ataun) eta Ursuaran (Idiazabal) ibaiak husten dituzte beren urak eta ezkerretatik Estanda ibaiak eta honen ibaiadarrak diren Sta. Luzia eta Arriaran ibaiak.

Oria ibaiaren haraneko eremurik zabalena +150 a +200 metroko altuera-kuoten artean daude eta bertan finkatu da hiri-garapen nagusia (Ordizia-Beasain-Lazkao-Idiazabal-Ormaiztegi).

Azpieskualde honek Aralarro mendilerroa du Hego-ekialdean eta Aizkorriko mendilerroa Hego-Mendebaldean. Mendilerro hauek kantauriar eta mediterraniar isurialdeen banalerro dira.

270,1 km<sup>2</sup>-ko azalera du eta Euskal Autonomia Erkidegoaren lurraldearen %3,8 hartzen du.

- Urola Garaiko azpieskualdea

Urola ibaiaren arroko goi-aldea eta Ezkio-Itsasoko udalerria.

Urola ibaiaren haraneko ingurune urbanizatuak (Urretxu-Zumarraga-Legazpi) +350 eta +400 metroko altuera-kuoten artean daude.

89,1 km<sup>2</sup>-ko azalera du eta Euskal Autonomia Erkidegoaren lurraldearen %1,3 hartzen du.

#### b) **Hiri-egitura**

Goierriko eskualde-egituran ondoko udalerriak barne hartzen dira: Legorreta, Itsasondo, Alzaga, Arama, Gaintza, Ordizia, Zaldibia, Beasain, Lazkao, Ataun, Olaberria, Idiazabal, Segura, Zegama, Mutiloa, Zerain, Ormaiztegi, Gabiria, Ezkio-Itsaso, Zumarraga, Urretxu eta Legazpi. Eskualde-egitura honek 65.600 biztanle inguru ditu, hau da, Euskal Autonomia Erkidego osoko biztanleriaren %3,1.

Azterlan honetan ondo bereizitako bi azpieskualdetan banatzen da eskualde-egitura hau: Goierri Beherea eta Urola Garaia.

- Oria Garaia

Azpieskualde honek 39.400 biztanle inguru ditu, hau da, Euskal Autonomia Erkidego osoko biztanleriaren %1,9.

Ordizia, Beasain eta Lazkaoko udalerriek osatzen duten konurbazioan bizi da biztanle gehien, 26.000 biztanle inguru.

Gainerako hiriguneak txikiak dira eta udalerrietako batzuk landa-izaerako udalerriak dira gainera.

Eskualdeko jarduera ekonomikoa industria metalurgikoan oinarritzen da. Industrializazio-prozesuaz kanpo geratu ziren udalergi txiki batzuek landa-izaerari eusten dioten arren, Goierriko hirigune gehienek industria-ezarpenak dituzte eta neurria askotariko industria-ezarpen hauek udalergi hauetako udal-ekonomiaren funtsezko faktore bihurtzen dira.

Industria-planta nagusienak Olaberriako Aristrain oinarritzko metalurgiako planta eta trenbide-materialen fabrikazioan jarduten duen Beasaingo CAF enpresa dira.

Oinarritzko planta hauen inguruan metal-eraldatuen sektorean espezializatu diren tamaina ertain eta txikiko enpresa ugari sortu da; hala nola, Indar eta Fundiciones del Estanda Beasainen, Ampo Beasain eta Idiazabalen, Jaso Idiazabal eta Itsasondon, Orkli Ordizian, Guerra Hermanos Olaberria eta Beasainen, Forjas de Lazkao Lazkaon, Irizar Ormaiztegin eta abar.

Gaur egun dauden lanpostuak kontuan izanik, ondokoa da jarduera ekonomikoen sektoreen araberako banaketa azpieskualdean: lehen sektorean %3, bigarren sektorean %54 eta hirugarren sektorean %43. Horrenbestez, eskualdeko jarduera ekonomikoa industria-sektorean oinarritzen dela ikus daiteke; izan ere bigarren sektorean 800 enplegutako superabita dago.

- Urola Garaia

Ezkio-Itsaso, Urretxu, Zumarraga eta Legazpik osatzen dute azpieskualde hau. Azpieskualde honek 26.300 biztanle inguru ditu, hau da, Euskal Autonomia Erkidego osoko biztanleriaren %1,2.

Zumarraga, Urretxu eta Legazpiko udalerriek osatzen duten konurbazioan biltzen da azpieskualdeko biztanleria.

Industria-planta nagusiak Legazpiko Patricio Echeverria eta Zumarragako Orbeozo oinarritzko planta metalurgikoak dira.

Goierriko eskualde-egituraren ekonomia-ezaugarri orokorreari dagokienez, nabarmendu behar da industria-jarduera nabarmen metatzen dela sektore metalurgikoan eta metal-eraldatuen sektorean eta, hori dela-eta, komenigarria gertatzen dela jarduera ekonomikoak anizteko ekintzak burutzea. Halaber, zerbitzu-

sektoreak oso garapen urria duenez gero, hauxe izan beharko luke, hain zuzen ere, etorkizun hurbilean bultzatu beharreko esparrua.

### **c) Komunikabide-sarea**

Goierriko eskualde-egitura antolatzen duten komunikabide-ardatz nagusiak N-1 eta GI-632 errepideak eta Irun-Madril trenbidearen trazadura dira. N-1 errepideak Oria ibaiaren ibilbideari jarraitzen dio eta, Ursuaran haranaren bitartez, Arabako Lautadarekin egiten du bat Etxegarateko mendatean (+640). GI-632 errepideak Oria eta Urola ibaien haranak lotzen ditu eta, ondoren, Bergara eta Durangorantz jotzen du, Ekialde-Mendebalde ardatz garrantzitsua eratuz. Trenbideak Oria ibaiaren haranari jarraitzen dio Beasaineraino eta hemendik aurrera Ormaiztegiko iraganbidearen bitartez Zumarragaraino heltzen da, Urola ibaiaren harana hartzen du eta mesetaranzko igoerari ekiten dio.

Komunikabideetarako iraganbide nagusi hauen inguruan gertatu dira eskualde-egitura honetako finkapen demografiko eta industrial garrantzitsuenak eta bi konurbazio txiki gisako hiriguneak osatu dira: Zumarraga-Urretxu-Legazpi hirigunea eta Beasain-Ordizia-Lazkao hirigunea.

Dena den, eskualde-egituran badira beste errepide garrantzitsu batzuk ere: GI-120 errepidea, Lizarrusti mendatetik barrena Nafarroarantz jotzen duena; GI-2630 errepidea, Udanako mendatetik Oñatirekin lotzen duena; GI-631 errepidea, Azpeitiranzko irteera; GI-2637 errepidea, Segura eta Zegamarako sarbidea; GI-2635 errepidea, Salbatoretik Azpeitira egiten duena, Matxinbentatik barrena; GI-2133 errepidea, Zaldibiarako sarbidea

Etorkizunean abiadura handiko trenaren trazadura berriak Goierriko eskualde-egitura zeharkatuko duela aurreikusten da. Lehen azterlanetan Ezkio-Itsaso parean "bazterbide" bat antolatzea aurreikusten da.

Saneamenduko eta ur-hornidurako oinarrizko azpiegiturak hobetzeko eta sistematizatzeko lanak arian-arian ari dira garatzen, betiere Gipuzkoako Foru Aldundiak bultzatutako planen arabera.

Goierriko eskualde-egiturak gasbideko oinarrizko azpiegitura du, baita erregulazio-estazioak Legazpi, Beasain eta Zaldibian ere, eta azpiegitura honek gasa banatzeko sarea hala eskatzen duten industrietaraino zabaltzeko aukera ematen du.

### **d) Lurzoru-erreserbak**

Eskualde-egiturako jarduera ekonomikoa hirigune eta komunikabideetako iraganbide nagusien inguruan biltzen da eta haran nagusietatik alboratuta dauden hiriguneek ekonomia landatarrari eusten diote.

Gaineratzen den taulan islatzen denaren arabera, jarduera ekonomikoetarako kalifikazioa duten lurzoruek 532 ha-ko azalera hartzen dute guztira Goierriko eskualde-egituran. Guztizko honetatik 384 ha okupatuta daude eta 148 ha libre.

Lurzoru libretzat hartzen den 148 ha-ko azalera ez da, ordea, lurzoru erabilgarriko eskaintza erreala, zati handi batean baldintza topografikoengatik, industriaren baten erreserbako eremu izateagatik edo hirigintza-kudeaketarik edo urbanizaziorik ez izateagatik epe laburrera okupatu ezin diren lurzoruak dira-eta. Urolako haranean, esate baterako, ez dago lurzoru-erreserba adierazgarririk eta, horrenbestez, topografikoki desegokiak diren eta irisgarritasun-arazo handiak dituzten eremuetan poligono berriak sortzeko alternatibak ari dira aztertzen.

Ondokoak dira jarduera ekonomikoetarako okupatu gabeko lurzoru-erreserba kalifikatu nagusiak:

- Oria Garaiko azpieskualdea

22 ha Beasainen, 20 ha Ordizian, 20 ha Olaberrian, 6 ha Idiazabalen, 9 ha Lazkaon eta 5 ha baino gutxiagoko erreserbak azpieskualdeko gainerako udalerrietan.

Dena den, lurzoru hauetako asko hirigintza-arloko bideragarritasun-arazoak eta kudeaketa-arazoak dituzte

- Urola Garaiko azpieskualdea

25 ha Legazpin eta 22 ha Zumarragan.

Hala eta guztiz ere, baliabide hauen eraginkortasuna ere zalantzazkoa da eta garatzeko aukerarik nagusia Ezkio-Itsasoko poligono berrietan dago.

Laburbilduz, jarduera metalurgikoak eta metal-eraldatuen jarduerak izango ez diren beste industria-sektore alternatiboetarantz zuzendu beharko da Goierriko industria-dinamika. Zumarraga-Urretxu-Legazpi inguruneak beharrezkoa duen industria-birmoldaketa eta hirigintza-birmoldaketa epe ertainean ebatzearren, Gabiria eta Ezkio-Itsasoko poligono berrietan poligono berriak sortzeko komenigarritasuna planteatu da. Beasaingo eremuaren industria-hazkundeak ere ingurune honetarantz jotzen duela ikus daiteke.

Gaur egun industria-instalazioek hartzen dituzten Ordizia-Beasain eta Urretxu-Zumarraga eremu nagusietan pixkanaka-pixkanaka zabalduko dira hirugarren sektoreko erabilerak; izatez, gaur egun oso garapen txikia duen zerbitzu-sektorea etorkizunean hazi egingo dela aurreikus daiteke.

#### **e) Lurzoru-eskariaren aurreikuspenak**

1990-2002 aldian Goierriko eskualde-egituran okupatutako industria-lurzoruaren gehikuntza 85 ha ingurukoa da; 65 ha-koa Oria Garaian eta 20 ha-koa Urola Garaian.

16 urteko horizonte batean jarduera ekonomikoetarako lurzoruaren etorkizuneko eskari endogeno hipotetikoa estaltzeko komeni da, kasurik hoberenean, Goierriko eskualde-egituran urteko 7 ha-ko okupazio-erritmoa aurreikustea..





**GOIERRIKO**  
**ESKUALDE-EGITURA**

**JARDUERA EKONOMIKOETARAKO LURZORUA**  
**OKUPATUA, LIBREA ETA GUZTIZKOA AZPIESKUALDE ETA UDALERRIEN ARABERA 2003AN\***

AZPIESKUALDEA / UDALERRIA	JARDUERA EKONOMIKOETARAKO LURZORUA (Azalera ha-tan)		
	OKUPATUA	LIBREA	GUZTIRA
<b>ORIA GARAIA</b>			
ALTZAGA	-	-	-
ARAMA	3,40	2,91	6,31
ATAUN	1,74	2,05	3,79
BEASAIN	75,70	22,35	98,05
GABIRIA	4,30	5,65	9,95
GAINZA	-	-	-
IDIAZABAL	40,32	5,56	45,88
ITSASONDO	4,03	2,40	6,43
LAZKAO	41,70	8,84	50,54
LEGORRETA	12,30	2,37	14,67
MUTILOA	-	-	-
OLABERRIA	32,98	20,28	53,26
ORDIZIA	15,71	19,75	35,46
ORMAIZTEGI	23,17	4,73	27,90
SEGURA	1,00	2,00	3,00
ZALDIBIA	7,80	1,70	9,50
ZEGAMA	4,60	-	4,60
ZERAIN	-	-	-
GUZTIZKO PARTZIALA			
<b>ORIA GARAIA</b>	<b>268,75</b>	<b>100,59</b>	<b>369,34</b>
<b>UROLA GARAIA</b>			
EZKIO-ITSASO	15,67	-	15,67
LEGAZPI	59,36	25,50	84,86
URRETXU	20,05	-	20,05
ZUMARRAGA	20,00	22,00	42,00
GUZTIZKO PARTZIALA			
<b>UROLA GARAIA</b>	<b>115,08</b>	<b>47,50</b>	<b>162,58</b>
<b>GOIERRIKO</b>			
<b>EE GUZTIRA</b>	<b>383,83</b>	<b>148,09</b>	<b>531,92</b>

\* 2003-12-31n eguneratuta. Udalplan 2004

**GOIERRIKO**  
**ESKUALDE-EGITURA**

**BIZTANLERIA GUZTIRA, BIGARREN SEKTOREAN LAN EGITEN DUEN BIZTANLERIA**  
**ETA JARDUERA EKONOMIKOETARAKO LURZORUA BEHAR DUTEN ENPLEGUEN KOPURUA**  
**AZPIESKUALDE ETA UDALERRIEN ARABERA 2000N**

AZPIESKUALDEA / UDALERRIA	BIZTANLERIA GUZTIRA (Biztanle-kop.)	BIZTANLERIA LANEAN BIGARREN SEKTOREAN (Lan eg. kop.)	ENPLEGU-KOP. JARD. EKON. LURZORUAN (Enplegu-kop.)
<b>ORIA GARAIA</b>			
ALTZAGA	97	21	-
ARAMA	158	34	-
ATAUN	1.574	310	49
BEASAIN	12.297	2.510	3.848
GABIRIA	436	108	111
GAINZA	132	38	2
IDIAZABAL	2.032	514	654
ITSASONDO	609	140	283
LAZKAO	4.847	1.250	466
LEGORRETA	1.423	357	411
MUTILOA	158	30	11
OLABERRIA	985	278	1.205
ORDIZIA	9.066	2.151	1.008
ORMAIZTEGI	1.173	285	961
SEGURA	1.263	284	67
ZALDIBIA	1.550	345	634
ZEGAMA	1.312	252	42
ZERAIN	236	56	23
GUZTIZKO PARTZIALA			
<b>ORIA GARAIA</b>	<b>39.348</b>	<b>8.963</b>	<b>9.775</b>
<b>UROLA GARAIA</b>			
EZKIO-ITSASO	537	122	517
LEGAZPI	9.126	2.220	2.204
URRETXU	6.283	1.479	700
ZUMARRAGA	10.330	2.392	1.179
GUZTIZKO PARTZIALA			
<b>UROLA GARAIA</b>	<b>26.276</b>	<b>6.213</b>	<b>4.600</b>
<b>GOIERRIKO EE GUZTIRA</b>	<b>65.624</b>	<b>15.176</b>	<b>14.375</b>

**GOIERRIKO**  
**ESKUALDE-EGITURA**

**LURZORU KALIFIKATUAREN ERRESERBA-INDIZEA, BIGARREN SEKTOREKO AUTOENPLEGUARENA**  
**ETA BIGARREN SEKTOREKO ENPLEGU-DENTSIKAZIOARENA AZPIESKUALDE ETA UDALERRIEN ARABERA 2003AN**

AZPIESKUALDEA / UDALERRIA	LURZORU LIBREAREN ERRESERBA-INDIZEA	BIGARREN SEKTOREKO AUTOENPLEGU-INDIZEA	BIGARREN SEKTOREKO ENPLEGUAREN DENTSIKAZIO-INDIZEA
	AZAL. LURZORU KALIF. LIBREA AZAL. LURZORU KALIF. GUZTIRA	BIG. SEK. ENPLEGUA BIZ. OKUP. BIG. SEK.	BIG. SEK. ENPLEGUA LURZORU OKUP. J. E. (enplegu/ha)
<b>ORIA GARAIA</b>			
ALTZAGA	-	-	-
ARAMA	0,46	-	-
ATAUN	0,54	0,16	28,16
BEASAIN	0,23	1,53	50,83
GABIRIA	-	1,03	25,81
GAINTZA	-	0,05	-
IDIAZABAL	0,12	1,27	16,22
ITSASONDO	0,37	2,02	70,22
LAZKAO	0,17	0,37	12,91
LEGORRETA	0,16	1,15	33,41
MUTILOA	-	0,37	-
OLABERRIA	0,38	4,33	36,66
ORDIZIA	0,56	0,47	64,16
ORMAIZTEGI	0,17	3,37	43,17
SEGURA	0,67	0,24	67,00
ZALDIBIA	0,18	1,84	81,28
ZEGAMA	-	0,17	9,13
ZERAIN	-	0,41	-
GUZTIZKO PARTZIALA			
<b>ORIA GARAIA</b>	<b>0,27</b>	<b>1,09</b>	<b>36,37</b>
<b>UROLA GARAIA</b>			
EZKIO-ITSASO	-	4,24	32,99
LEGAZPI	0,30	0,99	40,66
URRETXU	-	0,47	34,91
ZUMARRAGA	0,52	0,49	58,95
GUZTIZKO PARTZIALA			
<b>UROLA GARAIA</b>	<b>0,29</b>	<b>0,74</b>	<b>39,98</b>
<b>GOIERRIKO</b>			
<b>EE GUZTIRA</b>	<b>0,28</b>	<b>0,95</b>	<b>37,45</b>

### 3.2.14.- TOLOSERRIKO ESKUALDE-EGITURA

#### a) Esparru fisikoa

Oria ibaiaren ibilbidearen erdialdea hartzen duen lurralde-esparrua, Tolosako hirigunearen inguruan biltzen dena. Ondoko mugak ditu: Iparraldean, Donostia-Beterriko eskualde-egitura; Ekialdean, Nafarroa; Hegoaldean, Goierriko eskualde-egitura; eta Mendebaldean, Aiako udalerria eta Urolaren harana.

323,6 km<sup>2</sup>-ko azalera du eta Euskal Autonomia Erkidegoaren lurraldearen %34,5 hartzen du.

Topografia gorabeheratsuko lurralde hau Oria ibaiaren ibilbidearen erdialdeak eta alboetan dituen haran meharrek (Zelai, Araxes, Amezketeta eta Ibitura eskuinaldean eta Usarrabi, Alkiza eta Aisturtzi ezker aldean) osatzen dute.

Eskualdeko lurzoru lau gehiena haranaren hondoetan kokatzen den errenkada estua da eta dagoeneko hiri-garapenak hartu du.

#### b) Hiri-egitura eta jarduera ekonomikoa

Toloserriko eskualde-egiturak ondoko udalerriak barne hartzen ditu: Aduna, Zizurkil, Asteasu, Larraul, Alkiza, Billabona, Irura, Anoeta, Hernialde, Tolosa, Ibarra, Belauntza, Berrobi, Berastegi, Elduain, Leaburu, Gaztelu, Altzo, Lizartza, Orexa, Albiztur, Bidegoian, Alegia, Amezketeta, Ikaztegieta, Baliarrain, Orendain eta Abaltzisketa. Eskualde-egitura honek 43.000 biztanle inguru ditu, hau da, Euskal Autonomia Erkidego osoko biztanleriaren %2,1.

Tolosako hirigune nagusiaren eta Billabona eta Alegiako hirigune txikien inguruan biltzen diren landa-izaerako udalerririk txikiek osatutako eskualdea da. Duela gutxira arte industria eta bizitokiko garapena aipatutako hirigune horietara zuzendu izan da.

Hala eta guztiz ere, Tolosa eta Billabonako udalerrietako espazioa ase ondoren, industria eta hirigintzako garapena Oriak osatzen duen haranaren hondoan dauden eskualdeko gainerako udalerrietara zabaldu da (Aduna, Zizurkil, Irura, Anoeta, Ikaztegieta eta abar) eta bizitoki-garapena Ibarra, Anoeta eta Zizurkilgo udalerririk mugakideetara zabaldu da.

Tolosako industria-tradizioa papergintzaren sektorean oinarritu zen eta sektore honek krisialdi sakona izan du. Oraindik ere birmoldaketa-prozesua bizi da eta birmoldaketa honek hainbat enpresa tradizional behin betiko desagerraraztea eta beste batzuk lekuz aldatzea ekarriko du, inolako zalantzarik gabe.

Gaur egun dauden enpleguak kontuan izanik, honela banatzen da eskualde-egiturako jarduera ekonomikoa: lehen sektorea %4, bigarren sektorea %49 eta hirugarren sektorea %47. Eskualdeko jarduera ekonomikoa nagusiki industria-sektorean oinarritzen dela egiazta daiteke, beraz.

Eskualde-egituran ez dago enpresa handirik, bertako industria-ehuna metal-eraldatuen sektoreko eta papergintzaren sektoreko tamaina txikiko enpresek osatzen dute.

Laburbilduz, eskualdearen industria-problematika Tolosako papergintzaren sektorea eta industriak, oro har, birmoldatzeko premian datza, instalazioak zaharkituta daude eta kasu askotan hiri-bilbearen barruan kokatzen dira. Hainbat enpresek lekualdatu edota zabaltzeko nahi duten arren, ez dago Tolosako udalerrian premia hau asetzeko industria-lurzorurik eta, horrenbestez, enpresa hauek Tolosa utzi eta hurbileko udalerrietarantz jotzen ari dira. Eskualdeak industria-lurzoruari dagokionez duen premiari aurre egiteko nahitaez sustatu beharko da lekuz aldatu nahi duten nolabait tamaina handiko enpresak hartuko dituen poligono berri bat. Toloserrin, lekualdatzea erabakitzen duten enpresak jasotzeko ahalmena izango duen poligono berri bat epe laburrera sustatzeko beharra antzematen da.

Industrialdea sortzea oso interesgarria izango da hirigunearen barruan dauden lantegi txikiak lekuz aldatu ahal izateko.

### **c) Komunikabide-sarea**

Oria ibaiaren haranetik bideratzen diren N-1 autobia eta Madril-Irun trenbidea dira eskualde-egitura antolatzen duten komunikabide-ardatzak.

Orain arte eskualde-egituraren komunikabide-gunea Tolosa izan da, baina Nafarroarako autobia eraikitzearekin gunea eskualde-egituraren iparralderantz lekualdatu da.

Eskualde-egituraren barruan beste errepide garrantzitsuak daude, hala nola: N-240 errepidea, Nafarroarekiko antzinako lotura; GI-2631 errepidea, Billabonatik abiatuta Zizurkil eta Asteasutik barrena Aiara jo eta bertatik N-634 errepidearekin Orioko gainean bat egiten duena; GI-2634 errepidea, Tolosatik abiatuta Albiztur, Bidegoian eta Errezildik barrena Azpeitira heltzen dena; eta GI-2130 errepidea, Tolosatik abiatuta Ibarra, Berrobi, Elduain eta Berastegin barrena Leitزارantz egiten duena Urtoko gaina gainditu ondoren.

Berriki zabaltzeko den Ibarra saihesbideak eskualdeko poligono berri gisa erabil daitezkeen Apattako ingurunera heltzeko aukera eskaintzen du.

Abiadura handiko trenaren etorkizuneko trazadurak Toloserriko eskualde-egitura zeharkatuko du.

Saneamenduko eta ur-hornidurako oinarriko azpiegiturak hobetzeko eta sistematizatzeke lanak arian-arian ari dira garatzen, betiere Gipuzkoako Foru Aldundiak bultzatutako planen arabera. Ibiturako urtegiaren eraikuntzari esker eskualde-egitura osoaren ur-hornidura ebatziko da.

Toloserriko eskualde-egiturak gasbideko oinarriko azpiegitura du, baita erregulazio-estazioak Altzo, Belauntza eta Billabonan ere, eta azpiegitura honek gasa banatzeko sarea hala eskatzen duten industrietaraino zabaltzeko aukera ematen du.

### **d) Lurzoru-erreserbak**

Gaineratzen den taulan islatzen denaren arabera jardura ekonomikoetarako hirigintza-kalifikazioa duten lurzoruek, plangintzan aintzat hartzen direnek, 300 ha-ko azalera hartzen dute guztira Toloserriko eskualde-egituraren. Guztizko honetatik 189 ha okupatuta daude eta 111 ha libretzat jotzen da.

Dena den, lurzoru libre kalifikatutzat hartutako 111 hektareak ez dira lurzoru-eskaintza erreala, lurzoru-azalera hau eremu txikien baturari dagokio eta tamaina handi samarreko eremuen kasuan beren hirigintza-garapena oztopatzen duen arazoren bat azaltzen da.

Gaur egun Toloserriko eskualde-egiturak ez du industria-lurzoru erabilgarriko eskaintza errealik eta horren lekuko dugu oraindik ere Tolosako Industrialderako kokapen egokirik aurkitu ez izana. Era berean, Tolosako zenbait enpresak beren instalazioak zabaldu edo berritu nahi dituzte eta ez dute beren kokapen berrirako lurzorurik aurkitzen.

Epe laburrean, bi dira industria-lurzoru berria sortzeko aukerarik bideragarrienak: bata, Apattan (Ibarra, Leaburu, Tolosa) eskualdeko poligonoa eraikitzea, bertan 50 ha birkalifika daitezke, eta, bestea, Adunako ibarreko lurzoru libreak garatzea, bertan 20/25 ha birkalifika daitezke. Epe ertainean, hautabidezko beste kokalekuren bat aurkitzeko bideragarritasunari buruzko azterlanak egin beharko dira.

#### **e) Lurzoru-eskariaren aurreikuspenak**

1990-2002 aldian industria-lurzoru okupatuaren gehikuntza 25 ha ingurukoa besterik ez da izan Toloserriko eskualde-egitura honetan; eskualdearen iparraldean gertatu diren zabalpenak (Aduna, Asteasu, Irua) Tolosako industria-lurzoruak desegitearekin konpentsatu dira-eta. Horrek urteko 2 ha-ko hazkunde-erritmoa dakar.

16 urteko horizontean jarduera ekonomikoetarako lurzoruaren etorkizuneko eskari hipotetikoa estaltzeko, eskualde-egitura honetan, gutxienez Tolosa inguruko hazkunde-erritmo endogeno horri eusteko gai izango den eta eskualde-egituraren iparraldean lurzoru-eskaintza osagarria sortzeko bidea emango duen lurzoru-eskaintza aurreikusteak komeni da.

**TOLOSERRIKO**  
**ESKUALDE-EGITURA**

**JARDUERA EKONOMIKOETARAKO LURZORUA,**  
**OKUPATUA, LIBREA ETA GUZTIZKOA AZPIESKUALDE ETA UDALERRIEN ARABERA 2003AN\***

AZPIESKUALDEA / UDALERRIA	JARDUERA EKONOMIKOETARAKO LURZORUA (Azalera ha-tan)		
	OKUPATUA	LIBREA	GUZTIRA
ABALTZISKETA	-	-	-
ADUNA	26,31	2,03	28,34
ALBIZTUR	2,42	-	2,42
ALEGIA	5,65	4,00	9,65
ALKIZA	-	-	-
ALTZO	3,77	-	3,77
AMEZKETA	4,27	0,90	5,17
ANOETA	9,02	2,40	11,42
ASTEASU	14,40	8,30	22,70
BALIARRAIN	-	-	-
BELAUNTZA	15,85	1,80	17,65
BERASTEGI	1,83	3,75	5,58
BERROBI	2,73	-	2,73
BIDEGOIAN	3,31	1,00	4,31
ELDUAIN	2,70	-	2,70
GAZTELU	0,15	0,50	0,65
HERNIALDE	-	-	-
IBARRA	1,16	36,06	37,22
IKAZTEGIETA	4,37	1,73	6,10
IRURA	13,71	4,11	17,82
LARRAUL	-	-	-
LEABURU-TXARAMA	1,16	6,41	7,57
LIZARTZA	3,44	4,20	7,64
ORENDAIN	-	-	-
OREXA	-	-	-
TOLOSA	39,68	21,81	61,49
BILLABONA	14,40	6,70	21,10
ZIZURKIL	18,19	5,33	23,52
<b>TOLOSERRIKO</b>			
<b>EE GUZTIRA</b>	<b>188,52</b>	<b>111,03</b>	<b>299,55</b>

\* 2003-12-31n eguneratuta. Udalplan 2004



**TOLOSERRIKO**  
**ESKUALDE-EGITURA**

**BIZTANLERIA GUZTIRA, BIGARREN SEKTOREAN LAN EGITEN DUEN BIZTANLERIA**  
**ETA JARDUERA EKONOMIKOETARAKO LURZORUA BEHAR DUTEN ENPLEGUEN KOPURUA**  
**AZPIESKUALDE ETA UDALERRIEN ARABERA 2000N**

<b>AZPIESKUALDEA / UDALERRIA</b>	<b>BIZTANLERIA GUZTIRA (Biztanle-kop.)</b>	<b>BIZTANLERIA LANEAN BIGARREN SEKTOREAN (Lan eg. kop.)</b>	<b>ENPLEGU-KOP. JARD. EKON. LURZORUAN (Enplegu-kop.)</b>
ABALTZISKETA	265	57	9
ADUNA	308	62	707
ALBIZTUR	288	64	98
ALEGIA	1.639	319	264
ALKIZA	255	39	6
ALTZO	330	59	123
AMEZKETA	1.006	272	164
ANOETA	1.749	367	446
ASTEASU	1.172	253	462
BALIARRAIN	84	23	4
BELAUNTZA	295	60	342
BERASTEGI	951	249	198
BERROBI	552	134	30
BIDEGOIAN	414	101	64
ELDUAIN	221	53	105
GAZTELU	148	37	-
HERNIALDE	302	66	3
IBARRA	4.380	981	174
IKAZTEGIETA	379	103	259
IRURA	745	158	684
LARRAUL	136	21	13
LEABURU-TXARAMA	356	87	16
LIZARTZA	621	167	42
ORENDAIN	150	20	2
OREXA	80	9	3
TOLOSA	18.066	3.127	2.752
BILLABONA	5.408	1.135	622
ZIZURKIL	2.660	566	825
<b>TOLOSERRIKO EE GUZTIRA</b>	<b>42.960</b>	<b>8.589</b>	<b>8.417</b>

**TOLOSERRIKO**  
**ESKUALDE-EGITURA**

**LURZORU KALIFIKATUAREN ERRESERBA-INDIZEA, BIGARREN SEKTOREKO AUTOENPLEGUARENA**  
**ETA BIGARREN SEKTOREKO ENPLEGU-DENTSIFIKAZIOARENA AZPIESKUALDE ETA UDALERRIEN ARABERA 2003AN**

AZPIESKUALDEA / UDALERRIA	LURZORU LIBREAREN ERRESERBA- INDIZEA	BIGARREN SEKTOREKO AUTOENPLEGU-INDIZEA	BIGARREN SEKTOREKO ENPLEGUAREN DENTSIFIKAZIO- INDIZEA
	AZAL. LURZORU KALIF. LIBREA AZAL. LURZORU KALIF. GUZTIRA	BIG. SEK. ENPLEGUA BIZ. OKUP. BIG. SEK.	BIG. SEK. ENPLEGUA LURZORU OKUP. J. E. (enplegu/ha)
ABALTZISKETA	-	0,16	-
ADUNA	0,07	11,40	26,87
ALBIZTUR	-	1,53	45,16
ALEGIA	0,41	0,83	46,73
ALKIZA	-	0,15	-
ALTZO	-	2,08	32,63
AMEZKETA	0,17	0,60	38,41
ANOETA	0,21	1,22	49,45
ASTEASU	0,37	1,83	32,08
BALIARRAIN	-	0,17	-
BELAUNTZA	0,10	5,70	21,58
BERASTEGI	0,67	0,80	108,20
BERROBI	-	0,22	10,99
BIDEGOIAN	0,23	0,63	19,34
ELDUAIN	-	1,98	38,89
GAZTELU	0,77	-	-
HERNIALDE	-	0,05	-
IBARRA	0,97	0,18	150,00
IKAZTEGIETA	0,28	2,51	59,27
IRURA	0,23	4,33	49,89
LARRAUL	-	0,62	-
LEABURU-TXARAMA	0,85	0,18	13,79
LIZARTZA	0,55	0,25	12,21
ORENDAIN	-	0,10	-
OREXA	-	0,33	-
TOLOSA	0,35	0,88	69,35
BILLABONA	0,32	0,55	43,19
ZIZURKIL	0,23	1,46	45,35
<b>TOLOSERRIKO EE GUZTIRA</b>	<b>0,37</b>	<b>0,98</b>	<b>44,65</b>

### 3.2.15.- UROLA-KOSTAKO ESQUALDE-EGITURA

#### a) Esparru fisikoa

Gipuzkoako Lurralde Historikoaren erdialdean Oria eta Urola ibaien bokaleen artean kokatzen den Urola-Kostako eskualde-egitura hau Ernioko mendigunea du muga Ekialdean eta Izarraizko mendigunea Mendebaldean.

Bi alde oso desberdinak biltzen dira eskualde-egitura honetan: batetik, Oria ibaiaren bokalearen eta Urola ibaiaren behe-ibilbidearen arteko itsasertzeko aldea (Orio, Aia, Zarautz, Getaria, Zumaia, Aizarnazabal eta Arrona) eta, bestetik, Urola ibaiaren ibilbidearen erdialdea (Zestoa, Azkoitia, Azpeitia, Beizama eta Errezil).

Ibaien behe-ibilbideetako eremuek interes naturalistiko eta paisajistiko handiko topografia leuneko eremuak dituzte eta nekazaritza- eta arrantza-aprobetxamendurako baldintza bikainak dituzte.

Eskualde-egitura honek 327,7 km<sup>2</sup>-ko azalera du eta Euskal Autonomia Erkidegoaren lurraldearen %4,6 hartzen du.

Eskualde-egituran tamaina handi samarreko lau udalerrri daude itsasertzean, Orio, Zarautz, Getaria eta Zumaia, eta bi barnealdean, Azpeitia eta Azkoitia.

#### b) Hiri-egitura eta jarduera ekonomikoa

Eskualde-egitura honek 64.700 biztanle inguru ditu, hau da, Euskal Autonomia Erkidego osoko biztanleriaren %3,1.

Orio, Aia, Zarautz, Getaria, Zumaia, Aizarnazabal, Zestoa, Azpeitia, Azkoitia, Errezil eta Beizamako udalerriek osatzen dute eskualde-egitura hau.

Urola-Kostako eskualde-egitura bi azpiguneren inguruan biltzen da. Lehena Zarautz da eta kostaldeko eremuko (Orio, Aia, Zarautz, Getaria) hirigune nagusi bihurtzen da. Bigarrena, Azpeitia-Azkoitia gunea da, Urola Erdialdeko gune tradizional honen inguruan landa-izaera duten Beizama eta Errezilgo udalerriak daude. Bi azpigune hauen artean, erdialdera, Zumaia, Zestoa eta Aizarnazabalgo udalerriak daude.

Eskualde-egituraren jarduera ekonomikoa industrian oinarritzen bada ere, kostaldeko udalerrietan garrantzi handikoa da arrantza-jarduera (Getaria, Orio eta neurri txikiagoan Zumaia) eta sektore turistikoa (Zarautz, Getaria, Orio, Zumaia eta Zestoa, bere bainuetxeari esker).

Zumaia, Getaria eta Orion kirol-portuak eraikitzeak hirugarren sektorea sustatzea ekarriko du.

Urola Erdialdeko industria-jarduera Aforasa eta Ucin siderurgia-enpresen inguruan biltzen da.

Oinarritzko metalurgiaren eta metal-erlaldatuen sektoreaz gain altzarien industria ere garrantzi handikoa da eskualdean (Zarautz, Oikina eta Azpeitia).

Jarduera ekonomikoetarako lurzorua problematikari dagokionez aditzera eman behar da funtzionalki Orioko udalerriri atxiki dakizkikeen industria gehienak administratiboki Aiako udalerraren jabetzakoak diren lurzoruetan kokatzen direla.

**c) Komunikabide-sarea**

Ondokoak dira eskualdea egituratzen duten komunikabide-azpiegiturak: alde batetik, A-8 autobidea eta N-634 eta Zarautz eta Iraeta arteko (Meagastik) GI-2.633 errepideak, kostako iraganbidearen irisgarritasuna ebazten dutenak; eta, bestetik, Urola Erdialdearekin lotzen duten GI-631 eta GI-2634 errepideak.

Zumarragarekin eta trenbidearekin lotzen den GI-631 errepideak gero eta garrantzi funtzional handiagoa hartuko du Beasain - Durango iraganbidea eraikitzen den heinean.

**d) Lurzoru-erreserbak**

Gaineratzen den laburpen-taulan islatzen denaren arabera jarduera ekonomikoetarako hirigintza-kalifikazioa duten lurzoruek 482 ha-ko azalera hartzen dute guztira eskualde-egitura honetan. Guztizko honetatik 324 ha okupatuta daude eta 158 ha okupatu gabe daude.

Lurzoru-erreserba nagusiak aztertuz gero, Orion, Aian eta Getarian lurzoru-erreserba aipagarriak ez dagoela antzematen da.

Planifikatutako lurzoru-erreserba nagusiak Azpeitia, Azkoitia, Zumaia eta Zarauzko udalerrietan eta, batez ere, Zestoako Arroabekoa poligono publikoan daude.

**e) Lurzoru-eskariaren aurreikuspenak**

1990-2002 aldian Urola-Kostako eskualde-egituran okupatutako industria-lurzoruaren gehikuntza 70 ha ingurukoa izan da. Horrek urteko ia 6 ha-ko batez besteko hazkunde-erritmoa dakar.

16 urteko horizontean jarduera ekonomikoetarako lurzoruaren etorkizuneko eskari hipotetikoa estaltzeko, Urola-Kostako eskualde-egitura honetan hazkunde-erritmo iraunkor hori bereganatzeko gai izango den lurzoru-eskaintza aurreikustea komeni da.

**UROLA-KOSTAKO**  
**ESKUALDE-EGITURA**

**JARDUERA EKONOMIKOETARAKO LURZORUA**  
**OKUPATUA, LIBREA ETA GUZTIZKOA AZPIESKUALDE ETA UDALERRIEN ARABERA 2003AN**

AZPIESKUALDEA / UDALERRIA	JARDUERA EKONOMIKOETARAKO LURZORUA (Azalera ha-tan)		
	OKUPATUA	LIBREA	GUZTIRA
AIA	21,82	13,78	35,60
AIZARNAZABAL	15,67	6,67	22,34
AZKOITIA	46,75	25,81	72,56
AZPEITIA	97,81	24,38	122,19
BEIZAMA	0,95	-	0,95
ERREZIL	3,14	2,44	5,58
GETARIA	9,62	-	9,62
ORIO	2,55	0,74	3,29
ZARAUTZ	40,76	17,99	58,75
ZESTOA	21,26	46,10	67,36
ZUMAIA	63,52	20,30	83,82
<b>UROLA-KOSTAKO</b>			
<b>EE GUZTIRA</b>	<b>323,85</b>	<b>158,21</b>	<b>482,06</b>

\* 2003-12-31n eguneratuta. Udalplan 2004

**BIZTANLERIA GUZTIRA, BIGARREN SEKTOREAN LAN EGITEN DUEN BIZTANLERIA**  
**ETA JARDUERA EKONOMIKOETARAKO LURZORUA BEHAR DUTEN ENPLEGUEN KOPURUA**  
**AZPIESKUALDE ETA UDALERRIEN ARABERA 2000N**

	GUZTIRA (Biztanle-kop.)	LANEAN BIGARREN SEKTOREAN (Lan eg. kop.)	JARD. EKON. LURZORUAN. (Enplegu-kop.)
AIA	1.561	268	367
AIZARNAZABAL	543	169	422
AZKOITIA	10.231	2.353	2.206
AZPEITIA	13.606	3.272	4.089
BEIZAMA	163	29	6
ERREZIL	638	127	41
GETARIA	2.345	381	317
ORIO	4.294	796	199
ZARAUTZ	19.716	3.268	2.385
ZESTOA	3.182	704	474
ZUMAIA	8.305	2.073	2.444
<b>UROLA-KOSTAKO</b>			
<b>EE GUZTIRA</b>	<b>64.584</b>	<b>13.440</b>	<b>12.950</b>

**UROLA-KOSTAKO**  
**ESKUALDE-EGITURA**

**LURZORU KALIFIKATUAREN ERRESERBA-INDIZEA, BIGARREN SEKTOREKO AUTOENPLEGUARENA**  
**ETA BIGARREN SEKTOREKO ENPLEGU-DENTSIFIKAZIOARENA AZPIESKUALDE ETA UDALERRIEN ARABERA 2003AN**

AZPIESKUALDEA / UDALERRIA	LURZORU LIBREAREN ERRESERBA- INDIZEA	BIGARREN SEKTOREKO AUTOENPLEGU-INDIZEA	BIGARREN SEKTOREKO ENPLEGUAREN DENTSIFIKAZIO- INDIZEA
	AZAL. LURZORU KALIF. LIBREA AZAL. LURZORU KALIF. GUZTIRA	BIG. SEK. ENPLEGUA BIZ. OKUP. BIG. SEK.	BIG. SEK. ENPLEGUA LURZORU OKUP. J. E. (enplegu/ha)
AIA	0,39	1,37	16,82
AIZARNAZABAL	0,30	2,50	26,93
AZKOITIA	0,36	0,94	47,19
AZPEITIA	0,20	1,25	41,18
BEIZAMA	-	0,21	6,32
ERREZIL	0,44	0,32	13,06
GETARIA	-	0,83	32,95
ORIO	0,22	0,25	78,04
ZARAUTZ	0,31	0,73	58,51
ZESTOA	0,68	0,67	22,30
ZUMAIA	0,24	1,18	45,67
<b>UROLA-KOSTAKO EE GUZTIRA</b>	<b>0,33</b>	<b>0,96</b>	<b>39,99</b>

